



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA.

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION.

1997ko  
Aitzterketak

361(079.1)





katalogoa

Eibarko Hezkuntza Esparrua

943.20.27.48

20600 EIBAR.



**IRAKASLEEN  
HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK  
1997ko AZTERKETAK**



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1997

Argitaraldia: 1.a, 1997ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.  
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Grafo, S.A.  
Avda. Cervantes, 51 - 48970 Basauri

ISBN: 84-457-1192-X

Lege-gordailua: BI - 2.343-97

## AURKIBIDEA

HITZAURREA .....	7
I. 1997ko DEIALDI IREKIA .....	9
I.1. Deialdi irekia: HE1eko azterketa .....	11
I.1.1. Lehen proba: Aukera Anitzeko Galderak .....	11
I.1.2. Bigarren proba: Idatzia .....	25
I.2. Deialdi irekia: HE2ko azterketa .....	37
I.2.1. Lehen proba: Aukera Anitzeko Galderak .....	37
I.2.2. Bigarren proba: Idatzia .....	51
II. 1997ko LEHEN DEIALDI ITXIA .....	61
II.1. Lehen Deialdi itxia: HE1eko azterketa .....	63
II.2. Lehen Deialdi itxia HE2ko azterketa .....	71
III. 1997ko BIGARREN DEIALDI ITXIA .....	77
IV. AHOZKO AZTERKETAK .....	81
IV.1. Ahozko azterketak: HE1 .....	83
IV.2. Ahozko azterketak: HE2 .....	89
V. ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK .....	91
V.1. Kalifikazio-sistemaren azalpena .....	93
V.1.1. Erreferentzia nagusiak .....	93
V.1.2. Deialdi irekia .....	93
V.1.3. Deialdi itxiak .....	94

V.2. Idazlanak .....	96
V.2.1. Sarrera .....	96
V.2.2. Koherentzia .....	96
V.2.3. Kohesioa .....	98
V.2.4. Zuzentasuna .....	99
V.2.5. Bestelakoak .....	101
V.3. Ahozko proba .....	102
V.3.1. Sarrera .....	102
V.3.2. Osagai morfo-fonetikoa .....	102
V.3.3. Zuzentasuna .....	104
V.3.4. Lexikoa .....	105
V.3.5. Jariakortasuna .....	106
V.3.6. Bestelakoak .....	107
V.4. Probak baloratzeko irizpideen laburpena .....	108
V.5. Akatsak .....	110
V.6. Idazlanetarako eta ahozko probarako baremoak .....	113
VI. ERANTZUNAK .....	119
VI.1. Deialdi irekiko erantzunak .....	121
VI.2. Deialdi itxiko erantzunak .....	123
VII. ERASKINAK .....	125
VII.1. Estatistika-laburpena .....	127
VII.2. Arauzko xedapenak .....	129
VII.2.1. Lehen zehaztapena .....	129
VII.2.2. Ebaluazio-irizpideak .....	131
VII.2.3. Deialdi itxien kalifikazio-sistema .....	135
VII.2.4. Deialdi irekiaren kalifikazio-sistema .....	138



## HITZAURREA

Irakasleen hizkuntz eskakizunen liburuxka honek 1997ko azterketak biltzen ditu bere baitan. 1997an zehar hizkuntz eskakizunen hiru deialdi izan dira: horietariko bi itxiak, IRALEn liberatuta egon diren irakasleentzat eratuak, eta hirugarrena irekia. Ohikoa den bezala, deialdi irekia eta 2. deialdi itxia egun bere-tsuetan egin ziren eta azterketa-material berberak erabili ziren.

Bi hizkuntz eskakizunez gain, HBLEM (Hezkuntza Bereziko Laguntzaileen Euskara Maila) azterketa ere egin da deialdi horietan. Hezkuntzako lan-kategoria berezi bati zuzendutako azterketa da. Idatizian HE1eko euskara-maila eskatzen zaie gutxi gorabehera. eta ahozkoan, berriz, HE2 ingurukoa. Horregatik, azterketa-material beretsuak erabili izan dira. Nolanahi ere, zuzenketa garaian, kontuan hartzen da azterketari horien eginbearra ez dela irakasle-lana.

Liburu honetan bi material-mota aurki ditzakezue:

- a) Azterketa-materialak: deialdi irekiko zein itxietako azterketa idatziak biltzen dira hemen, ahozko azterketen adibide batzuekin batera.
- b) Zuzenketarako irizpideak: azterketak zuzentzeko erabili diren irizpideak eta baremoak.

Horretaz gainera, ariketen erantzun zuzenak jasotzen dira, emaitzen laburpen estatistiko txiki bat eta hizkuntz eskakizunen inguruko arauzko erabakien laburpena ere eskainiz.

Ondoko orrialdeok hizkuntz eskakizunak prestatu nahi duten irakasleentzat baliagarri izango dela espero dut.

**Edurne Gumuzio Añibarro**  
Pedagogi Berrikuntzarako zuzendaria



## **I. 1997ko DEIALDI IREKIA**



## I.1. DEIALDI IREKIA: HE1eko AZTERKETA

### I.1.1. Lehen proba: aukera anitzeko galderak

#### IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE1  
Eredua: A

LEHEN PROBA: AAG

1997ko ekainaren 7a

1. deitura: .....
2. deitura: .....
- Izena: .....
- NAN zkia.:

#### OHARRAK

1. Zure karneta mahai gainean utzi, aztertzailleek jasotzeko moduan.
2. Atera ezazu suelto dagoen erantzun-orria koaderno honetatik.
3. Konproba ezazu koaderno eta erantzun-orria eredu berekoak direla.
4. Konprobatu azterketa honek 12 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
5. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak erantzun-orrian eta koaderno honetan.
6. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
7. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
8. Gelan ezin da erre.
9. Amaitzen duzunean, ez mugitu aulkitik arduradunek azterketa-materialak jaso arte.

## ARRETAZ IRAKURRI

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 asmatu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun egokiena aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Koaderno honetan **EZ** markatu erantzunik eta **EZ** idatzi.
- Erantzun okerrenatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira ekainaren 12rako.
- Gainditzen dutenek ekainaren 21ean izango dute HE1eko 2. proba, goizeko 9,30etan, zerrendetan adieraziko den lekuan.
- Bigarren proba horretan, nahi izanez gero, hiztegi bat ekarri ahal izango duzu HE1eko **idazlanak** egiteko.

1. *Aitonak konfidantza osoa du .....*
  - a) medikuan.
  - b) medikuarengan.
  - c) medikuarenean.
  - d) medikuari.
  
2. *Hamar urteren ..... itzuliko gara Ameriketatik.*
  - a) buruz
  - b) barru
  - c) buruan
  - d) barruan
  
3. *Gaur egungo gurasoek ez dakite ..... hezitzen.*
  - a) semeak
  - b) seme-alabak
  - c) semeek
  - d) seme-alabei
  
4. *Hemen ez ..... neskarik ageri.*
  - a) dira
  - b) da
  - c) dago
  - d) du
  
5. *Zu ....., baina zure laguna ez dut ..... ikusi.*
  - a) sarri / batean ere ez
  - b) askotan / beti ere ez
  - c) sekula / sekula bizian
  - d) sarritan / behin ere
  
6. *Emadazu ....., mesedez; egarri naiz eta.*
  - a) ur baso bat
  - b) baso bat bete urez
  - c) baso bete ur
  - d) ur baso bete

7. *Biontzat sagar bakarra daukagu; beraz, . . . . . egingo dugu.*

- a) erdia bakoitzeko
- b) erdi bana
- c) erdiz-erdi
- d) bakoitzak erdia

8. *. . . . . agindutakoa egin behar dute haurrek.*

- a) Gurasoak
- b) Gurasoen
- c) Gurasoengatik
- d) Gurasoek

9. *Baserrian bizi izan zen semeak lau urte . . . . .*

- a) betetzen ondoren.
- b) betetzearekin batera.
- c) bete bitartean.
- d) bete orduko.

10. *Droga-menpekotasunaren . . . . . izango da hitzaldia.*

- a) buruz
- b) gainean
- c) buruzko
- d) gain

11. *Lekutan dago! Zein da esanahia?*

- a) Dakigun lekuan dagoela
- b) Hurbil dagoela
- c) Urrun dagoela
- d) Hortxe dagoela

12. *Ondoko animalietatik bat da hegaztia. Zein?*

- a) Ahuntza
- b) Antzara
- c) Erbia
- d) Aharia



13. *Goizago jaiki izan bagina lanera garaiz iritsiko . . . . .*

- a) gara
- b) ginatekeen
- c) ginake
- d) genukeen

14. *Oso denbora . . . . . egin dute ermitarako bide berria.*

- a) gutxi
- b) arinean
- c) laburrean
- d) txikian

15. *Jakin nahi nuke aterkia nork. . . . .*

- a) kendu dit.
- b) kendu didala.
- c) kendu nauen.
- d) kendu didan.

16. *Autoa sartu . . . . . ibili naiz garajea.*

- a) ezinik
- b) ezinezko
- c) ezinaz
- d) ezin

17. *Etxe zahar gehienak . . . . . eginak daude.*

- a) harriekin
- b) harriz
- c) harrian
- d) harrizko

18. *Entzuna dut lasterketan parte hartu nahi . . . . .; baina ez dut uste hori komeni . . . . .*

- a) duzuna / duzula
- b) duzula / dizunik
- c) duzun / zaizun
- d) duzula / zaizunik

19. *Emakume jantzita, denak engainatu nituen. . . . . hartu baininduten.*

- a) emakume bezalakoa
- b) emakume gisa
- c) emakumetzat
- d) emakume

20. *Hainbat . . . . . eta . . . . . «Pocahontas» pelikula ikusi du.*

- a) haurrak / jende nagusiak
- b) hurrek / jende nagusik
- c) hurrek / jende nagusiek
- d) haur / jende nagusi

21. *Nolakoak iruditu zaizkizu ingurugiroari buruzko mintzaldiak?*

- a) Ezin hobeto.
- b) Ezin hoberenak.
- c) Ezin hobeak.
- d) Ezin onegiak.

22. *Hamaika jende jakintsu dago sekula estudiantu . . . . .*

- a) ez duela.
- b) ez duenik.
- c) ez duena.
- d) ez duelarik.

23. *Arratsaldeko . . . . . egon beharra daukagu abokatuarekin.*

- a) Ordu bata laurden gutxi
- b) Ordu biak eta erdian
- c) Hirurak eta hogeit gutxitan
- d) Hirurak eta laurdenetan

24. *Zinerako badaukat dirua; teatorako, . . . . ., ez.*

- a) berriz
- b) alderantziz
- c) ordez
- d) bestela

25. *Neska-lagunak utzi duenetik, sarri . . . . . psikologoarengana.*

- a) joan behar zuen
- b) joan behar izaten du
- c) joan beharko du
- d) joaten ari da

26. *. . . . . gustatzen zait, baina . . . . . behartzen ez banaute.*

- a) Irakurtzea / irakurtzera
- b) Irakurtzea / irakurtzen
- c) Irakurtzen / irakurtzeari
- d) Irakurri / irakurtzea

27. *Ehun . . . . . harria altxa nahi, baina . . . . . baizik ez du jaso Andonik.*

- a) kiloetako / gerrirarte
- b) kiloko / gerriraino
- c) kilotako / gerrirarte
- d) kilodun / gerriraino

28. *Zenbait urtez baserrian . . . . . egon eta . . . . . bihurtuta etorri zaigu gure Joxemari.*

- a) morroi / gizon
- b) morroi gisa / gizon batean
- c) morroi bezala / gizon
- d) morroitzat / gizona

29. *Zer galdetu dizu gizon horrek?*

- a) Ea arotza zein etxean bizi den.
- b) Ea arotza nolako etxean bizi da.
- c) Ea arotza zein etxetan bizi ote da.
- d) Ea arotza zein etxetan bizi den.

30. «ERE» partikula **ez** dago era egokian perpaus batean. Zeinetan?

- a) Leire eta Amaia gurekin etortzekoak dira ere.
- b) Beti dago barrez, besteok triste gaudenean ere.
- c) Ibili ere, asperturik ibiltzen da Ibon neska-lagunarekin.
- d) Nik egin behar dut, eta zuk ere bai.

31. Zein **ez** da besteen baliokidea?

- a) Ezer ere ez daukat.
- b) Deus ere ez daukat.
- c) Edozein ere ez daukat.
- d) Bat ere ez daukat.

32. Erlazio bat **ez** da zuzena:

- a) bazkari: bazkide
- b) lan: lankide
- c) mahai: mahaikide
- d) ikasi: ikaskide

33. Bat **ez** da sukaldeko tresna.

- a) Bitsadera
- b) Pitxarra
- c) Zorria
- d) Katilua

34. *Joan den astean arratsaldero . . . . . gurera afaltzera.*

- a) dator
- b) etorri izan da
- c) etortzen ari zen
- d) etorri ohi da

35. *Pelikula guztiak ikusi ez genituen arren, garrantzitsuenak . . . . . ikusi genituen.*

- a) erabat
- b) bide batez
- c) behintzat
- d) noizbehinka

36. *Berandu da; . . . . . , joan . . . . . ohera.*

- a) hala bada / ezazu
- b) beraz / zaitez
- c) horregatik / egizu
- d) horrela / zaitezke

37. *Ahots leun eta . . . . . hitz egin zidan.*

- a) adierazgailuaz
- b) adierazkaitzaz
- c) adierazkorraz
- d) adierazkizunaz

38. *. . . . . zeraman diru guztia lapurtu zioten.*

- a) Edonon
- b) Harekin
- c) Bertan behera
- d) Aldean

39. *Erosi nizkion loreak ez . . . . . gustatu.*

- a) zituen
- b) zaion
- c) zitzazkion
- d) zizkion

40. Zein dago gramatikalki **txarto**?

- a) Josebe eta biok elkar joan ginen Penalty jatetxera.
- b) Elkarrengandik banandu direnez geroztik, lasaiago bizi omen dira.
- c) Alkatearen kontra elkar hartu dute herritarrek.
- d) Ez etsi, elkarrengana bil gaitezen!

41. Zeinek adierazten du data **txarto**?

- a) Ondarroan, 1997ko ekainaren 19an.
- b) Ordizia, 1997ko maiatzak 10ean.
- c) 1997-03-05eko Argia Aldizkaria.
- d) Agurain, 1997ko urtarrilaren 8a.

42. *Gorputzez txikia da; . . . . ., ikaragarritzko indarra dauka.*

- a) dena den
- b) hala bada
- c) nolabait
- d) hori dela eta

43. *Medikuak esan . . . . . kezkatu . . . . . , benetan.*
- a) didanak / dit
  - b) didana / naiz
  - c) didanaz / nago
  - d) didanak / nau
44. *Atzo kalean nik agurtu . . . . . zuk ez . . . . . bat ere jaramonik egin.*
- a) zaitudanean / zidazun
  - b) nizunean / zenidan
  - c) dizudanean / ninduzun
  - d) zintudanean / zenidan
45. *Lehenbailehen . . . . . esan zion amak haur bihurriari.*
- a) etortzea
  - b) etortzera
  - c) datorrela
  - d) etortzeko
46. *Gauzak berak egiten dituen bezala egin . . . . . guk ere.*
- a) genezake
  - b) ditzakegu
  - c) gaitezke
  - d) genituzke
47. *Ez . . . . . gai ikusten lan hori egiteko.*
- a) naiz
  - b) dut ni
  - c) dut neure baitan
  - d) dut neure burua
48. *Txikia . . . . . jostailua aurkitu dut ganbaran . . . . . kutxa batean.*
- a) izandako / ahaztuta
  - b) nintzeneko / ahaztutako
  - c) nintzen / ahaztu didan
  - d) izaniko / ahazturiko

49. *Arno mendirako bidea? Ezin dizut esan, . . . . .*

- a) ez baitakit.
- b) ez dakitelako.
- c) ez jakinagatik.
- d) zeren ez dakit eta.

50. *Amak esan . . . . ., alaba Jone aita . . . . . da.*

- a) duen arabera / bezalakoa
- b) duenez / bezala
- c) duenaren arabera / bezalakoa
- d) duen bezala / modua

51. *Aberatsa den arren, ez du dirua alferrik gastatzen. Aukera ezazu parekoa:*

- a) Aberatsa izanik, osterantzean, ez du dirua alferrik gastatzen.
- b) Nahiz eta aberatsa izan, ez du dirua alferrik gastatzen.
- c) Aberatsa izatearren, ez du dirua alferrik gastatzen.
- d) Aberatsa baden ere, ez du dirua alferrik gastatzen.

52. *Zein esalditan kokatuko zenuke lizunkeria hitza?*

- a) Lokatzetan dagoen . . . . . gustatzen zaie txerriei.
- b) . . . . . dario pareta zahar honi.
- c) Zinean dena da . . . . . gaur egun.
- d) Arropa garbiaren . . . . . maite dut nik.

53. *. . . . . buru argia, . . . . . probak gainditzeko inongo arazorik.*

- a) Hainbat du / ezen ez duen
- b) Hain du / non ez baitu
- c) Hainbestekoa du / ez duela
- d) Horrenbestearinokoa du / ezen ez baitu

54. *Athleticek . . . . . ikusi behar izan zituen Villarreali irabazteko.*

- a) Sanpedronak eta bi
- b) beltz-beltzak
- c) gorriak
- d) beraiek

55. *Ainhoa besteak . . . . . ederra da; baina ez dauka modelo izateko behar . . . . . alturarik.*

- a) bezalako / adinako
- b) bezain / bezain
- c) adina / bezainbat
- d) bezain / adinako

56. *Badakit itsasoa . . . . . ; zerua nola . . . . . ez dakit, ordea.*

- a) marraztea / marraztea
- b) marrazten / marraztu
- c) marraztu / marraztu
- d) marrazten / marrazten

57. *Gaur Marianok non utzi du nire liburua?*

- a) Zure liburua Marianok utzi du mahai gainean gaur.
- b) Gaur Marianok zure liburua utzi du mahai gainean.
- c) Mahai gainean utzi du Marianok gaur zure liburua.
- d) Gaur utzi du mahai gainean zure liburua Marianok.

58. *Baionara iritsi bezain laster telefonatuko didazu, . . . . .*

- a) ez da hala?
- b) bai zera?
- c) ez da hori?
- d) orduan?

59. *Han ere txakurrak oinutsik. Zein da esaera zahar honen esanahia?*

- a) Txakurrak nonahi ortozik ibiltzen dira.
- b) Munduko txakur guztiak, azken batez, berdinak dira.
- c) Nonahi daude arazoak.
- d) Hemengo eta hango liskarrak berberak dira.

60. *Antolamendua nire esku utzi zuten. Zer esan nahi du azpimarratuta dagoenak?*

- a) Nire gainean
- b) Nire ardurapean
- c) Nire kontua
- d) Nire lepoan



61. Zein da giza organoa?

- a) Urdaia
- b) Urdaila
- c) Urdea
- d) Urdanga

62. *Elexaldeko eliza* .....

- a) zein polita da!
- b) hura dela polita!
- c) polit halakoa!
- d) bai dela polita!

63. *Egun on!* Zein da erantzunik egokiena?

- a) Berdintsua.
- b) Aspaldiko.
- c) Baita zuri ere.
- d) Berbera.

64. *Begoña ikusten duzunean, eska* ..... *utzi nizkion liburuak.*

- a) itzazu
- b) iezaiozu
- c) diezaizkiozun
- d) iezazkiozu

65. *Xabier* ..... *dugu; gainera, zenbat eta zaharrago,* .....

- a) gizon ederragoa /geroz eta erakargarriago
- b) gizonetako ederrena / zenbat eta erakargarriago
- c) gizonetan ederra / hainbat eta erakargarriena
- d) gizonik ederrenetakoa / orduan eta erakargarriago.

66. *Gaurko akta hau nik neuk* ..... *nahi dut; baina biharkoa Kepak* .....  
*nahi nuke*

- a) idatzi/ idaztea
- b) idaztea / idatzi
- c) idaztea / idaztea
- d) idatzi / idazteko

67. *Sabin, Iñaki eta . . . . . izango gara jaiaren arduradunak.*

- a) hirurak
- b) neuk
- c) biok
- d) hirurok

68. *Lainotuta badago ere, ateri dugu. Zer esan nahi du azpimarratuta dagoenak?*

- a) Irten gara.
- b) Babestoki bat dugu.
- c) Euririk ez du egiten.
- d) Atea jarri diogu.

69. *Konpondu da bion arteko auzia? - Horrek . . . . . ez dauka, . . . . .*

- a) konpontzea / inolaz ere.
- b) konpontzerik / inondik inora ere.
- c) konpontzekorik / nolabait.
- d) nola konpontzea / nonbait.

70. *. . . . . dabil gaur . . . . .*

- a) Hainbat jendea / kaletik.
- b) Jende piloa / kalearen zehar.
- c) Hamaika jende / kale barrena.
- d) Makina bat jende / kalean zehar.

## I.1.2. Bigarren proba: idatzia

### IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE1  
Eredua: A

IDATZIZKO PROBA

1997ko ekainaren 21a

1. deitura: .....

2. deitura: .....

Izena: .....

NAN zkia.:

### OHARRAK

1. Zure karneta mahai gainean utzi, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. Konproba ezazu azterketa honek 12 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
6. Gelan ezin da erre.
7. Amaitzen duzunean, ez mugitu aulkitik arduradunek zure azterketa-materialak jaso arte.

## ARRETAZ IRAKURRI

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Ahozkoaren ulermena 2) Irakurmena 3) Idazlan laburra 4) Idazlan luzea
- Denbora: **3 ordu**.
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira uztailaren leian.
- Gainditzen dutenek **ahozko proba** izango dute, Ordezkaritzan agertuko diren leku, egun eta orduetan (uztailaren 2tik 5era bitartean)

# AHOZKOAREN ULERMENA: TRANSKRIBAKETA

Ariketa honetarako *Euskadi Irratian* emandako albiste batzuk eta elkarrizketa bat erabili ziren. Jarraian grabazioaren transkribaketa ematen da.

## Lehen zatia: Berri bitxiak

Datu bat eman behar dizuegu, ba al dakizue, iaz, laurogeita hamaseian, estatu espainiarrean, batz bestea, pertsona bakoitzak telebistan zenbat iragarki ikusi zituen? Hogeitabi mila seiehun eta laurogeita hamabi iragarki. Hogeitabi mila seiehun eta laurogeita hamabi iragarki ikusi zituen telebistan, pertsona bakoitzak iaz, batz bestea.

Lehen ere makina batean esan izan dugu badela jende jatorra bazterretan, eta, berriz ere esango dugu. Malagakoa da oraingo gizon zuzena. Malagako gizonezko batek, Biktorrek, turista batzuei galdutako boltsoa eman zien, galdutakoa edo deskuido batean ahaztuta utzitakoa, eta barruan dirutza. Kotxean zihoala, Biktorrek ikusi egin zuen nola atzerriko matrikula zuen kotxe bat espaloi ertzean gertatzen zen, eta nola emakume bat eta bi ume hartzen zituen. Halakoetan gertatu ohi denez, atzetik zetozen kotxeak bozina joka hasi ziren eta emakumea eta haurrek zalaparta batean igo ziren kotxera. Eta presak eraginda boltsoa espaloian utzi zuten. Biktorrek boltsoa hartu eta poliziarengana eramatea pentsatu zuen, baina, aurretik, boltsoa ireki zuen ea dokumentaziorik edo ezer ba ote zen zuzenean jabea emateko. Eta boltsoa irekitakoan ikusi zuen, argazki kamara eta hirurehun mila pezeta. Eta boltsoa itzuli egin zuen.

Jende jatorra badela esan dizuegu, eta, maltzurra eta maliziosoa ere bai. Behin albisteak kontatzen hasita, denetik bildu dugu, eta aspaldiko partez lapurreta batena ere badakarkizuegu, Brasilen gertatutakoa. Brasilen *bitxeiro* bat hil da. *Bitxeiroa* da legez kanpoko jokoen bankeroa, diru zikina mugitzen duena, alegia. Ba, halako bat hil zen joan den ostiralean bere dirutza guztiak utziz. *Padrino* izenez zen ezaguna eta bihotzekoak jota hil zen. Eta hildakoari egin zioten lapurreta. *Padrino bitxeiroa* bere hilkutxan zegoen eta bere senitartekoak inguruan, hark utzitako dirutza nola partituko zuten pentsatzen, eta bere herentzia, beraien herentzia zenbatekoa izan ote zitekeen kontatzen. Eta bitartean hildako *Padrinoaren* azkeneko amoranteak aprobetxatu egin zuen lapurreta egiteko. Hildakoak bere *kaja fuerte* pertsonalean zuen guztia hartu zuen. Zazpi milioi pezeta inguru, bitxiak, erlojuak, dokumentuak, eta abar. Hildakoari lapurreta bere amorante alargundu berriak.

## Bigarren zatia: Dalai Lama

### 1. Solaskidea

Bai, nik ez dut pertsonalki edo zuzenean bera ezagutu, ez, baina beti interesantea den pertsonaje bat uste dut, ez. Gainera, jakina da, nobel saria jaso duen per-

tsonaje bat da. Baina, bere irudia oso erakargarria dela iruditzen zait, ez. Bere irudia: oso apala, oso umila, oso hurbilekoa, Aitorrek esaten zuen bezala, argia ere. Eta baita ere, neurri batean, ba, agian, gure gizarte honetan galdu diren hainbat balore, ba, balore berri batzuk ere berak ekarri dizkigu, ez. Eta nerretzat oso garrantziko izan da hainbeste jende gazte ikustea, ba, bera egon den leku guztietan. Nik uste dut, ba, ez-biolentziaren mezu horrek eta baita ere beste mezu batzuek, adibidez, nik ikusi ditudan gauzak edo irakurri ditudan gauzategatik, ba, ikusi dut ere, ba, beraren erlijio sinismen hori ere oso gaurkotu egin dela, ze adibidez, ba, desmilitarizazioa planteatzen duen pertsonaje bat da, ekologiar buruz edo naturarekin lotura ekologista bat planteatzen duen pertsona bat da. Hau da, sortzen ari diren, hemen bertan sortzen ari diren balore berri horiek ere berak nolabait ordezkatzeko ditu, eta, hori izan da nire ustetan, ba, oso garrantzitsua eta arrakastatsua...

## 2. solaskidea

Dalai Lama eta Tibeteko errejimena, ze, azken finean, Tibeteko errejimena oso konplexua da, Dalai Lama, pentsa, tronura bost urterekin ailegatu zela. Dalai Lamak ez dira aukeratzen, hor ez dago inongo bozketarik. Dalai Lama tibetarren ustez da, edo sinesten dutena da, Tibeteko patroia behin eta berriz birjaiotzen dela, hil eta ume batengan bergiharreratzen dela. Eta orduan tronura heldu zenean bost urte zeukan, eta imajina dezakegu, ba, bera txikia zen bitartean beste batzuk agintzen zutela. Nolabait hor, talde batek dauka agintea Tibetean edo zeukan Tibetean. Eta, beno, ba, bere errejimen horren pean egon zen hasieran, beno, izugarriko errejimen diktatoriala, feudala, teokratikoa, behar bada, munduan zegoen atzerakoiena, eta hori gaur egun ahaztu nahi da. Eta nik uste dut komeni dela hori gogoratzea. Gaur egun demokrazia parlamentarioa aipatzen duen gizon hau izan da Tibeteko biztanle askoren jaun eta jabe.

## 3. solaskidea

Dalai Lamaren figuran gauza bi batzen dira, ez, zuk oso ondo esan duzun moduan, alde batetik, eraketa edo egituraketa politiko baten burua dela, eta beste aldetik, erlijio baten burua dela, eta zentzu horretan, klaro, eraketa politiko horretako burua den neurrian ere armadaren burua da, eta zentzu horretan, ba beno, bakearen aldeko aldarrikapena, nolabait ere, nahiko erlatibizatuta geratzen da, ez, norbera armada baten burua denean. Baina argi dago, Patxik esaten zuen moduan, Budismoak, berez, funtsean (gero budismoaren barruan korrante asko egongo dira, imajinatzen dut), baina, budismoaren barruan berez, bakea (bakea ulertzeko ere modu asko daude, baina beno), budismoak ulertzen duen moduan halako, bakea da, ba, hori, erresistentziarik eza. Oso, oso bakearen kontzeptu berezia eta imajinatzen dut ere bakeari buruzko kontzeptu, behar bada, oso anitzak egon daitezkeela budismoaren barruan ere.

## 4. solaskidea

Baina bai badago, egi pixka bat ere, badago, guzti honetan, ezta? Nolabait budismoak eta gizon honek adierazten duena eta esaten duen ideia horretan behin-

tzat, beno, guk bizi dugun honekiko zerbait desberdina adierazten digula. Eta, nire ustez hori onartu beharra dago. Guztia ez da txarra. Historia baten frutu da gizon hau. Orain dela gutxira arte, agian, beste erabateko jarrera politikoak zeuzkan, baina ikuspuntu ideologiko, mistiko, erlijioso batetik zerbait onartu behar zaio, nire ustez. Eta, beno, zentzu horretan, bada beno, sinbolo baikor bat iruditzen zait niri.

## 5. solaskidea

Baina esan nahi nuen, izatez, guk ez genuela nahi, uste dut nik, Dalai Lama epaitu edo Tibeteko, ez dakit, ohitura edo sinesmena zein den edo... baizik eta pixka bat salatzea nola erabiltzen diren halako pertsonaiak, ezta? Interesen arabera. Eta hori gertatu da, ez Dalai Lamarekin, Gandhirekin berarekin gertatzen da, eta, hori berori gertatu da Arafatekin. Arafat garai batean, botereak esaten zuen, prentsa guztiak, terrorista zela eta bat batean... *hala!* Nobel Saria edo ez dakit zer, eta bakearen aldeko borrokalaririk handiena bihurtu zen gauetik goizera. Eta ordua arte, ba, terroristarik txarrena zen, ez, ba beno, halako gauzak ikusi egiten ditugu eta ikusiko ditugu. Eta beno, ba, nik uste dut, salatu behar direla...

# 1. AHOZKOAREN ULERMENA

Ondoren, bi grabazio entzungo dituzu. Zati bakoitza bi aldiz entzungo duzu. Galderak irakurri eta erantzuteko denbora izango duzu.

## I. Zatia

Orain, Euskadi Irratiko saio batean emandako hiru albiste bitxi entzungo dituzu. Ondoko baieztapenak **egia** ala **gezurra** diren adieraz ezazu alboko laukietan «X» bat jarritz.

	egia	gezurra
1. Iaz Estatu Espainiarrean, batez beste, bakoitzak 22.692 iragarki ikusi zituen.		
2. Victorrek ikusi egin zituen emakumea eta bi haurrak boltsoa hartu eta presaka kotxean ihes egiten.		
3. Espaloian zegoen boltsoa hartu eta, begiratu gabe, itzuli egin zuen Victorrek.		
4. <i>Bicheiroa</i> , legez kanpoko bankoen dirua erabiliz, negozioa egiten duen pertsona da.		
5. Bitxeiroak utzitakoa nola partitu pentsatzen ari zirela, haren azken amoranteak diru guztia lapurtu zuen.		

## II. Zatia

Orain dela gutxi Dalai Lamak Euskal Herrira egin zuen bisita dela eta, **bost solaskidek** Euskadi Irratian **emandako iritziak entzungo dituzu banan-banan**. Solaskide bakoitza bi aldiz jarraian entzungo duzu. **Aukera** ezazu **erantzunik egokiena** galdera bakoitzean eta dagokion letra **biribil batean sartu**.

- 1. solaskideak** Dalai Lamarengan ikusi duen gauzarik inportanteena zein da?
  - A. Nobel Saria izatea eta, gainera, pertsona oso jakintsua.
  - B. Bere irudi erakargarria eta defendatzen dituen baloreak.
  - C. Dalai Lamak ekarri duen «ez biolentziaren mezua».
  - D. Hainbat zahar eta gazte beregana hurbiltzen dela.
- 2. solaskideak** zer adierazi nahi du?
  - A. Dalai Lama tronura igo, eta bost urtera agintzen hasi zela.
  - B. Tibetarrek beren patroia bozketaren bidez aukeratzen dutela.
  - C. Ez dela ahaztu behar Dalai Lama nor izan den eta zer egin duen.
  - D. Gaur egun demokrazia parlamentarioa dagoela Tibetean.



**3. solaskideak** ondorengo hau dio:

- A. Dalai Lamak politikan gehiago agintzen du erlijioan baino.
- B. Armadak debekatzen dio Dalai Lamari bakearen alde lan egitea.
- C. Dirudienez, armadaren barruan bakea ulertzeko era asko daude.
- D. Budistentzat bakea ulertzeko modua «erresistentziarik eza» da.

**4. solaskideak** honela ikusten du Dalai Lama:

- A. Guk bizi ditugun arazoak bizi ditu Dalai Lamak ere.
- B. Egia da gezur asko esan zituela garai batean.
- C. Baditu gizon honek kontuan hartu beharreko alde onak ere.
- D. Dalai Lama oso baikor edo optimista da erlijio kontuetan.

**5. solaskideak** zer utzi nahi du garbi?

- A. Botereak, interesen arabera, erabili egiten duela zenbait jende.
- B. Dalai Lama salatu edo denuntziatu nahi duela.
- C. Gandi, Nobel Saria irabazi bezain laister bakezale egin zela.
- D. Dalai Lama, Gandi eta Arafat bakezale handiak direla.

## 2. IRAKURMENA

**Hutsune bakoitzean ezabatu den esaldia aurkitu hurrengo orrialdeko zerrendan.**

### Telekomunikazioetako ingeniari baten ibilbidea

**S**usana Villanueva Lopez de Dicastillo Nafarroako Uni-bertsitate Publiko (NUP) ikasle iruindarra, Erasmus programako beka baten bidez, Parisera joan zen Telekomunikazioak ikastera orain dela bi urte. Erreportaia hau berekin egiteko arrazoia ez da hori, ordea. Nafarrak Ecole Supérieure d'Ingenieurs en Electrotechnique et Electronique (ESIEE) unibertsitateko espedienterik onena izan du Komunikazio Sistemen espezialitatean.

Bere ustez, ordea, espedienterik onena eskuratzea ez da inportantea, ikasteko eta bizitzeko beste era bat ezagutu izana baino. Susanak jaki-narazi duenez, Telekomunikazioetako Ingenieritzako titulua hartzera joan zenean ez omen zekien notarik onenak eskuratu zituela: «... 1 ...». Susanak apal-apal erantzun die gure galderei. Ia denetan 10ak atera ote zituen galdetu diogunean iruindarrak irriño bat egin du: «... 2 ...».

Susanak 23 urte ditu, eta karrerako lehen hiru urteak NUPen igaro ondoren, duela bi urte Paristik gertu dagoen Noisy Le Grandeko unibertsitateera joatea deliberatu zuen. Eras-musek eskaini zion beka urtebetekoa zen

arren, ikasle iruindarrak baimen berezia eskatu zuen iaz ere Parisen segitu ahal izateko. Frantsesez ikastea, dioenez, ez dela beretzat oztopoa izan: «... 3 ...».

*NUPen ez bezala, masifikaziorik ez da Parisen.* Irakaskuntza metodoa NUPEkoaren aldean oso desberdina dela azaldu du Susana Villanuevak. Bere irudiko, aldaketarik positiboena da Parisen ez dagoela Euskal Herriko unibertsitateetako geletan izan ohi den masifikazioa: «... 4 ...». Hori dela eta, irakasleekiko harremana askoz ere zuzenagoa da: «... 5 ...». Administrazioaren ihardueran ere aldeak nabarmenak dira: «... 6 ...».

Susanak azpimarratu duen beste berezitasun bat da Parisen enpresaren eta unibertsitateen artean dagoen lotura eta harremana: «... 7 ...». Beraz, enpresetako lanak hasiera-hasieratik lotzen dira klaseko ihar-due rarekin; Susanak dioenez, «... 8 ...». Ikasle nafarrak Parisko uhin-labeetako enpresa batean egin zituen praktikak hiru hilabetez. Karrera bukarako proiektuan, aldiz, Susana Villanueva Guyanako Espazio Zentroan aritu zen lanean sei hilabetez, «... 9 ...». Honez gain, kanpoko hizkuntzei (batez ere ingelesari)



Susana Villanuevak Frantzian unibertsitatearen eta enpresaren artean dagoen harreman estua azpimarratu du, baita klaseetan jende gutxiago dagoela ere.

ematen zaien tratamendua azpimarratu du Susanak, bertan asignatura edo mintegi batzuk ingelesez ematen baitzituzten. Orain ez du arazorik hizkuntza horretan iharduteko Susanak. Gaur egun, frantsesez eginiko proiektua gazte-rara itzultzen ari da NUPen aurkezteko. Proiektua aurkeztu ondoren, lan egitera kanpora aterako da, Euskal Herriko mugak txiki geratu baitzaizkio telekomunikazioetako ingeniari honi: «... 10 ...».

Euskaldunon Egunkaria, 1996ko urriaren 16a

Susanaren ondoko adierazpenak aurreko erreportaiatik ezabatu egin dira. Saia zaitetz zenbaki bakoitzeko aipamena aurkitzen. Horretarako azpian duzun koadroa osatu beharko duzu.

- a) «Denetan ez nituen atera, baina, antza denez, besteek nik baino emaitza txarragoak ukan zituzten»
- b) «Errazagoa da ESIE-Eko 700 ikasleak administratzea, NUPEko 10.000ak baino»
- c) «Hasieran kosta egiten da, batez ere apunteak hartzeko orduan, baina gero ohitu egiten zara»
- d) «Parisen 25 eta 50 lagun artean izaten ginen eskoletan»
- e) «Han lehen mailan bertan behartzen dituzte ikasleak udako praktikak egitera. Karrerako azken kurtsoetan, berriz, ikasketen barnean egiten dira enpresetako praktikak»
- f) «Ia hasieratik ezagutzen gaituzte ikasle guztiok»
- g) «Ni ere harritu egin nintzen jendea zorionak ematen hasi zitzaidanean»
- h) «Hemen zaila zait ni-rearekin loturik dagoen lan egokirik aurkitzea»
- i) «Koheteek telemediako zen-traletara radarren bidez bidaltzen dituzten neurriak aztertzen»
- j) «Frantzian ikasketen barruan sartzen dira enpresetan egiten diren praktikak»

## ERANTZUNAK

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

### 3. IDAZLAN LABURRA

**Azpian duzun informazioarekin zer gertatu zen kontatu behar duzu.**

**Idazlan honek 100 hitz inguru izan behar ditu.**

Arazo bat dela medio, gaur zure etxeko lanetan ari den pertsona ez duzu ikusiko. Hori dela eta, **ohar bat** utziko diozu idatzita garbitzaileari. Ohar horretan azpian agertzen dena jarriko diozu:

#### OHARRA

Etxean ez egotearen azalpena:  
(asmatu behar duzu zer gertatu den)

.....

.....

Gainera:  
(azpian dagoen informazioa eman behar diozu, zuk nahi duzun ordenean)

Arropa garbigailuan	Gaur ordaindu behar berari
Garbigailua martxan jarri	Bihar ordainduko
Arropa eseki: — eguraldi ona → kanpoan — euria → barruan	Barkamena eskatu
Lagun bat etorriko	Telefono deiak → errekaduak hartu
Lagunari esan behar diona	
Pakete bat berarentzat, sukaldeko mahai gainean	

## 4. IDAZLAN LUZEA

**Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta 200 hitz inguruko idazlana osatu behar duzu.**

1. Zuen ikastetxeak aurten ere egonaldia antolatu du maiatzaren 23tik 25era Gernikako herrian. Baina, talde batetik ia ikasle bat bera ere ez da joango. Hori dela eta, izena eman ez duten ikasleen gurasoei gutuna idaztea erabaki duzue, ea animatzen diren eta euren seme-alabak bidaltzen dituzten.

Hona hemen gurasoak animatzeko gutunean erabiliko dituzun zenbait datu:

### DATUAK

—Tradizioa: 1991tik aurrera ikasturtero birritan: udazkenean eta udaberrian.


—Antolatzailea: ikastetxeko euskara mintegia.

—Helburu nagusiak:

- Euskara gehiago erabili.
- Euskaraz mintzatzen ohitu.
- Inguru euskaldun batean praktikatu.
- ...

—1995/96 Ikasturteko Emaitzak (nahi baduzu, aipatzeko):

- Euskara irakasgaien emaitza hobeak egonaldiaren ostean.
- Euskararen erabilpenean aldaketak:



## EDO

2. «Kukuarri» izeneko eskolako antzerki-taldea zarete eta antzezlan bat prestatu duzue. Antzezlan hau zuen ikastetxean, zuen herrian eta inguruko herrietan antzeztu ondoren, interesgarria iruditu zaizue beste ikastetxe eta herri batzuetan ematea. Presta ezazu informazio-orri bat. Orri horretan taldearen eta antzezlanaren berri eman behar duzu.

<b>SARRERA</b> Nor zareten Zer egiten duzuen Idazki honen helburua	<b>TALDEAREN EZAUGARRIAK</b> Nola sortu zen Esperientzia Irabaziak zertarako diren
<b>ANTZEZLANA EMATEKO ZER BEHAR DEN</b> Argiak Espazioa Bozgorailuak	<b>DATUAK</b> Zenbat kobratzen duzuen Arrazoiak Zenbat antzezle, musikari etab.
<b>AGURRA</b> Harremanetan jartzeko modua Agurra	

## I.2. DEIALDI IREKIA: HE2ko AZTERKETA

### I.2.1. Lehen proba: aukera anitzeko galderak

#### IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE2  
Eredua: A

LEHEN PROBA: AAG

1997ko ekainaren 7a

1. deitura: .....
2. deitura: .....
- Izena:.....
- NAN zkia.:

#### OHARRAK

1. Zure karneta mahai gainean utzi, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. Atera ezazu suelto dagoen erantzun-orria koaderno honetatik.
3. Konproba ezazu koaderno eta erantzun-orria eredu berekoak direla.
4. Konprobatu azterketa honek 12 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
5. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak erantzun-orrian eta koaderno honetan.
6. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
7. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
8. Gelan ezin da erre.
9. Amaitzen duzunean, ez mugitu aulkitik arduradunek zure azterketa-materialak jaso arte.

## ARRETAZ IRAKURRI

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 asmatu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Koaderno honetan **EZ** markatu erantzunik eta **EZ** idatzi.
- Erantzun okerrengeatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira ekainaren 12rako.
- Gainditzen dutenek ekainaren 20an izango dute HE2ko 2. proba, arratsaldeko 4etan.



1. Jonek Amaiari:

- a) Zein polita zara, enetxoa!
- b) Zein polita zarela, enetxoa!
- c) Zein zarena polita, enetxoa!
- d) Zein polita zaren, enetxoa!

2. *Hiru . . . . . dituzte, eta . . . . . aitaren antza dute.*

- a) seme-alaba / hiruek
- b) seme-alabak / hiruk
- c) seme-alabek / hiruak
- d) seme-alaba / hirurek

3. *Edurnerekin topo egin nuenean, agurtu nuen, baina berak . . . . . egin zuen.*

- a) ez ikustea
- b) ez ikusiarena
- c) ez zuela ikusi
- d) ez ikusitakoa

4. *Aholkuak? Txikitan . . . . . ez nituen aintzat hartu; baina orain jabetzen naiz haien . . . . .*

- a) emanikoetatik / garrantzia.
- b) emandak / garrantziez.
- c) emanak / garrantziaz.
- d) emandakoak /garrantziarena.

5. Ondokoetatik bat pertsona da:

- a) Erraina
- b) Gaztanbera
- c) Erbinudea
- d) Garaua

6. *Jon eta Miren ni Parisen . . . . . ezkondu ziren. Damu dut haien ezkontzan . . . . .*

- a) egoterakoan / egonik eza.
- b) nengoenean / ez egotea.
- c) egondakoan / ez egon izatea.
- d) nengoela / ez egona.

7. *Paul Newman Donostiara . . . . . zurrumurrua zabaldu da.*
- a) etorriko delaren
  - b) etorriko denaren
  - c) etorriko delako
  - d) etorriko delakoaren
8. *Bizkaiko sei . . . . .joan nahi nuke: zu egon zaren bost . . . . . eta Anbotora.*
- a) mendietara / mendira
  - b) menditara / mendietara
  - c) mendietara / menditara
  - d) mendira / mendietara
9. *Olatutzarrek eraman . . . . ., . . . . . egon ginen denok une batez.*
- a) gintuenean / beldurrak jota
  - b) zigutenean / beldurrak
  - c) gaituztenean / beldurraren beldur
  - d) gintuztenean / beldurrak airean
10. *Mutilek arrebei harrikoa egiten . . . . . nahi izaten zuen amak.*
- a) lagun zitzaten
  - b) laguntzeko
  - c) lagun diezaien
  - d) lagun ziezaieten
11. *Ixil hadi, . . . . .!*
- a) hala jainkoa!
  - b) Jainkoarren!
  - c) Jainko nirea!
  - d) ene Jainko!
12. *Partidua hasteko ordua da, baina hemen . . . . .*
- a) jokalaririk ez da ageri.
  - b) jokalaririk ez dira ageri.
  - c) ez dira inongo jokalaririk ageri.
  - d) ez dira jokalaria bat ere ageri.

13. *Hurrengoan gauzak arreta handiagoz . . . . .*
- a) egin ditzazun!
  - b) egin itzazu!
  - c) egin ezazu!
  - d) egin itzazula!
14. *Etxekoia . . . . ., lana bukatu . . . . . etorriko da.*
- a) delarik / bezainbat laster
  - b) izanik / ahala
  - c) denez / bezain laster
  - d) denez / ordurako
15. *Liburuaren laburpena . . . . . esan banizun, egitea zeneukan eta kitto!*
- a) egin zidazun
  - b) egitea
  - c) egin zeniedazula
  - d) egin zeniehadala
16. *Ez txarrean hartu, mutil, . . . . . esaten dizut.*
- a) zuretzat hobeto nahiz
  - b) zure hoberako
  - c) zure onuran
  - d) zure hobe beharrez
17. *. . . . . hartu du jendeak, . . . . . jokatzen du eta.*
- a) lapur bezala / lapur bezala
  - b) lapurtzat / lapurtzat
  - c) lapur bezala / lapurrak bezala
  - d) lapurtzat / lapurrak bezala
18. *. . . . . bizitzea atsegin du horrek.*
- a) Besteen kontuan
  - b) Inoren bizkarretik
  - c) Bestearen lepotik
  - d) Lagun urkoaren izerdiz

19. *Ez . . . . . bat ere kezkatzen jendea . . . . . esaten ari . . . . .*

- a) nau / nitaz / denak.
- b) dit / nitaz / denak.
- c) zait / nigatik / dena.
- d) dit / nigatik / dena.

20. *Mirenek eta Itziarrek . . . . . egin dute lo.*

- a) ohe bakoitzean
- b) ohe bitan
- c) ohe banatan
- d) ohe banan

21. *Ene laztana, mundu honetatik joan . . . . . betiko!.*

- a) zatzait
- b) zatzaizkit
- c) doazkit
- d) zaizkit

22. *Etxea zuk esan didazun . . . . . da.*

- a) araberakoa
- b) bezainbeste
- c) bezalakoxea
- d) bezalaxe

23. *Anderrek guri beti egia esan . . . . . , orain denok sinetsi egingo . . . . .*

- a) balu / genuke.
- b) balitzaigu / genion.
- c) baliguke / geniokeen.
- d) baligu / genioke.

24. *Ez . . . . . irakasleari adarrik jo, haserretu egingo da eta.*

- a) iezaiozue
- b) ezazue
- c) iozue
- d) zakizkiote

25. *Begira nor . . . . . berriro ere; oraingoan ez dirudi pozik . . . . . , ordea.*
- a) datorren / datorrenik
  - b) dator / datorrenik
  - c) dator / datorrela
  - d) datorren / datorrena
26. *Pastelak mahaira atera ahala listuz betetzen zitzaion ahoa. Zein da honen baliokidea?*
- a) Pastelak ahal zituen gehien mahaira ateratzearekin batera listuz betetzen zitzaion ahoa.
  - b) Pastelak mahaira atera ahal zituenean, listuz bete zitzaion ahoa.
  - c) Pastelak mahaira ateratzen ziren heinean listuz betetzen zitzaion ahoa.
  - d) Pastelak mahaira ateratakoan, listuz bete zitzaion ahoa.
27. *Kotxe horretan doan gizon lodikote hori da Durangotik Gasteiza ekarri. . . . .*
- a) gaituenak
  - b) gaituela
  - c) gaituztena
  - d) gaituena
28. *Ea zuria beltz ikustarazi nahi . . . . . galdetu diot.*
- a) didan
  - b) badu
  - c) badit
  - d) badidan
29. *Hau kuxidadea, . . . . .*
- a) onena, hona sartu ez izanda.
  - b) hobe hona ez sartzea izango litzateke.
  - c) hobe genuke hona sartuko ez bagina.
  - d) hobe hona ez baginen sartu.
30. Esaldi hauetatik bat **txarto** dago. Zein?
- a) Zure aulkia zurezkoa da; nirea, aitzitik, ez.
  - b) Zure aulkia zurezkoa da; nirea, ostera, ez.
  - c) Zure aulkia zurezkoa da; nirea, berriz, ez.
  - d) Zure aulkia zurezkoa da; nirea, osterantzean, ez.

31. Esaldi hauetatik bat **txarto** dago. Zein?

- a) Zaharra izanagatik ere, egunero zortzi orduko lana egiten dut.
- b) Nahiz eta zaharra banaiz ere, egunero zortzi orduko lana egiten dut.
- c) Zaharra naizen arren ere, egunero zortzi orduko lana egiten dut.
- d) Zaharra izanik ere, egunero zortzi orduko lana egiten dut.

32. Bat gramatikalki **txarto** dago. Zein da?

- a) Etxeak artean ere zutik zirauen.
- b) Zure emazteak andere fina dirudi.
- c) Zertan dihardu mutiko hori?
- d) Dendatik irten bezain pronto lapurrak jarraiki zitzaizkidan.

33. .... da izaera txarrekoa, .... jende guztiarekin haserretzen baita.

- a) Hala / ezen
- b) Hain / non
- c) Hainbat / ezen
- d) Halakoa / non

34. Minbizia .... joan nintzen ospitalera, eta sekulako .... hartu nuen oker nengoela jakitean.

- a) neukan ideiaz / lasaiketa
- b) izan ustetan / lasaitasuna
- c) neukala pentsamenduan / lasaipena
- d) neukalakoan / lasaitua

35. Atzo ezin .... dirua itzul, baina gaur itzul .....

- a) niezazukeen / diezazuket
- b) niezazuke / diezazuket
- c) zeniezadakeen / niezazukeen
- d) niezazkizukeen / diezadazuke

36. Lehenengo eta behin, .... hartu behar duzue aurrera egitekotan; beraz, emaziozue eskua .....

- a) elkarrekin / elkarri
- b) elkargana / elkar
- c) elkarri / elkarrekin
- d) elkar / elkarri

37. *Eraman agiri hauek idazkariari, zigilua ezar . . . . .*

- a) ditzan
- b) diezaion
- c) diezaien
- d) dezaiela

38. Data bat da zuzena. Zein?

- a) Ondarroan, 1997.ko ekainaren 22an
- b) Ondarroan, 1997ko ekainaren 22an
- c) Ondarroa, 1997ko ekainak 22a
- d) Ondarroa, 1997ko ekainak 22an

39. *Ezkondu . . . . . Parisen izan nintzen.*

- a) berritan
- b) berri
- c) birritan
- d) berririk

40. Ondokoetatik zein ez da txerrikia?

- a) Lukainka
- b) Urdaila
- c) Urdaiazpikoa
- d) Odolkia

41. Zein ez da lanbidea:

- a) Hargina
- b) Harakina
- c) Emagina
- d) Itogina

42. Zein esalditan ageri da ortografia-akatsen bat?

- a) Atso zaharra berriketan hasi eta barreari eutsi ezinik ibili ginen.
- b) Ez du zihur esan lana garaiz bukatuko duenik.
- c) Testuinguru horretaz aparte, sexua etsai bihur daiteke jende gaztearentzat.
- d) Gaiztakeria galanta: haurrari gailetak ebatsi eta hanka egin.

43. Batean **ez** dira sinonimoak. Zeinetan?

- a) Lapurtu/ebatsi
- b) Jauzi/salto
- c) Bitsa/aparra
- d) Garrasia/kirrinka

44. Batean **ez** dira antonimoak. Zeinetan?

- a) Ahalkea / lotsa
- b) Goibela / alaia
- c) Zurruna / malgua
- d) Zuhurra / ergela

45. Bat **ez** da besteen baliokidea. Zein?

- a) Joseba leloa da, beraz, lelokeriak egiten ditu.
- b) Joseba leloa da, hortaz, lelokeriak egiten ditu.
- c) Joseba leloa da, zeren lelokeriak egiten ditu.
- d) Joseba leloa da, orduan lelokeriak egiten ditu.

46. *Asper-asper eginda nago.* Zein da baliokiderik hurbilena?

- a) Lepoko hezurreraino eginda nago.
- b) Gogaituta nago.
- c) Kokoteraino nago.
- d) Aztoratuta nago.

47. *Mailegu bat eskatzeko zer egin behar den ez dakizula? Zehatz-mehatz azalduko dizut, . . . . .*

- a) dena ulertuko duzun artean.
- b) ahalik eta dena ulertu arte.
- c) harik eta dena ulertzen duzun arte.
- d) dena ulertu bitarteraino.

48. Zein esalditan kokatuko zenuke **gainontzean** hitza?

- a) Aitor hizmotela da; . . . . . , nahikoa gorra.
- b) C. M. Gaiteren azken nobela luzeegia dela uste dut; . . . . . , oso ederra.
- c) Gizonen gizarte honetan, . . . . . , emakumezkoek ez dute zer eginik
- d) Gidaliburuak aipatzen duenaz . . . . . , badago zer ikusi asko gure herrian..



49. *Bion artekoa bukatu da, . . . . .*

- a) akabo da ematen zena.
- b) egina dago gurea.
- c) gureak egin du.
- d) gureak ez du ezer eginik.

50. *Teresak, Mirentxu . . . . . ederra bada ere, ez dauka hark . . . . . fintasunik.*

- a) bezainbat / bezain
- b) bezain / adinako
- c) bezalako / besteko
- d) bezain / bezala

51. *Zer dela eta egin zenuen negar?*

- a) Beharko, laguna galdu bainuelako.
- b) Beharko, laguna galduagatik.
- c) Beharko, zeren laguna galdu nuen eta.
- d) Beharko, laguna galdu bainuen.

52. *Dorretxe hori Erdi Arokoa da, bandoen burrukak gertatu . . . . ., alegia.*

- a) zirenena
- b) zirelako
- c) zirenekoa
- d) zirenean

53. *Gau osoan hagineta mina izan dut; . . . . .*

- a) gauaren luzea!
- b) gau luze!
- c) bai gaua luzea!
- d) zein gau luzea izan da!

54. *Lege-arazoetan . . . . . hartu genuen gazte izan arren, eta . . . . . izen-  
datu genuen.*

- a) gizon aditu bezala / lehendakaria
- b) gizon aditu gisa / lehendakari
- c) gizon adituzat / lehendakari bezala
- d) gizon adituzat / lehendakari

55. *Koldok berak irabaziko duela dio. Halakorik sinesten ez duenaren erantzunik egokiena?*
- a) Hara!
  - b) Bai zera!
  - c) Akabo ba!
  - d) Ziur baietz!
56. *Boligrafoz . . . . . ez digute uzten azterketa egiten.*
- a) ezezik
  - b) baina
  - c) baizik
  - d) ez beste
57. *. . . . ., gutxien espero zenean, garaipena eman zion gola sartu zuen Aurre-ra taldeak. Aukeratu egokiena.*
- a) Ezinbestez
  - b) Halabeharrez
  - c) Azkenerakoan
  - d) Bidenabar
58. *Bi urte . . . . . banatuta egon ondoren, udan berriro ere . . . . . bildu ziren.*
- a) inguruan / elkarrekin
  - b) inguru / elkar
  - c) inguru / elkarrengana
  - d) ingurura / elkarri
59. *Astoa saldu eta mandoa erosi. Zein da esaera honen esanahia?*
- a) Tratu baten ondorioz, irabazi ederra egin.
  - b) Bizimodua atera hala edo hola.
  - c) Negozio txarra egin.
  - d) Baten bati ziria sartu.
60. *Bururik ez eta txapela nahi. Zein da esaera honen esanahia?*
- a) Handinahia duen jendeari esaten zaio.
  - b) Ume-mokoa besterik ez eta txapela jantzita ibili nahi.
  - c) Kalifikazioetan bikain atera nahi duenari esaten zaio.
  - d) Txapeldun izan nahi duenari esaten zaio.

61. *Istiluak sortzen ibili besterik ez du egiten horrek. Aukeratu baliokiderik hurbilena.*
- a) Istiluak saihesten ibili besterik ez du egiten horrek.
  - b) Jendea haserrarazten ibili besterik ez du egiten horrek.
  - c) Bazterrak nahasten ibili besterik ez du egiten horrek.
  - d) Ziria sartzen ibili besterik ez du egiten horrek.
62. *Hondartzara joaten da sarri; ....., eguzkia hartu nahi izatekotan hura da tokirik onena.*
- a) alegia
  - b) benetan
  - c) behinik behin
  - d) izan ere
63. *Engainatzen nauzulakoan nago. - .....*
- a) Ez daukat ezertan ere ez zu engainatzen ibili beharrik.
  - b) Ez daukat behar zu engainatzen ibiltzeko ezertan ere.
  - c) Ez daukat zertan ere zu engainatzen ibili beharrik.
  - d) Ez daukat zertan zu engainatzen ibili.
64. *Telebistako pelikula hori ikusita, ..... gelditu dira haurrak.*
- a) su eta gar
  - b) buru-belarri
  - c) zur eta lur
  - d) harri eta lur
65. *Atea ..... atzamarra harrapatu dut.*
- a) itxiaz
  - b) ixtean
  - c) itxitakoan
  - d) ixten
66. *Agustin mozkor-mozkor eginda etxeratu da; .....*
- a) beldur dut berriro zarataka hasiko dela.
  - b) beldur naiz berriro zarataka hasiko al den.
  - c) beldur naiz berriro zarataka hasiko ez ote den.
  - d) beldur dut ea berriro zarataka hasiko den.

67. *Gaur trenez joan zaitetz arropa berria busti ez . . . . .*

- a) diezazun
- b) dakizun
- c) zaizun
- d) zedin

68. *Janaren . . . . . oka egin genuen.*

- a) janik
- b) janagatik
- c) janaz
- d) janda

69. *Osabak bederatzi mila pezeta utzi digu gure artean banatzeko. Hiru garenez gero, . . . . .*

- a) hiruna mila pezeta tokatzen zaigu.
- b) hiru mila pezeta tokatzen zaigu.
- c) bakoitzari hiruna mila pezeta tokatzen zaigu.
- d) bakoitzarentzat hiru milana pezeta tokatzen zaigu.

70. *Bai, Pello herrian dugu . . . . . ; bart . . . . .*

- a) honezkero / etorri zen eta.
- b) jadanik / etorri zen omen diotenez.
- c) dagoeneko / etorri zen eta.
- d) harrezkero / etorri omen zelarik.

## I.2.2. Bigarren proba: idatzia

### IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE2  
Eredua: A

#### BIGARREN PROBA: IDATZIA

1997ko ekainaren 20a

1. deitura: .....  
2. deitura: .....  
Izena: .....  
NAN zkia.:

### OHARRAK

1. Zure karneta mahai gainean utzi, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. Konproba ezazu azterketa honek 12 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
6. Gelan ezin da erre.
7. Amaitzen duzunean, ez mugitu aulkitik arduradunek zure azterketa-materialak jaso arte.

## ARRETAZ IRAKURRI

- Proba honek hiru ariketa ditu: 1) Irakurmena 2) Idazlan laburra 3) Idazlan luzea
- Denbora: **3 ordu.**
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira uztailaren 1ean.
- Gainditzen dutenek **ahozko proba** izango dute, Ordezkaritzan agertuko diren leku, egun eta orduetan (uztailaren 2tik 5era bitartean)

## 1. IRAKURMENA

### Jose Maria Setien, Donostiako gotzaina:

«Elizako arduradunok gertuagotik jarraitu beharko genituzke gaur egun bertoko gizon-emakumeek dituzten arazoak»

Jose Maria Setien Alberro Hernanin jaio zen 1928an. Hamasei urte zituela, Gasteizko Apaizgaitegira joan zen eliz ikasketak egitera. Ondoren, Erromako Unibertsitate Pontifizio Gregorianora joan, eta bertan Teologian lizentziatu eta Zuzenbide Kanonikoan doktoratu zen. 1960—1972 bitartean, Gasteizko Teologi Fakultateko dekanoa izan zen; eta 1979an Donostiako gotzain izendatu zuten. Jose Maria Setien liburu (*Al servicio de la paz en la justicia, La paz es posible, Conflicto cultural y comunidad cristiana...*) eta artikulu askoren egilea da.

**Gizarte modernoak balore batzuk baztertzen ditu eta beste balore batzuk dakartza. Zein balore azpimarratuko zenuke zuk?**

Lehenengo eta behin argi eta garbi eduki behar dugu balore hitzari zer nolako esanahia ematen diogun, bestela hitzak bere zentzua gal baitezake. Nire ustez, balorea ez da gizarteak gehien estimatzen duena. Horrela balitz, gerta lekigu-ke balore esatea diruari, plazerrari, botereari eta izen hori merezi ez duten antzeko beste errealitate batzuei. Balore hitzak, berriz, gizakia gizaki bihurtzen duen horretaz hitz egiten digu eta, horregatik, ordena etikoari dago lotuta. Ikuspegi horretatik, beraz, uste dut pertsonaren balorea bere alderdi pribatuan onartzea eta zaintzea oso positiboa dela, baldin eta erantzukizun sozialari eta elkartasun baloreei ere behar besteko arreta eskaintzen bazaie. Zoritxarrez, badirudi azken bioi gaur egun ez zaiela horrenbesteko garrantzirik ematen.

**Kontsumoaren gizartean bizi gara. Kontsumismoak, indibidualismoak eta abarrek bere txokoa aurkitu dute gurean. Nola helarazi jendeari horren aurkako mezua?**

Galdera honek zer ikusi handia du oraindik orain esandakoarekin. Norbera-

ren nortasuna baieztatzeak inorena ere baieztatzeraz eraman beharko luke automatikoki. Tamalez, hau ez da egiten gure gizartean. Pribatuaren afirmazioak berekoikeria konpartitu batera darama lasai aski. Beraz, zera errepikatu behar dugu behin eta berriro: *zu*-a baliagarria ez bada, ez dago inongo ziorik *ni*-aren baliagarritasuna azpimarratzeko.

*Elizaren kezka eta ardurak*

**Gaur egun kristau asko errazkerian eta erosokerian bizi omen dira. Nola-bait esateko, tren bateko gidariak izan baino nahiago dute bidaia bagoi batean egitea.**

Hori erantzukizunei eta konplikazioei ihes egiteko nahiaren ondorio zuzena izan daiteke, nik uste. Ezbairik gabe, askoz errazagoa da «anonimatu» seguru batean bizitzea; baina bizimodu horren zergatia jakingo badugu, geure gizarteari begiratu behar diogu ezinbestez. Ene iritziz, gaur egun gizartea «egituratuta» dago oso, eta horrek nahikoa toki uzten die norberaren ekimen eta sorkuntzari.

**Nola bizi behar du gaur egun kristautasuna fededunak?**

Orain arte esan dudanarekin bat eginez. Nork bere fedeari eutsi behar dio, eta,

ondorioz, bizitzaren alderdi guztietara eramane behar du fedea.

**Nola ikusten duzu Eliza gaurko gizarte modernoan eta, hain zuzen ere, Euskal Herrian? Zer nolako harremana dago, zure ustez, euskal gizartearen eta Elizaren artean?**

Gizarte libre eta pluralista batean ez dago Elizaren eta gizartearen arteko harreman jakin bati buruz hitz egiterik. Izan ere, gizon-emakumeek eta gizartetaldeek Elizarekin dituzten harreman edo hartu-emanak era askotakoak dira. Horrek oso harreman konplexua sortzen du gizartearekiko, noski. Eta hau guztia gizarte moderno baten ondorio zuzena da. Gure gizarteak ez du onartzen inolako erakunderen kontrol uniformatzailearik. Ezta Elizarena ere.

**Uste al duzu Elizak gehiago hurbildu behar duela gizon-emakumeengana?**

Eliza, besteak beste, bere burua kristautzat jotzen duten gizon-emakumeen multzoa da. Nolabait esateko, Eliza gizarte batean bizi diren gizon-emakume arrunten multzoa ere bada. Erantzun egokia emateko, nik uste, beste modu batean egin beharko genukeela galdera, hots, ea Elizako arduradunok gertuagotik jarraitu beharko genituzkeen gaur egun bertoko gizon-emakumeek dituzten arazoak. Galdera horrela ulertuz gero, erantzuna baiezkoa da. Hurbilketa hori fede kristauaren beraren eskakizuna da. Hitz gutxitan esateko, Elizak hobeto jakin beharra dauka zer gertatzen den bere inguruan, hobeto ezagutu gizartea aldarazten duten kausak. Gizartea etengabeko erronka eta deia da Elizako gizon-emakume ororentzat.

**Egin behar al luke ahalegin berezirik gazte jendearekin, hots, erakargarriago bihurtu?**

Gazteekin hitz egitea, mintzatzea, ez da erraza inorentzat, ez Elizarentzat ezta

haiekin benetako elkarrizketa lortu nahi duen edozein talderentzat ere. Ez da nahikoa gazteak erakartzea eraginkor izan daitezkeen argudioei helduz. Ez da gauza bera gazteak «konkistatzea» eta «Ebanjeliora ekartzea». Elizak azken eginkizun hau dauka eta, noski, zeregin horretan dabil. Dena den, esan dudanez, ez da batere lan erraza.

Bestalde, bestelakorik egin nahiko balu, egun gaituta dauden jardueretara itzuliko litzateke.

**Non jokatu beharko luke aurrerakoiago Elizak?**

Ebanjelioak pertsona osoa izateari buruz duen ikuspuntutik abiatuta, kontuan hartu beharko genituzke gaur egungo kulturak gizon-emakumei dakartzkien alde positiboak eta alde negatiboak. Nire ustez, Elizak arreta bereziagoa eskaini beharko lieke inorekiko elkartasunak duen esanahiari, eta, Jainkoari bizkar emanda biziz, pertsona osoa izan nahiak dakarren etsipena adierazteari.

**Zein dira egun Euskal Herriko Elizak dituen kezkak?**

Geure gizarteak, euskal gizarteak, dituen arazoak datozkit burura. Horrela izango ez balitz, Eliza, gizon eta emakumeen zerbitzuan egon beharrean, beraiengandik urrun legoke. Langabezia, indarkeria, HIESa, gizarte—konpromezurik gabeko indibidualismoa... Horiek guztiek biziki kezkatzen dute Eliza. Horrek ez du esan nahi inondik ere Elizak oso bestelako kezkak ere ez dituenik. Bat bakarra aipatzearen, bokazio falta aipatuko dut. Baina, arazook ikusi, Elizak Ebanjeliotik gizarteari eskaini behar dion zerbitzuaren ikuspuntutik ikusi behar ditugu.

**Nora doa Eliza eta norantz ibili behar du? Nolako izan behar du iris-tear dagoen XXI. mendeko Elizak?**

Beldur diot aurrerantzean Eliza, gizon-emakumeen arazoez baino gehiago,



bere buruaz kezkatzeari. Hori bere misiotik desbideratuko lukeen oker ikaragarria litzateke.

*Bakearen aldeko konpromezu sendoa*

**Euskal Herria gatazka mingarrian murgildurik bizi da. Batzuen ustez Euskal Herriko Elizak oso eginkizun garrantzitsua du bake prozesuan, eta beste batzuen ustez, berriz, alde batera geratu behar du. Zein da eta zein izan behar du, zure ustez, Eliza-ren betebeharrak gatazka honetan?**

Ez dut uste inork pentsatzen duenik Elizak ez duela betebeharrak Euskal Herriaren gatazken irtenbidean. Eta hori horrela balitz, ez genuke halako iritzirik aintzakotzat hartu beharko. Are gehiago, batzuen iritziz Elizak ez du bete beharko lukeen eginkizuna betetzen. Baina hori oso bestelako kontua da, noski.

**Ba al dago bakea lortzerik? Zein da bidea?**

*Adventu* hasieran Euskal Herria bake-tzeari buruz kaleratutako idazkian azaldu nuen zein den nire ustetan bakea lortzeko biderik egokiena. Lehenik eta behin benetan desiratu behar dugu bakea. Ez da gatazka hau iraultza baten

elementu dinamizatzaile bihurtu behar. Aldaezinezko jarrera dogmatikoak alde batera utzi eta negoziazioa ekar leza-keen elkarrizketari heldu behar diogu.

**Komunikabideek, zuri buruz ari direlarik, politikari ematen diote garrantzirik gehiena; gainera, zure hitzak, behin baino gehiagotan, manipulazioaren menpe egon dira. Zein da, zure ustez, Euskal Herrian eta Espainian gizarteak zuri buruz duen iritzia?**

Ikuspuntu adina iritzi daude, nik uste. Nik ez diot inori asmo manipulatzaile-rik egotzi nahi. Niri buruz egin daitezkeen balorazioen ezberdintasunaren arrazoiak ugariak dira. Batzuek erlijioarekin dute zerikusirik, hots, mezu kristaua eta beronek errealitate tenporalarekin duen lotura ulertzeko moduarekin. Beste batzuk, berriz, politikoak dira, arlo honetan nork berak dituen ideien arabekoak. Nire asmo sendo bakarra mezu kristaua ez urratzea, ez apurtzea, besterik ez da. Lortu ala ez oso bestelakoa da, jakina.

*Lutxo Egia*

*Administrazioa Euskaraz* aldizkaritik hartua.

## Galderak

### 1. Gaur egungo gizartea dela eta, zer irizten dio Jose Maria Setienek?

- a) Bere uste apalean gizarte modernoak adorea baino ez duela estimatzen.
- b) Balore hitzari zer nolako esanahia ematen diogun, bere zentzua gal dezakeela.
- c) Dirua, boterea eta plazerra, horiek direla gizarte modernoaren balore bakarrak.
- d) *Zu*-a baliagarria ez eta, inongo dudarik gabe, *ni*-aren baliagarritasuna azpimarratu behar dela.

### 2. Egungo bizimoduak nola eragiten du kristauen jokabidean?

- a) Ezbairik gabe, «anonimatu» seguru batean bizitzeko aukera ukatuz.
- b) Gizontasun handiko fededunen maila igoaraziz.
- c) Norberaren erantzun beharrari ihes egiteko eta erraztasunean bizitzeko nahia bultzatuz.
- d) Fededun guztien inplikazio-maila soziala beste askoren baloreekin partekatuz.

### 3. Euskal gizartea eta Elizaren arteko harremana nolakoa da?

- a) Politikara izan ezik, fedea bizitzaren alderdi guztietara hedatu beharko litzateke.
- b) Eliza eta gizartearen arteko harremanek pluralistak izan beharko lukete.
- c) Elizaren gizartearekiko harremanak gorabeheratsuak eta jakinak dira.
- d) Egungo gizarte modernoan zaila da harreman hori definitzen, pluralista den neurrian joera uniformatzaileak kanpo gelditzen baitira.

### 4. Nolako jarrera eduki beharko luke Elizak gizon-emakumeekiko?

- a) Eliza gizartearen parte den neurrian, beste partaideek dituzten arazoak ezagutu eta jarraitu beharko lituzke.
- b) Gazteekin hitz eginez Ebanjeliora ekartzea litzateke bere eginkizun bakarra.
- c) Gizartea osatzen duten gizon-emakumeen multzoak dituen beharrei muzin egin beharko lieke.
- d) Gizarte libre eta pluralista batean, gauza guztien gainetik gizaki libreak egin beharko lituzke.

### 5. Elizaren jokabidez, zer dio Gipuzkoako gotzainak?

- a) Gizarte moderno honen baloreei muzin egin behar liekeela.
- b) Lehen ohikoak ziren jardueretara itzuli beharko lukeela.
- c) Bere fedeari eutsi beharko liokeela bizitzaren alderdi bakar batzuetara ailegatu ahal izateko.
- d) Gizarte honetan, beti ere fedearen ikuspuntutik, pertsona osoa izateak berekin dituen baloreei kontu egin behar liekeela.

**6. Oraingo arazoak direla eta, nola ikusten du gure protagonistak egoera?**

- a) Gure gizartearen arazo guztiak buruan pilatu eta bueltaka omen dabilzkie.
- b) HIESa, gizarte-konpromezurik gabeko indibidualismoa, indarkeria, ... omen dira Elizaren ardura behinena.
- c) Oker ikaragarria omen litzateke bokazio faltaren erruagatik Elizak gizartearen arazoak bere gain hartzea.
- d) Horiek aintzakotzat hartu beharko omen lituzke, baina beti ere Ebanjelioaren ikuspuntutik.

**7. Nola ikusten du Elizaren etorkizuna?**

- a) Bokazio faltak direla eta, ebanjelizazio aurrerakoiago bat egin beharko litzateke.
- b) Gizon-emakumeek osatzen duten Elizaren egiturari beldur handia dio.
- c) Eliza bere buruaz kezkatze hutsean geldituko balitz, hanka sartze ikaragarria litzateke.
- d) Pobreziaren kultura honetan sakondu beharko luke arazo hau konpontzeko.

**8. Zer irizten dio egungo Euskal Herriko egoerari?**

- a) Elizak ez duela betebeharririk Euskal Herriaren gatazkaren irtenbidean.
- b) Komunikabideen arabera Elizak ez duela betetzen bete beharko lukeen eginkizuna.
- c) Negoziazioa ekar lezakeen elkarrizketari uko egin beharko diola Elizak.
- d) Aldaezinezko jarrera dogmatikoak alde batera utzita, konponbidea desiratu behar dugula.

**9. Iritzien aurrean, zer dio Setienek?**

- a) Ikuspuntuak eta adinak badutela zerikusirik iritzia emateko orduan.
- b) Jarrera dogmatikoek bultzaturiko iritzia bakea lortzeko biderik egokienetarikoa izan daitezkeela.
- c) Aburuak aburu, asmo manipulazionala ikusten diela bateko zein beste iritziei.
- d) Iritzien ezberdintasunak ezberdintasun, mezu kristauari jarraitzea baino ez duela helburu.

**10. Hauetako zeinek laburbilduko luke Jose Maria Setienen ustea?**

- a) Elizaren eginkizun nagusia gizartean ditugun arazoei aurre egitea da, bere kristau helburuak ahaztu gabe.
- b) Kristau helburuei jarraituz Ebanjelioarekin zerikusi zuzena duten arazoak aztertzea da.
- c) Mota askotako iritzia badira ere, politikarekin zuzenki lotuta daudenak izan ezik, beste guztiak kontuan hartu behar ditu Elizak.
- d) Euskal Herria baketzeari buruz, gatazka soziala iraultzaren elementu dinamizatzaile ezin hobea dela onartzen du.

## 2. IDAZLAN LABURRA

Ikasturtearen bukaeran egonda, laster ospatuko duzue ikastetxeko jaia. Irakasle batek, jubilazioa dela medio utzi egingo zaituzte betiko. Hori dela eta, ospakizun horretan irakurriko den **200 hitz inguruko idazkia** prestatu beharko duzu **betiko alde egingo duen horren omenez**.

Hona hemen aipa daitezkeen hainbat puntu:

- Deskribaketa: fisikoa, izakera...
- Harremanak.
- Egindako lana.
- Bere ekarpenaren balorazioa.
- Oroitzapenak.
- Eskerrak eman.
- ...

### 3. IDAZLAN LUZEA

**Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta 350 hitz inguruko idazlana osatu behar duzu.**

1. «Alderdi Eder» ikastetxeko irakaslea zara. Matrikulazio kanpaina dela eta, Eskola Kontseiluan konturatu zarete aurten arazoak egon daitezkeela eskaintzen den «D» ereduko gela bakarra betetzeko.

Arazo honi aurre egiteko 350 hitz inguruko **iritzi artikulua** idatzi beharko duzu herriko aldizkarian gurasoei zuzendua, hauek **matrikulazioa zuen ikastetxean egin dezaten**. Horretaz konbentzitzeko hainbat **arrazoi eta argudio** eman beharko dituzu.

Hona hemen hainbat puntu lagungarri:

- Ikastetxearen historia.
- Ikastetxearen proiektu aurrerakoa.
- Gurasoen parte hartzea.
- Ikastetxearen etorkizuna.
- ...

EDO

2. Hona hemen guraso eta irakasleen hainbat iritzi. Horiek eta zure beste aburu batzuk erabilita, egin ezazu 350 hitz inguruko **iritzi artikulua aburu ezberdinek kontrajarriz**.

Gurasoak	Irakasleak
—Irakasleak primeran bizi dira.	—Oso nekosoa da neska-mutilekin lan egitea.
—4 hilabeteko oporraldia daukate.	—Oporraldi luzeagoa beharko genuke.
—Ez dira batere arduratzen gure seme-alaben kezkez.	—Gurasoak ez dira batere arduratzen beren seme-alabez.
—Eskolak (klaseak) ez dituzte prestatzen.	—Eskolak (klaseak) ondo prestatzen ditugu, baina ikasleak ez daude motibatuta.
—...	—...
—...	—...
—...	—...
—...	—...



## **II. 1997ko LEHEN DEIALDI ITXIA**





## II.1. LEHEN DEIALDI ITXIA: HE1eko AZTERKETA

### IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE1  
Eredua: A

IDATZIZKO PROBA

1997ko urtarrilaren 21a

NAN zkia:.....

Euskaltegia: .....

Taldea:.....

### OHARRAK

1. Zure karneta mahai gainean utzi, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. Konproba ezazu azterketa honek 11 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
6. Gelan ezin da erre.
7. Azterketa-material guztiak entregatu behar dituzu amaieran.

# AHOZKOAREN ULERMENA: TRANSKRIBAKETA

Ariketa honetarako *ahoz* egindako elkarrizketa bat erabili zen. Jarraian grabazioaren transkribaketa ematen da

## Jexux Artola intsumisoarekin elkarrizketa

### 1. ZATIA

- Jexux Artola, hogeita hamalau urte, azkoitiarra, eta apaiza, apaiz frantziskotarra. Hiztegiara jo eta, hauxe aurkitu dut: «Intsumisioa. Soldadutza edota haren ordezeko zerbitzu soziala egitera derrigortuta egonik, hara joateari uko egiten dion pertsonaren egoera».** Zer dela-eta egin zinen intsumiso bere garaian, eta noizko kontua da hori? Bueno, intsumiso, berez, hori,...hiztegiko adierazpen horri erantzunez, egin nintzen hogeita...barkatu, laurogeita bederatzian, soldadutzarako deia egin zidaten, luzatu zidaten eta uko egin nion; baina ni hasi nintzen kontu guzti hauetan hamasei urte nituenean, orduan, ba, ezagutu nuen Kontzientzia Eragozleen Mugimendua, kontzientzia eragozle izatea zer zen eta abar, eta bueno, ba, ejertzitoari aurre egiten hasi nintzen hamasei urtez.
- Bai, eta ordutik, justiziarekin batez ere, justiziarekin edo eragozle izatea erabaki zenuenetik, zer-nolako arazoak izan dituzu?** Arazoa izan dut, oraintxe bertan, ba... joan den hilabetean epaitu ninduten, eta bueno, hasieran nire sumarioa militarrek ekin zioten nire inguruko informazioa biltzeari eta sumarioa betetzeari militarrek ekin zioten. Orduan izan nuen arazo bakarra izan zen, ba, behartu nahi ninduten hilero Guardia Zibilaren koartelera azaltzera, eta... nik esan nien inondik inola ez nengoela prest horretarako; eta orduan, hori...ba, beraiek bazekitela non bizi nintzen eta agertu nahi bazuten, han aurkituko nindutela.
- Ederki.** Bitan agertu ziren.
- Bai, bai. Eta esan duzun bezala, ba, oraindik orain izan dituzula arazoak, hilabete inguru izango da, egunkarietan eta irrati-telebistetan ikusi eta irakurri genuela *Ehun kilometro intsumiso* goiburu edo lemarekin egin zenuten bi-hiru egunetako ibilaldia, Arantzazutik Bilbora, Bilboko Entzutegira, epaitegira oker ez banago. Nola joan zen ibilaldi hori, eta nola egin zenuten?** Ba, egia esan behar bada azken momentuan prestatutako gauza izan genuen. Oso ondo atera zitzaigun pentsatutako guztia. Eta, hori... batetik, laguntza handia izan genuen hainbat jenderen aldetik, ba, geurekin ibilaldi guztia egin zutenak izan ziren bai oinez eta bai, gero, txirrindulaz; eta baita ere, prentsaren aldetik eta abar, oihartzun handia. Guk ez genuen espero halako oihartzunik izango genuenik, baina, hor esan behar komunikabideak oso ondo portatu zirela gurekin. Beharbada, hori, frantziskotar edo apaiz batek, ba, intsumiso izate horrek badu oraindik halako morbo edo erakargarritasun bat ezta?

## 2. ZATIA

—**Eta, helburuak zein izan zenituzten edo zenituen...**

—Gure...

—**...ibilaldi horretan?**

—... ibilaldi horren helburua izan zen, gehienbat, gure artean ematen den, bate-tik, ejertzitoaren presentzia, eta bestetik, gure herrietan egiten den armagintza salatu. Bi helburu horiek genituen. Horregatik, ibilaldian zehar saiatu ginen bai arma-fabriketatik eta bai ejertzitoak presentzia duen lekuetatik, hau da, Mungiako Koartela eta Bilbon Gobernu Militarretik pasatu eta bertan salatu presentzia hori. Horiek izan ziren guk landu genituen bi helburuak.

—**Eta hala, jai-giroan gainera uste dut, kalejira txistu eta tanbolin eta guzti, zeure lagun talde horrekin, anaiak, zeure anaia propioak ere bai (eta ez gutxi gainera, zazpi), pankarta eskuan zutela heldu zineten epaitegira. Eta, epaiketa egin ere bai. Nola joan zen epaiketa?**

—Ba, epaiketa joan zen, nire gustoz, behintzat, oso ondo. Esan nahi dut, ba, beldur ginen epaileak ez ote zigun nahi genuena adierazten utziko, moztu egingo ote zuen gure esana, jarduna, eta eragozpen bakarra izan zen ez zuela inongo lekukorik onartu. Bi lekuko pentsatuak genituen epaiketarako: bata, neure anaia intsumisioa, kartzelan egona jadanik, eta bestea, fraile bat gure heziketa zertan oinarritu den eta abar adierazteko. Horixe izan zen eragozpen bakarra. Baina, epaiketan bertan nik neuk prestatua eta pentsatua neukan guztia adierazteko askatasun guztia izan nuen, eta, bueno, alde horretatik esan behar oso gustora atera nintzela ni epaiketatik.

—**Hurrengo egunetan ikusi genuen berria -eta harritzekoa neurri batean- izan zen kondena handiagotzea eskatzen zenuela. Nola ulertzen da hori?**

Bueno, hor esan behar da... fiskalak, ba... azkenean denok harrituta utzi genituen (gintuen), ba, egin zuen halako adierazpen luze bat, berari tokatzen ez zitzaiona, baina... eta adierazpen horretan agertzen zen gaur egun dagoen legediaren aurka, intsumisioa epaitzen duen inhabilitazioz eta holako multaz eta abar, ba, epaitzen duen legedi horren aurka. Berak ondo ikusten zuen, aurretik jadanik abokatuak adierazia zuen heriotza zibil bat dakarrela eta abar guzti horrekin ados zegoela esaten zuen. Baina, jardun horren ondoren, ba, eskatzen zuen niretzako urtebeteko zigorra. Orduan esaten nion, nik adierazi niona izan zen, mesedez bere ustez ez bazen delitu intsumisio izatea absolutzioa eska zezala, eta benetan delitutzat jotzen badu ez dedila ibili halako zurikerietan. Bate-tik, aipatu legea txarra iruditzen zaiola, guztiz kontra dagoela bera ere eta abar, eta urtebeteko kondena eskatu. Nik adierazi niona izan zen, delitua bada, nik delitu hori gau eta egun eta jakinaren gainean, propaganda eginez, beste hainbat jende bultzatuz delitu horretara eta abar ibili naiz. Orduan, hor bada-goela nahikoa grabetate benetan delitua baldin bada, zigor handiagoa eskatze-ko, eta zurikeriak baztertzeko. Horixe zen nik adierazi nahi niona.

—**Ederki. Eta zertan da orduan orain zure egoera?** Ba, nire momentuko egoera da sententziaren zai nagoela. Jadanik badira hilabete eta erdi epaiketa izan zela, baina oraindik ez dut sententziarik jaso, eta hortxe nago... itxaroten aber noiz helduko zaidan sententzia hori.

# 1. AHOZKOAREN ULERMENA

Ondoren, intsumiso bati egindako elkarrizketa entzungo duzu. Bi zatitan banatua dago eta zati bakoitzean bost baieztapen ematen dira. Zuk, alboan dituzun laukietan baieztapen horiek egiten diren ala ez «X» batez adierazi.

Zati bakoitza bi aldiz entzungo duzu, eta esaldiak irakurri eta erantzuteko ere denbora izango duzu.

## Lehenengo zatia

1. Jexux Artolak intsumiso-kontzientzia 1989. urtean hartu zuen.
2. Jexuxek esan zien militarrei ez zela goardia zibilen koartelera joango, eta bazekitela non bizi zen.
3. Gero, goardia zibilaren koartelera bitan joan behar izan zuen.
4. *Ehun kilometro intsumiso* ibilaldia denbora laburrean prestatu zuten.
5. Komunikabideen jokabidearen arrazoia, baliteke Jexux apaiza delako izatea.

BAI      EZ


## Bigarren zatia

6. Ibilaldiaren helburu nagusia gure herrian dugun ejertzitoaren presentzia salatzeabesterik ez zen izan.
7. Lekuko edo testiguetako bat, frailea bera ere, kartzelan egon zen.
8. Jexuxek eta bere lekukoek pentsatutako guztia adierazi zuten epaiketan.
9. Fiskalak inhabilitazio-legearen aurkako adierazpenak egin zituen.
10. Epailleak, Jexuxen jarrerak nahikoa delitu erakusten zuelako, urtebeteko kondena eman zion.

BAI      EZ


## 2. IRAKURMENA

**Hutsune bakoitzean ezabatu den esaldia aurkitu hurrengo orrialdeko zerrendan.**



### Galtxagorriak

*Galtxagorriak jeinu txiki batzuk dira, orratz-ontzietan launaka bizi direnak. Aparteko indar eta ahalmenak izaten dituzte, beti beren jabearen zerbitzurako. Euskal Herriko beste zenbait lekutan familiarrak edota mamarroak deitzen diete.*

*Galtxagorriak lortzeko modu desberdinak omen zeuden. Zarautzen, esaterako, uste zuten Baionako denda batean eros zitezkeela. Hala dio behintzat Barandiaranek. Itzain zarautzar batek behin apostu bat egin omen zuen, alegia, bere idiek inork baino urrutirago eramango zutela harria. Eta ikusi zuenean indarrrik gabe ari zirela gelditzen, orratz-ontzia jarri omen zuen uzta-rrian, apostua irabaziz horrela.*

Garai batean, oso gizon behartsu bat bizi zen Zarautzen. Erabat zorigaiztokoa zen; ekiten zionari ekiten ziola, dena gaizki ateratzen zitzaion. Tomateak landatzen bazituen, euria egin eta usteldu egiten ziren, behi eder bat erosten bazuen, (... 1 ...); ezkontzera zihoanean, andregaiak ez bat eta ez bi, utzi egin zuen beste mutil batekin ezkontzeko... eta horrela beti.

Etsita, bere zortea hobetzeko zer egin ez zekiela, herriz kanpoko txabola batean bizi zen atso batengana joan zen. Jendeak zioenez, sorgina edo

antzeko zerbait omen zen eta ahalmen ezkutuak omen zituen. (... 2 ...), eta atso zaharrak Baionara joateko aholkatu zion, hango denda berezi batean orratz-ontzi bat lau galtxagorriekin erosteko eta bizia erabat aldatuko zitzaiola.

(... 3 ...), Baionara iritsitakoan, dendaren bila hasi zen. Aurkitu zuenean, orratz-ontzi miragarri haietako bat erosi zuen ontzaerdi batean. Saltzai-leak honako aholku hau eman zion: (... 4 ...), bestela galtxagorriak jasanezinak bihurtzen zirela eta.

(... 5 ...) eta bere «familiarren» ahalmenak frogatzen hasi zen. Lehenik, soroa ereiteko agindu zien eta hala egin zuten. Pello konturatu baino lehen lana bukatu eta beste zeregin bat eskaka ari zitzaizkion.

—Zer egitea nahi duzu?

Eta zuhaitzak inausteko agindu zien. Berehala itzuli ziren.

—Zer egitea nahi duzu?

Pelloc beste lanak agindu zizkien: teilatua eta hormak konpondu, putzu bat ireki, egurra txikitu, ganadua bildu, garia eho, behiak jetzi, gaztak egin...

Eguna bukatu baino lehen, (... 6 ...).

—Zer egitea nahi duzu? Zer egitea nahi duzu?— (... 7 ...).

Baina Pelloc ez zekien zer agindu, mila gauza pentsatu, baina ez zitzaion ezer bururutzen. Orduan, lau galtxagorriak atzekoz aurrera hasi ziren lanean; (... 8 ...); adarrak berriro zuhaitzetan jarri zituzten, teilatuetako teilak kendu, putzua itxi, egurra enborretan bildu, ganadua sakabanatu...

Gizonak, etsita, ez zekien nola geldiarazi eta deitu egin zien:

—E! Orain ekar ezazue ura ontzi honetan!

(... 9 ...). Galtxagorriak saiatu ziren esana betetzen, baina ura zuloetatik joaten zitzairen eta ahalegin ugari egin ondoren, honela esan zioten Pellori.

—Guk ezin bete dugun zerbait agindu diguzu, eta horregatik alde egingo dugu eta ez gaituzo gehiago ikusiko.

(... 10 ...). Gizonak bere zorte txarrarekin jarraitzea hobe zela pentsatu zuen, bizi osoan aginduak ematen aritzea baino.

**EUSKAL LEIENDAK, Gipuzkoa. EREIN, 1986**

Azpian dituzun esaldiak «Galtxagorriak» ipuinetik ezabatu dira. Ipuina irakurri ahala saia zaitez esaldi bakoitza dagokion zenbakiarekin lotzen, horretarako azpian duzun soluzio-koadroa osatu beharko duzu.

## ESALDIAK

- a) Pellok bideari ekin zion eta
- b) gaisotu eta hil egiten zitzaion
- c) zioten behin eta berriro
- d) gure gizona Zarautzera itzuli
- e) eta irina garbitzeko bahe bat eman zien
- f) eta hori esanez, desagertu egin ziren
- g) jeinuek baserriko lan guztiak eginak zeuzkaten
- h) Pellok, gure gizonak, bere ezbehar guztiak kontatu zizkion bada
- i) jeinuak beti lanean edukitzeko
- j) ereindako hazi guztiak atera zituzten

Erantzun zuzenei dagozkien letrak koadro honetan idatzi:

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

### 3. IDAZLAN LABURRA

**Azpian duzun informazioarekin zer gertatu zen kontatu behar duzu.**

**Idazlan honek 100 berba inguru izan behar ditu.**

— Azaroaren 2a:

ENPRESARI BATEN BAHIKETA BITXIA. J.J. Romerok, 31 urteko Calatayudeko enpresariak, ustezko Bahiketa bat bizi izan zuen atzo. Goizeko hiruretan putetxe baten ondoko gasolindegi batean harrapatu, bere kotxean sartu eta Andoainera (Gipuzkoa) eraman zuten. Han kotxetik ihes egitea lortu zuen.

Euskaldunon Egunkaria

— Azaroaren 3a:



J.J. Romero

«Ez irten kotxetik, bestela labana sartuko dizugu» esan zidaten, eta nire familia ere mehatxatu egin zuten.

Gaizkile arrunten gauza izan da. Ez du ematen ETaren ekintza.



Ertzaintza burua

— Azaroaren 4a:




Calatayudeko polizia burua

Dena gezurra izan da. Ez da bahiketa bat izan. 800.000 pezeta putetxeetan gastatu eta familiari esan nahi ez. Hori izan da dela.

## 4. IDAZLAN LUZEA

**Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta 200 hitz inguruko idazlana osatu behar duzu.**

Irakaslea zara. Hamabostaldi honetako klaseak herriaren eta bere antolaketa eta ezaugarrien inguruan emateko asmoa duzu. Zure ikasleei, adibide gisa, testu idatzi bat ematea pentsatu duzu, zeure herria zelakoa zen, orain zelakoa den eta ze aldaketa izan dituen azalduz.



Testu horretan datu hauek ipini ahal dituzu:

- Nolakoa zen lehen zure herria (aukeratzen duzuna)
- Nolakoa den orain
- Aldaketaren zergatiak
- Lehen egin zitezkeenak eta orain ezin direnak egin
- ...

### EDO

Atzoko klase-saioan zeure ikasleek noiz hasi zinen ikasten, non, zergatik, eta bar galdetu zizuten. Hori dela eta, pentsatu duzu egoera hau egokia izan daitekeela ikasketei buruz hitz egiteko eta beraiek horretaz hausnarketa bat egin dezaten. Horretarako, bururatu zaizu testu bat idatzi eta klasean aurkeztea, beraiek horretaz galderak egiteko. Testu horretan datu hauek ipini ahal dituzu:

- Zer ikasi duzun.
- Zergatik aukeratu zenituen ikasketa horiek.
- Noiz hasi zinen ikasten.
- Unibertsitatean emandako denbora: ze ikasketa, unibertsitatea zer iruditu zitzaizun...
- Irakaskuntzan egindako ibilbidea: noiz hasi, non, emandako denbora eta izandako esperientziak, lan egoera, ...
- Egungo egoera eta aurreikuspenak.
- ...





## II.2. LEHEN DEIALDI ITXIA: HE2ko AZTERKETA

### IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

**HE2**  
**Eredua: A**

IDATZIZKO PROBA  
1997ko urtarrilaren 22a

NAN zkia:.....  
Euskaltea: .....  
Taldea:.....

### OHARRAK

1. Zure karneta mahai gainean utzi, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. Konproba ezazu azterketa honek 11 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
6. Gelan ezin da erre.
7. Azterketa-material guztiak entregatu behar dituzu amaieran.

# 1. IRAKURMENA

Hona hemen Rufino Iraolaren artikulua bat. Artikulu honetan zehar **10 esaldi** (bi punturen artekoak) tartekatu ditugu. Beraz, **soberan daude**. Saia zaitez soberan dauden esaldi horiek aurkitzen. Erantzuna emateko idatz itzazu esaldi bakoitzaren lehenengo bizpahiru hitzak bukaeran ageri diren lerroetan.

## Zorionaren zutoinak

Aristoteles buru dela, filosofo zaharregandik datorkigu agindua: bizitzaren gorengo ideiala zoriona da. Baina Aristotelesekin, oker-usterik izan ez zedin edo, matizatu egin zuen gero. Bertutean sustraitu behar du zorionak. Horregatik ezin dugu katea hori osatu: egoera gardena, ondorio guztiak alde aurretik jakinak. Bertutea, berriz, hankartean ez, baina erdian dago, ideia moderatuetan. Deskartes-ek oso aintzakotzat hartu zuen agindu hori, amorratuta ibili zen, muturrak utzirik, erdiko bidearen bila. Baita arrazoi sendoak eman ere gure frantses razionalistak: ekibokatzen banaiz, muturretan ibilita baino txikiagoa izango da beti nire okerra. Hainbeste informazio eskatzen duen informazioa ez da, inola ere, ekonomikoa. Eta adinarekin denok horixe egiten dugu: erdi parean ibiltzen hasi, hortxe nahi genuke aurkitu zoriona. Aurkitu baino areago landu egin behar da, ordea; geuk sortzen ez badugu, ez dago zorionik. Ez dezagula gure zorion-etorkizuna inoren eskuetan utzi, bestela beti *etorkizun* izango gara.

Gezurra badirudi ere, sakrifizio eta sufrimendutzat jotzen diren bizimolde batzuk zorion-iturri handiak baino ez dira. Helburua bera da beti: zapalduta dagoen identitate nazional, etniko edo kulturala berreskuratzea. Haurrari bularra ematera jaiki behar duen amaren sakrifizioa hutsa da haur horren irribarreak, titia hartu ondoren, sortzen dion zorionarekin alderatuta. Orain dela gutxi klausurako komentuan izan nintzen, liburu bat enkoaderna ziezadaten. Errezibitzera atera zitzaidan mojari, hizpideak hartaratuta, hauxe galde egin nion: «Zorionsu al zara?». «Giza jardueraren eraginez ari al da handitzen atmosferako karbono-oxidoaren proportzioa?». «Oso zorionsu» -erantzun zidan hark. Eta nik berriro: «Horrenbeste urte hemen barruan, sakrifikatzen, kanpora atera gabe...zerua irabazteagatik eta zerurik ez badago?». «*Pues, chico* -erantzun zidan nafar azentu nabarmenarekin- *no pierdo nada, porque habré vivido en la mayor felicidad del mundo*».

Bigarren milenioaren amaierarantz goaz abiadan. Gaur ere gizonak zorionsu izan nahi du, orain mila edo bi mila urte bezalaxe, baina ez daki nola. XXI.eko gizonak, hots, guk izango dugu galtzak bete lan zorionsu izaten. Denbora izango dugu, hori bai. Hurrengo mendea aisiaren mendea izango da. Zer egin, ordea, denbora librearekin? Nola organizatu? Nola bete orduak? Jan eta edanean, plazer soilean, hedonismo hutsean? Ala kulturak izango du tokia gure aisialdian?. Kulturak alderatzean, kultura bakoitza homogeen bezala hartzeko joera dago gaur egun. Gure barrena materialismo hutsez betetzen hasten bagara, honek segituan hartuko du hondorik gabeko otarrearen antza. Kanpotik bota ahala guztiak ihes egingo dio, eta beti hutsik aurkituko gara, zorionik gabe, zirriztu guztiak angus-

tiaz beterik. Otarrearen barrenean bertan sortu behar da zerbait, gure kontzienziari kultura eta balore positiboetatik eman beharko diogu jaten, zumitz egokiz barrendik bertatik ipurdia josi otarreari.

Garai txarrak datoz, bestalde, inorengandik zerbait errezibituz, dela maitasuna, afektua, begirunea, zure arrakastarengatik txaloak..., zoriona moldatu nahi duenarentzat. Zoriontsu izango bagara, besteei geuk zerbait eskainiz zoriontsu izaten ikasi beharko dugu. Gure ustez bagenituen formula magikoak, toki eta egoera guztietarako berberak. Gure arrakastarengatik inor poztuko ez den garaiak datoz, eta gure erorialdiei indiferentziaz begiratuko dieten begiak jaioko dira hemendik aurrera. Hurrengo mendetik aurrera zoriontsu izan nahi baduzu, zeure exituak gorde ixilean, ez sufritu zoriontzen ez zaituztelako eta zaude prest, zure zorionagatik, besteren arrakastak txalotzeko. Lortu ezazu horrela zoriontsu izatea, bestela jai daukazu. Zure zoriona ez ezazu oinarritu munduarengandik jaso dezakezunean, baizik eta munduari zeuk eman diezaiokezunean. Nik, behintzat, argi daukat: sariak irabazi eta zoriontzen nautelako baino beste batzuek sariak irabazten dituztenean, haiei zorionak emanaz gehiago poztuko naiz. Zenbait gizaki ez da honetaz konturatzen: ez datozela bat berea eta logika nagusia, eta horrek kalte egiten diola heziketan eta lanean. Era berean, ikasi beharko dut elkarrizketa egin eta egunkarian ateratzen naizenean poztu ordez neuk beste bati elkarrizketa egin eta hura ateratzen dudanean pozten. Bestela depresiorik ez dugu gehiago kenduko gure gainetik.

Bi mila eta batgarren urteko gizon eta adiskide hori, ikas ezazu etxean eta barkardadean gozaten, hildako zure lagunarekin mintzatzen, idazle zahar haiekin alegia. Izan zaitez plurikulturala, irakur itzazu Lazkao Txikiren bertsoak, goza itzazu, baina ez zaitez ahaztu Voltaire-ren *Kandido*-z. Pangols filosofoari ez iezaiozu kasu handirik egin gauza batzuetan, sufrimendu gehiegi banatzen baitu, baina beste batzuetan bai, izan ere mundu posible guztietan onenean bizi zara. Hau ez du ulertzen jendeak. Askatasuna nahi du, autosufizientzia, arbitrariedadea, subjektibotasuna eta menpekotasuna. Uste du mundu hau beste era batekoa izan zitekeela. Ez da egia: mundu hau horrelakoa bakarrik izan daiteke, bestela ez zen izan ere egingo.

Eldoradorik ez dago, konforma gaitezen baratza txiki bat etxe aurrean izatearekin, baina baratza geuk landua baldin bada, munduko beste paradisu guztiek baino gehiago balio du. Oteizarena mila aldiz errepikatu eta, hala ere, ez naiz aspertzen: ez erreparatu azken produktuari, begira prozesuari; azken hori denena da, kritikak jasoko ditu, seguru asko gehienak oso interesatuak eta txarrak. Prozesua da bakarrik zurea: Ordenadorearen aurrean pentsatzen eman dituzun orduetan gozatu duzuna ez dizu inork kenduko, klausurako mojarrena parafraseatuz, bost axola azken produktuak zipitzik balio ez badu ere, sortzen pasa ditudan ordu gozoak ez dizkit inork kenduko. Korronte garrantzitsuenek distantzia luzeetan zehar oso ur kopuru handiak eramaten dituzte.

Ohitu zaitez jainkoetara, zure inguru guztia jainkoz beteta egongo da eta. Haien hitza estimatzen ikas ezazu, ohitu zaitez zureak ez duela deus balio onartzen, goza ezazu haienarekin. Eztabaida sutsu baten ondoren, zazpi puntuko Kar-

ta bat ari dira egiten, balio ofiziala izango duena. Horra nik zoriontsu izateko bidea eskaini. Ohitu zaitetz diferente pentsatzearen baztertzen zaituztelako ez sufritzen; goraipa ezazu zeure burua, presiopean amore eman ez duzulako. Pentsa ezazu norbait bazarela, baina zeure buruari bakarrik esan. Beste batzuek, euren artean ez haserretzearen, zu izendatu zaituzte etsai amankomun, baina ez zaitetz kexa, ikas ezazu gizonaren miseriak horrelakoak direla, eta izan zaitetz hemen fariseoa eta egiozu otoitz Jainkoari, besteak ez bezalakoak zarelako eskerrak emanetz, eta harrotu zaitetz besteei ere zerbaitetarako serbitzen diezulako. Ikas ezazu gauza txikiekin gozaten, handietarako, seguru asko, ez zara jaio eta. Ez dio inporta bonolotoa tokatzen ez bazaizu; hobe, gainera; horrela ez dizu ezerk ostuko egunero barruan gordetzen duzun ilusioa.

Rufino Iraola (idazlea)

— .....

— .....

— .....

— .....

— .....

— .....


— .....

— .....

— .....

— .....


## 2. IDAZLAN LABURRA




Hona hemen **birziklapenaren** prozesua azaltzen duen eskema. Bertan agertzen diren urratsak kontuan hartuz, egin ezazu **prozesu** horri dagokion idazlana. **Gogora ezazu 200 hitz inguruko idazlana egin behar duzula.**

### 3. IDAZLAN LUZEA

Hona hemen idazlan luzerako gaiak. **Ideia-mapan** ageri diren atal nagusiak garatu behar dituzu, bertako azpipuntu batzuk erabiliz. Gai bat aukeratu. Hori garatzeko nahi duzun ordena erabil dezakezu, baina behar bezalako **koherentzia** erabiliz, eta **gaiari ihes egin gabe**. Zure idazlanak **350 hitz inguru** izan beharko ditu.



### EDO



### **III. 1997ko BIGARREN DEIALDI ITXIA**





Bigarren deialdi itxiko azterketak deialdi irekiarekin batera egin ziren eta, ondorioz, azterketa bera izan zen bai idatzian bai ahozkoan (ikus idatzizko azterketak liburu honen I.1.2 eta I.2.2 ataletan).



## **IV. AHOZKO AZTERKETAK**



## IV.1. AHOZKO AZTERKETAK: HE1

HE1eko ahozko azterketak bi zati ditu:

**Albiste laburrak:** orri batean ematen zaizkion bi albiste laburren artean bat aukeratu eta prestatu beharko du azterketariak 20 bat minutuan, gero aztertzaileen aurrean azaltzeko bospasei minututan.

**Elkarrizketa:** albiste laburraren azalpenaren ondotik, aztertzaileek gai bat proposatuko diote (hitzez, argazkien bidez etab.) eta horren inguruan hitz egingo dute azterketariak eta aztertzaileek beste bospasei minututan.

### ALBISTE LABURRAK

OHARRA: bi albiste labur eskaintzen dizkizugu, bakoitza bere gai bereziarekin. Nahi duzuna aukera dezakezu zure azalpenerako. Garatu zuk aukeratutako gaia. Lehendik duzun esperientzia, ezaguera eta iritzia erabil dezakezu horretarako.

1.

#### **Droga sintetikoak eskolara iritsi dira**

Javier Ruizek, Eukal Gobernuko Drogamenpekotasuneko idazkariak, atzo adierazi zuenez, 11 eta 20 urte bitarteko ikasleen % 5ak baino gehiagok, behin edo behin, probatu ditu droga sintetikoak. EAEko 16 eta 18 urte bitarteko adolezenteen artean, berriz, kopurua % 11'5era igotzen da.

Javier Ruizek egindako txostenak agertzen duenez, gazteek droga hauek normaltasun osoz eta dibertsio giroan hartzen dituzte; berentzat modan daude, erakargarriak dira, eta ez dute menpekotasun arriskurik. Azterketa, eskola, institutu eta lanbide heziketako zentruetan egin da, 11 eta 20 urte bitarteko 100.000 gazte baino gehiagoren artean. Bestalde, mutilak gehiago hartzen dituzte neskak baino.

Ruizek azpimarratu zuen disenuko droga hauen kontsumoa Estatuko batzbestekoaren gainera dagoela Elkarte Autonomikoan; bide batez, sustantzi hauen arriskuaz ohartarazi zuen, izan ere, heriotzera bertara ere eraman baitezakete pertsona.

Droga sintetiko hauek eskola eta institutuetan zabaltzen jarrai ez dezaten, Gasteizko Gobernuak triptiko batzuk banatuko ditu zentruetan; bertan, sustantzia hauek eragin ditzaketen osasun kalteen eta menpekotasun psikikoen berri emango da.

menpekotasun: dependencia  
txosten: informe  
erakargarri: atractivo

batazbesteko: media  
ohartarazi: advertir  
eragin: afectar

## **Bederatzi urteko neskato batek banku batetik 1.340.000 pezeta lapurtu**

Eguerdiko 12:30ak inguru ziren Miranda de Ebroko Banco Exterior de España normaltasun osoz lau neskato sartu zirenean. Hauetako bat, zaharrena, zuzenean sukurtsaleko zuzendariarengana joan zen. 14 urteko neskatilak, arduradun nagusiaren bulegoan sartu, agurra egin, eta bere «pelikula» kontatu zion: alegia, ezkondu egin behar zuela eta eztei-gastuei aurre egiteko mailegu bat behar zuela. Zuzendariak, den-dena sinesturik, arreta handiz azaldu zizkion neskatoari maileguaren baldintzak.

Zuzendaria entretenituta zegoen bitartean, beste bi neskato (hauek ere oso normal)

kutzazainarekin eztabaidatzen hasi ziren. Neskatilek esaten zioten nahastu egin zela, eta 10.000 pezetako bilete baten ganbioak gaizki eman zizkiela. Orduan, kutxazaina, neskek nahi zuten bezelaxe, kutxa-bulegotik atera zen arazoa argitzeko. Bidea zabalik zegoen.

Une horretan, 9 urteko laugarren neskatila, txikiena, kutxazaina kanpoan zela aprobetxaturik, lauoinka sartu zen barrura, eta kutxan zeuden bilete-sortak bereganatu zituen: guztira 1.340.000 pezeta. Hango nahasmenduaz baliatuz, bankutik kanpora atera ziren diruarekin.

eztei-gastuak: gastos de boda  
mailegu: préstamo  
kutzazain: cajero

lauoinka: a gatas  
nahasmendu: confusión

2.

## **Gazte bat hil da Gernikan ikastolako leihotik jausita**

Gaizka Goikolea Mugira 14 urteko gernikarra atzo eguerdi aldera hil zen. Ez-beharra 12:30ak aldera gertatu zen San Fidel ikastolan, zentro honetako Irakaskuntza Ertainen Erreformako(IEE) lehenengo mailako gela batean, zehatzago esanda.

Gertakariaren inguruan bertsio ugari dauden arren —nahasiak denak ere—, honakoa da gehienek diotena: irakaslea une batean gelatik ateratzean, Gaizka, Juan Manuel Aldana eta beste mutil bat erdi jolasean hasi ziren. Gaizka eta Juan Manuel, jolasean berotuta, leiho ondora inguratu ziren. Ikasgelako leihoak bi motatakoak dira: batzuk, irekitzen direnak, barrekin babestuak; besteak, aldiz, zabaltzen ez direnak eta barrarik gabekoak. Gazteek horietako bat apurtu zuten eta bertatik behera erori ziren hamabost metroko altueratik.

Gernikako Gurutze Gorriko langile batek hau adierazi zion «Egunkaria»ri: «Guri 12:35ak aldera abisatu digute. Bi minututan bertaratu gara. Ordurako bat erdi hilda aurkitu dugu: irakasleek ezin zioten pultsurik aurkitu. Handik gutxira hil da. Bestea, berriz, bizirik zegoela ikusita, autoan sartu eta Gurutzetako Ospitalera eraman dugu. Hango berriek diotenez, oso larri omen dago».

bertaratu, bertara joan

## Frantziako sekta batek gizakiak klonatzeko enpresa bat sortu nahi du

Frantzian kokatutako erlijio sekta batek gizakiak klonatu nahi ditu, eta helburu horrekin enpresa komertzial bat sortuko du klonatzeari buruzko legeriarik ez duen estaturen batean. Raelen Eliza deritzo talde honi, eta kazetari frantziar bat du buru, Claude Vorilhon.

Kazetari frantziar honen taldeak sortu duen enpresak *Clonaid* (klonatzeko laguntza, ingelesez) izeneko ikerketa programa bat bultzatuko du. Programa honek zera eskainiko die gurasoei: haietako baten klona den haurra edukitzeko laguntza. Zerbitzuaren prezioa 34 milioi pezetakoa da. Raeleko Elizak lehen ikerketa eta klonatzeak debekurik ez duen estaturen batean egingo ditu, beharbada Bahametan, nahiz eta sektak ez duen tokirik aipatu. Bi urteko epea iragarri dute lehen haur klonatuaren jaiotzarako.

Raeleko Elizakoek diotenez, gizakiak klonatzeko prozedura nahikoa sinplea da, eta «ilusio hutsa da pentsatzea ez dela sekula gizakiekin entsegatuko». Gainera, «Klonatzeak bizitza eternalera eramango gaitu» aldarrikatzen du Raelek Internet-en bidez.

Raeleko Eliza sekta ufologiko bat da; hots, estralurtarren sinesten dute, haiek ekarri zutelakoan bizitza Lurrera. Jesus, Mahoma, Buda... denak estralurtarren ordezkari izan omen dira, eta Lurreko bizi guztia estralurtarren saio genetikoen ondorioa omen da, ez eboluzioarena.

legeria: legislación  
debekua: prohibición  
aldarrikatu: proclamar

entsegatu, entsaiatu  
iragarri: anunciar

3.

## Italiar ikusleak tele-zaborrarekin aspertzen hasi dira

Telebista penagarria duten hainbat herrialderen artean, Italiak aipamen berezia merezi du: ile hori-horia duten «vedette»ekin apaindutako lehiaketak eta arinkeriak egindako politika-espektakuluak, aurreko astean egunkari ingeles ospetsu batek zioen bezala, italiar telebisten programazioa «gusto txarreko minestronea da».

Dirudienez, ordea, ikusleek aspertzen hasiak daude. Asteartean, esaterako, RAI Uno estatuko kateak *La lista de Schindler*, Holokaustoari buruzko filmea, eskaini zuen, eta urte osoan zehar ikusle-kopururik handiena eduki duen pelikula izan da.

RAI kateak, filmearen gaia errespetatzeagatik, ez zuen iragarkirik eman pelikula osoan zehar, hauek hasieran eta amaieran eskaini baitzituen, «nahiz eta horrek ekonomikoki kalte egin digun» adierazi zuen kate horretako zuzendariak, «inbertsioa, hala ere, ona izan da, zoriontzeak eta goraipamenak ugari baitira».

Italiar askoren ustez garbi geratu da jendeak badakiela kalitatezko produktuak estimatzen. Hau berau izan da Antonio Colombok, kontsumitzaileen elkarte bate-

ko presidenteak atera duen ondorioa: «Sardinak besterik ez badaude, jendeak sardinak jaten ditu, baina horrek ez du esan nahi urdaiazpikoa gustatzen ez zaionik».

tele-zaborra: tele-basura  
arinkeria: superficialidad

goraipamena: alabanza

### **García Márquez «hache» letra baztertzearen alde**

Hainbat idazle eta linguista ari dira egunotan parte hartzen Mexikon egiten ari den Hizkuntza Espainolaren Nazioarteko I. Biltzarrean. Hauen artean dira, besteak beste, Literatur Nobel saridun diren Gabriel García Márquez eta Camilo José Cela. Biltzarkideek espainol hizkuntzan hatxearen etorkizunari eta ortografiari buruzko eztabaidari ekin zioten. Benetako polemika, dena den, García Márquezek hasi zuen haserako hitzaldian, letra horren aurka agertu zenean.

Kolonbiar Nobel saridunak gramatika erraztu edo sinplifikatu behar zela esan zuen: «leundu ditzagun arauak; ikas ditzagun hizkuntza indigenak, zor haundia baitugu berauekin eta asko baitute irakasteko eta aberasgarri; geuregana ditzagun ondo neologismo tekniko eta zientifikoak». Bere hitzetan, bestalde «ortografia jutilatu behar da, sehaskatik bertatik dugun mamua baita; Harri-Aroko hatxeak lurperatu behar ditugu; «g» eta »j»aren artean mugarik gabeko akordio batera iritsi; eta zentzu gehiago jarri azentu idatzietan».

Camilo José Celaren iritzia, aldiz, oso bestelakoa da honetaz. Bere ustez, hatxearen erabilera ez da eztabaidatzekoa, betiere, «arrazoi etimologikoak baldin badaude, hau da, arrazoi kapritxosoagatik ez bada, behintzat, eta berdin pentsatzen dut «b» eta «v»ri buruz ere.

biltzar: congreso  
sehaska: cuna

leundu, bigundu  
zentzu: uso de razón



## ELKARRIZKETA GAIAK

1997ko azterketetan **argazkiak** erabili izan dira elkarrizketa-gaiak plazaratzeko.



## IV.2. AHOZKO AZTERKETAK: HE2

Proba honetan bi ariketa egin behar dituzu.  
30 minutu izango dituzu guztia prestatzeko.

### 1. AZALPEN LIBRERAKO GAIAK

Ondoko hiru gaien artean bat aukera eta presta ezazu. Gero **zazpi minutu** izango dituzu gutxi gora-behera zure ideiak aztertzaileei azaltzeko. Egizu eske-matxo bat paper batean, gero zure azalpenari lotura eta ideia-jarraipen argia eman ahal izateko. Mintzatzeko orduan ezin izango duzu testu jarraitu bat irakurri. Hona hemen gaiak:

1. Ikasle eta irakasleen arteko harremanak
2. Eskolaz kanpoko ekintzak. Noren esku?
3. *Kalean uso, etxean otso*. Zer deritzozu honi?

### 2. BIDEO BATEN (edo testu baten) AHOZKO LABURPENA

Ikus eta entzun arretaz ipiniko zaizun bideoa (edo irakurri testua) —apunte laburrak jasoaz, nahi baduzu—. Gero **zazpi minutu** izango dituzu haria aztertzaileei azaltzeko, bideoa (edo testua) birkontatuz. Bigarren mailako xehetasunak bazter ditzakezu, helburua **nondik norako nagusiak** ematea baita. Idatzizko laburpena besterik gabe irakurtzea ez da onartuko.

*Hona hemen azalpen librerako erabili diren gai-multzo batzuk:*

1. Jaiotze tasa behera. Kezkatzekoa ala poztekoa?
2. Gero eta gutxiago irakurtzen omen da.
3. *Gustuko tokian aldaparik ez*. Zer deritzozu honi?
1. Egunkariak eta telebistak iritzi-sortzaile.
2. Sariak eta zigorrak.
3. *Zenbat buru, hainbat aburu*. Zer deritzozu honi?
1. Nekazal turismoa gora.
2. Eskolako porrota. Nork du erantzunkizuna?
3. *Errementariaren etxean, zotza burduntzi*. Zer deritzozu honi?
1. Gure gizartean bortizkeria gehiegi.
2. Futbol profesionalean ez al da diru gehiegi xahutzen?
3. Ameriketako errepublikak oinutsik. Zer deritzozu honi?
1. Diseinuko drogen kontsumoak gora egin du gazteen artean.
2. Telebistaren audientziak behera egin du Europan. Espainian  $-4,4\%$ .
3. Ohituta gaude politikoei gauza bat entzun eta beste bat egiten ikusten.

1. Kasparov jokalaria «Deep Blue» ordenagailuaren kontra galdu.
  2. Nazioartearen porrota: Somalia, Ruanda, Zaire, ... Noiz arte?
  3. Telemandoa. Honen jabe denak agintzen du etxean.
- 
1. Adoptatzeko umerik ez, eta Afrikan gosez hiltzen.
  2. Birziklaia: dozena erdi zarama-poltsa etxean?
  3. Udan, urtero legez, langabezi tasa jaitsi.

## **V. ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK\***

---

\* Atal honetan azterzaileen bi gauza biltzen dira: alde batetik kalifikazio-sistema nagusiaren azalpen labur bat (V.1 puntua); eta bestetik azterzaileen esku-liburuko zati garrantzitsuenak (V.2 eta hurrengoak). Esku-liburu horretan azterzaileen lana bideratzeko erabili ohi diren orientabide, adibide, taula eta abar jasotzen dira.



## V.1. KALIFIKAZIO-SISTEMAREN AZALPENA

### V.1.1. Erreferentzia nagusiak

Irakasleen Hizkuntz Eskakizunetan bi maila daude ezarrita (martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua). Lehenik eta behin hizkuntz eskakizun bakoitzaren mamia aipatu behar da.

- **HE1:** ez da euskara eta ez euskaraz irakasteko, baina euskara zerbitzu-hizkuntza legez erabiltzeko gaitasuna garantizatzen du. Irakaslea gai izango da, besteak beste, honako hauek euskaraz egiteko:
- ikasleekin taldeka edo bakarka eskolako arazoez (jokabidea, motibazioa, emaitzak, ikasleekin edo irakasleekin izandako arazoak, familiako arazoak etab.) hitz egiteko;
  - gurasoekin, irakasleekin, hezkuntza-administrazioko langileekin irakaslanarekin lotutako gaiei buruz aritzeko (eskolaren funtzionamendua, helburuak, ikasleei buruzko iritziak, ebaluaketarako irizpideak etab.)
- **HE2:** euskara edo euskaraz irakasteko gaitasuna bermatzen du. HE1eko trebetasunez gainera, honako hauek ere betetzeko gai izango da HE2duna:

- bere alorreko irakaskuntza euskaraz eman ikasleei, bakarka zein taldeka, azalpen majistrala eginez zein gelan eztabaida sortuz eta jasotako galderei erantzunez;
- eskolak prestatzeko materialak ulertu (argitalpenak, programa ofizialak, testu-liburuak, kontsulta-liburuak, artikulak, pelikulak, bideoak, zintak, irratzi-programak...);
- programa orokorrak eta bere alorrekoak euskaraz idatzi;
- fitxak, apunteak, materialak, ariketak eta abar euskaraz idatzi;
- ariketak zuzendu, txostenak idatzi eta bestelako balioespen-iharduerak.

Oro har Hizkuntz Eskakizunen inguruko arauzko erabaki nagusiak ondoko hauek dira:

- Martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua (1993ko apirilaren 2ko EHAA).
- 1994ko urtarrilaren 10eko Agindua (1994ko urtarrilaren 26ko EHAA)
- 1995eko apirilaren 10eko Agindua (1995eko maiatzaren 11ko EHAA)
- 1997ko martxoaren 18ko Erabakia (1997ko apirilaren 14ko EHAA)

### V.1.2. Deialdi irekia

Ondoko lerrootan era laburrean biltzen da deialdi irekiaren kalifikazio-sistema.

Deialdi irekiak hiru zati edo proba ditu: lehenengoa Aukera Anitzeko Galdekizuna da. Bigarren zatian Irakurmena eta Idazmen-ariketak biltzen dira; eta lehen eskakizunean baita Ahozkoaren Ulermena ere. Hirugarren proba Ahozkoa izan ohi da. Proba bakoitza baztertzaila da eta GAI edo EZ GAI moduan kalifikatzen da.

Lehen proban puntuak honela banatzen dira:

LEHEN PROBA	HE1	HE2
Puntuak	70	70
Gainditze-muga	45	45

Bigarren proban idazlanek pisu handia dute. Idazlanak zuzentzeko berariazko baremoak erabili dira (ikus aurrerago zuzenketarako irizpideak, baremoak etab.: V.2.puntua eta hurrengoak).

BIGARREN PROBA	HE1	
Ahozkoaren Ulermena	Otik 5era	
Irakurmena	Otik 5era	
Idazlan Laburra	Oso Gutxi	1
	Gutxi	2
	Nahikoa	4
	Ongi	6
	Oso Ongi	8
Idazlan Luzea	Oso Gutxi	5
	Gutxi	10
	Nahikoa	15
	Ongi	20
	Oso Ongi	25
Gainditzeko	24 puntu	

HE2	
ariketarik ez	
Otik 10era	
Oso Gutxi	1
Gutxi	2
Nahikoa	4
Ongi	6
Oso Ongi	8
Oso Gutxi	5
Gutxi	10
Nahikoa	15
Ongi	20
Oso Ongi	25
24 puntu	

**Hirugarren probaren**, hau da, Ahozkoaren, kalifikazioa **Gai** edo **Ez Gai** izan da.

### V.1.3. Deialdi itxiak

Kalifikazio-sistema zehatza ezagutzeko ikus 1995eko apirilaren 10eko Agindua liburu honen eraskinetan: VII. 2. atala: «Arauzko erabakiak». Ondoko lerrootan era laburrean biltzen da sistema hori.

Deialdi itxiko azterketak bi zati izan ditu: Idatzizko zatia eta Ahozkoa; ez da izan, beraz, alde zuzeneko Aukera Anitzeko Galdekizunik. Azterketa gainditzeko bi zatiak gainditu behar dira.

IDATZIZKO ZATIA	HE1	
Ahozkoaren Ulermena	Otik 5era	
Irakurmena	Otik 5era	
Idazlan Laburra	Oso Gutxi	1
	Gutxi	2
	Nahikoa	4
	Ongi	6
	Oso Ongi	8
	Bikain	10
Idazlan Luzea	Oso Gutxi	5
	Gutxi	10
	Nahikoa	15
	Ongi	20
	Oso Ongi	25
	Bikain	30
Gainditzeko	24 puntu	

HE2	
ariketarik ez	
Otik 10era	
Oso Gutxi	1
Gutxi	2
Nahikoa	4
Ongi	6
Oso Ongi	8
Bikain	10
Oso Gutxi	5
Gutxi	10
Nahikoa	15
Ongi	20
Oso Ongi	25
Bikain	30
24 puntu	



Gero, lortutako puntuaziotik idatzizko azterketaren nota ateratzen da, bai HE1ean bai HE2an:

PUNTUAK	IDATZIAREN KALIFIKAZIOA
0-10	Oso Gutxi
11-23	Gutxi
24-32	Nahikoa
33-40	Ongi
41-45	Oso Ongi
46-50	Bikain

**Ahozko zatian** kalifikazio hauetariko bat ipintzen zaio azterketariari: Oso Gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi, Bikain. **Nahikoa** lortu behar da gainditzeko.

#### *Azterketaren nota orokorra*

Azterketa gainditzeko, bai HE1ean eta bai HE2an, bi zatiak gainditu behar dira: Idatzizkoa eta Ahozkoa. Beraz, zati batean Gutxi edo Gutxiegi ateraz gero, azterketaren nota orokorra ere Nahikotik beherakoa izango da. Azterketaren nota orokorra ondoko mailen arabera ipintzen da, bai Idatzizko zatia bai Ahozkoa kontuan hartuta: Oso Gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi, Bikain. Zalantzako kasuetan ahozko zatia gehiago balioesten da.

#### *Etengabeko ebaluazioa*

Azterketa ez gainditu arren, 3. ataleko zenbait azterketarik HE1 lor dezake eta 5. moduluko zenbaitek HE2. Horrela, ahozkoa gainditu duen baina idatzizko zatian 22 edo 23 puntu dituen ikasleak dagokion Hizkuntz Eskakizuna lor dezake, baldin eta idazmenean etengabeko ebaluazio positiboa badu eta idazlanetako bat gainditu badu. Alderantzizkoa ere gerta daiteke kasu bereziren batean: idatzia gainditu baina ahozko zatian gaindituaren muga-muga dagoen ikaslea bada, alegia, beti ere mintzameneko etengabeko ebaluazioa gainditua badu.

## V.2. IDAZLANAK

### V.2.1. Sarrera

Hizkuntz Eskakizunen ebaluaziorako irizpideen artean, besteak beste, honako hauek aipa daitezke idazmenari dagokionez:

HE1	HE2
<p><i>Era askotako hartzaileei (lankideei, gurasoei, ikasleei) egokitutako testu sinpleak idazteko gai izatea, komunikazio-asmo desberdinekin, zalantzak argitzeko kontsulta-materialak erabiliz. Ikasketariak bere irakaslanean dituen hizkuntz egoera arruntei egokitzen zaizkien testu sinpleak idazteko gauza den ala ez egiaztatuko da. Erregistro egokia aukeratu beharko du, horretarako, zuzentasunez, ortografia-arauak errespetatuz eta testuari barne-lotura eta koherentzia emanaz. Ikasketariak, halaber, laguntzarako materialak erabiltzen jakin beharko dute lexiko eta ortografiako zalantzak argitu ahal izateko.</i></p>	<p><i>Irakaslea testu-mota desberdinak (argibideak, aktak, txostenak, eskutitzak...) erredaktatzeko gai izango da, zuzentasunez eta hartzaileari ulergarri gertatzen zaion eran. Irizpide honen bidez ikasketariak ekoizten dituen testuetan hizkera idatziaren egokitasuna, koherentzia eta barne-loturazko baliabideen erabilera egokia eta zuzena, hiztegi-aberastasuna eta zehaztasuna eta ortografia-arauak errespetatzen dituen ala ez ebaluatuko da.</i></p>

Aztertzailerak azterketari baten idazlana baloratzean galdera nagusi bati erantzun behar dio: Noraino da ulergarria testua? Hau da, komunikazioa ezartzen da? Idazlearen asmoa argi harrapatzen da? Idazlanetan era ezberdinetako errakuntzak egoten baitira, testua ulertzeko oztopo bilakatzen direnak eta, batzuetan, komunikazioa zapuzteraino eraman dezaketanak, hala nola, ideia ilunak edo errepikatuak, informazioaren desordena, gramatika eta ortografia-akatsak, adierazpen teknikoegiak edo arruntegiak eta abar.

Lau mailatan egingo da testuaren balorazioa:

Azterketa-maila	Aztertzen den testuaren alderdia
1. <i>Koherentzia</i> →	— Informazioa edo edukia
2. <i>Kohesioa</i> →	— Testuaren artikulazioa edo esaldiez gaineko loturak
3. <i>Zuzentasuna</i> →	— Morfosintaxia, ortografia, lexikoaren zuzentasuna...
4. <i>Bestelakoak</i> →	— Egokitasuna, baliabide espresiboak...

Ondoren irizpide xeheagoak eskaintzen dira azterketa-maila bakoitzerako:

### V.2.2. Koherentzia (informazioaren aukeraketa eta egituraketa)

Atal honetan *idazlanaren adierazia* kalifikatuko da; hots, azterketariak eskaintzen duen informazioaren pertinentzia eta kalitatea, batetik, eta beronen ordena, zehaztasun eta xehetasun-maila, egituraketa... bestetik.

Esan gabe doa idatzitakoak proposatutako gaiarekin lotura izan behar duela; bestela, idazlanaren kalifikazioa «Gutxi»tik beherakoa izango da eta aztertzaileak zirkunstantzia horren berri emango du puntuazio-orrian ondoko hau idatziz: «*Ez du loturarik proposatutako gaiarekin*».

### Informazioaren kantitatea eta kalitatea

#### — Kantitatea

Mezua ulertzeko behar diren datu guztiak, eta horiek bakarrik, ematen diren ala, alde-rantziz, informazio gehiegi edo gutxiegi ematen den begiratuko du aztertzaileak.

<p>Informazio gehiegi salatzen dutenak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Errepikapenak</li> <li>— Erredundantziak</li> <li>— Datu irrelebanteak idazlanaren xederako</li> <li>— Soberazko informazioa (betelana)</li> </ul>	<p>Informazio gutxiegi salatzen dutenak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Hutsarteak adierazian</li> <li>— Presuposizio edo datu inplizitu gehiegi, hartzaileak zertan jakin ez dauzkanak</li> </ul>
--	---

#### — Kalitatea

Testuan eskaintzen den informazioa ona den ala eskasa den begiratuko du aztertzaileak. Oro har, honela deskriba litezke bi mutur hauek:

<p>Informazio ona</p> <p>Idea osabeteak, argiak, ulergarriak, zehazki formulatuak. Berehalaxe antzematen da esan nahi duena</p>	<p>Informazio eskasa</p> <p>Idea osagabeak, ilunak, ulergaitzak; enuntziatu generikoegiak. Irakurleak esanahia berregin behar du edo hipotesiak egin behar ditu testuan esplizituki adierazten ez dena ulertu ahal izateko.</p>
---	---

### Informazioaren egitura / Parrafoak

Ondoren deskribatzen diren bi muturretatik, testua zeinetara makurtzen den zehazten saiatuko da aztertzailea:

<p>Informazioaren egitura egokia</p> <p>Datuen aurkezpenak alde zuzenetik erabakitako ordena baten araberrako anto-lamendua erakusten du (kronologikoa, espaziala, kausa-ondorioa, orokorretik xehera...). Informazio berria era progresiboan aurkezten da.</p> <p>Parrafoek ideia oso bana garatzen dute, beste parrafoetako ideietatik ondo bereizitak; puntu eta aparte mugaturik ageri dira.</p>	<p>Informazioaren egitura eskasa</p> <p>Datuen aurkezpena ordena gabekoa da edo gorabehera handiak erakusten ditu. Informazioa era anarkikoan aurkezten da.</p> <p>Parrafoek ez dute osotasun-batasunik erakusten. Ideien garapena askotan eten egiten da edo han-hemenka, parrafo desberdinen artean barreiatu edo errepikatutik ager daiteke. Puntu eta apartek ausaz ezartzen direla dirudi.</p>
--	---

## V.2.3. Kohesioa (testuaren artikulazioa)

Atal honetan aztertzaileak *edukia azaltzeko moldeari* begiratuko dio, testua osatzen duten elementuen arteko kohesio-mekanismoen edo formen ikuspegitik (loturak, artikulak, izenordeak, sinonimoak...)

Balorazioa emateko, edozein testutan erabili ohi diren kohesiorako mekanismoak aztertuko dira bi ikuspegitatik: **zuzentasuna**, lehen, eta ugaritasuna edo **aberastasuna**, bigarrena. Nolanahi ere, gramatika tradizionalari dagozkion puntuak —morfosintaxia, etab.— hurrengo puntuan, «Zuzentasuna» izeneko V.2.4. atalean, baloratuko dira.

Aztertzaileak bere arreta nora zuzendu behar duen erakusten du ondoko gida honetik:

### *Erreferentziarako eta errepikapenerako mekanismoak*

Kate idatzian agertzen diren elementuak aurretik edo atzetik esandakoarekin erlazionatzeko dauden mekanismoak ongi erabilita dauden aztertuko da. Era berean, egoeraren testuingurua osatzen duten elementuak (pertsona, leku eta denborei) eta beren erreferentziak ondo josita dauden behatuko da:

#### — Ordezkapen lexikala

- **Sinonimoen bidez** (aurretik aipatutakoari eremu semantiko berdintsua duen beste hitz batez erreferentzia egitea). Adb.: *Eskola, ikastetxe, ikastegi, zentro...*
- **Hiperonimoen bidez** (eremu semantiko zabalagoa duten hitzak edo hitz multzoak). Adb.: *Ziklista > kirolari // Testu-liburu > baliabide didaktiko...*
- **Parafraasi bidez** (kontzeptu baten baliokide semantikoa den egitura sintaktikoa).  
Adb.: *Gor > entzuten ez duen pertsona*

#### — Elipsia edo elementuren bat ezabatzea:

Adb.: «*Ane ez da etorri. (Ane) Gaixorik dago*».

#### — Determinatzaileak

**Artikulua** (-a, -ak, -ok); «bat» eta gainerako **zenbatzaileak**; **erakusleak** (*hau, hura...*) eta abar. Hauek guztiek era askotako erlazioak ezartzen dituzte hitzen eta erreferentzien artean: ezaguna/ezezaguna, igorlea/hartzailea, hurbil/urrun...

#### — Deiktikoak

Denbora, pertsona eta espazio-harremanak ezartzen dituzte. Egoera komunikati-boaren testuingurua zehazten dute:

- **Pertsona:** igorlea (*ni, nire, nirekin...; gu, gure...*). Hartzailea (*zu, zure, zurekin...; zuek, zuen...*)
- **Lekua:** *hemen, hor, han...*
- **Denbora:** *orain, lehen, gaur, orduan, beranduago...*  
Adib.: «*Bihar bidaliko dizut atzo eskatu zenidana, hemen sobran baitaukat han behar duzuna*»

### *Loturak (lokailuak eta gainerako testu antolatzaileak)*

Azpiatal honetan testuko esaldien artean era ezberdinetako erlazioak ezartzen dituzten lokailuak eta gainerako testu-antolatzaileak dira aztergai gorago aipatutako bi ikuspegietatik. Adibidez:

<p>—<b>Emendiozkoak</b> (zerbait gaineratzen dela adierazteko)</p> <p><i>komak eta ere, ere bai, baita... ere ere ez, ezta ere gainera orobat honez, horrez gain(era)</i></p>	<p>—<b>Kausa-ondorioa</b> (arrazoiak, zergatiak eta ondorioak ezartzeko)</p> <p><i>beraz hortaz honen-horren-hainbestez ondorioz izan ere horregatik hau, hori dela eta</i></p>	<p>—<b>Ordena</b></p> <p><i>lehenik, bigarrenik... bat, bi... hasteko lehenengo eta behin ondoren gero azkenik amaitzeko</i></p>
<p>—<b>Aurkaritzakoak</b> (aurrekoarekiko kontrakotasuna adierazteko)</p> <p><i>baina ordea berriz aldiz dena den hala ere</i></p>	<p>—<b>Konparazioa</b> (aurretik esandako zerbaitekiko analogia nahiz diferentzia seinatzeko)</p> <p><i>era berean modu berean berdin bestalde bestera</i></p>	<p>—<b>Adibide ematea</b> (azalpen edo adibideak emateko)</p> <p><i>adibidez esate baterako hau da hots hala nola bestela esanda</i></p>
<p>—<b>Espazioa</b> (esandakoa espazioaren koordenadetan kokatzeko)</p> <p><i>goian behean gorago beherago hemen, hor, han</i></p>	<p>—<b>Denbora</b> (esandakoa denboraren koordenadetan kokatzeko)</p> <p><i>aldi berean beranduago bien bitartean honez, horrez, harez gero artean ondoren</i></p>	<p>—<b>Egiaztapena/ laburpena</b> (adierazitakoaren birformulazioa edo laburpena gaineratzeko)</p> <p><i>laburtuz hitz gutxitan bestela esanda izan ere</i></p>

## V.2.4. Zuzentasuna (morfosintaxia, lexikoa eta ortografia)

Kontuan hartzekoak:

HE1
<i>Mezuaren ulergarritasunerako ondorio larririk ez duten akats ortografikoak eta morfosintaktikoak erakusten dituzten ekoizpenak dira.</i>

HE2
<i>Akats ortografikoak eta morfosintaktikoak oso urriak dira.</i>

Ildo honetatik, aztertzaileak ondoren zehazten direnak hartuko ditu kontuan:

## Morfosintaxia eta lexikoa

Errakuntza bakan batzuk onargarriak badira ere, zuzentasun-akats larrien deskripzioan datozen zenbait puntutan sistematikoki huts egitea edo, sistematikoak izan gabe, puntu desberdinetan behin eta berriz huts egiten badu, GUTXI edo OSO GUTXI kalifikazioa emango zaio azterketariari.

Era berean, lexikoaren zuzentasunari dagokionez, zenbait akats larritzat joko da, hala nola, euskal hitz arrunten ordeztuak erabiltzea edo hitzen bat ez dagokion esangurarekin erabiltzea. (Ikus V.5 atala: «AKATSAK, akats larrien deskripzioan «Hitzaren esparrua»).

### Ortografia (puntuazio-zeinuak barne)

Kontuan hartzekoak:

#### — Puntuazio-zeinuak

Puntuazio-zeinuen arauak ez dira beti normatiboak edo objetiboak. Dena den, badira perpausaren antolamendu sintaktikoarekin eta semantikoarekin zerikusia duten arau nagusi batzuk. Horien aplikazioari erreparatuko diogu, besteak beste, perpausak puntuen bidez ondo mugaturik dauden, elkarren segidan doazen maila bereko kideak komaz berezirik ematen diren, hitz betegarriak (*bada, dena den, adibidez, beraz...*) koma tartean doazen, galdera eta harridura-zeinuak beren tokian dauden, etab.

#### — Ortografia:

— Erabilera handiko hitzetan egiten diren akatsak **larriak** dira beti, baita euskal ortografiako puntu konfliktiboenetan egiten direnak ere (*z-s-x / tz-ts-tx / h-Ø / g-j* eta abar).

Adb.: »*au isan sen*» «*asken hezkutitzean ezaten senidan besala*»

— Aldiz, beste zenbait huts **txikitat joko dira**: erabilera urriko hitzen ortografia («*h*»ak bereziki), hitz elkartuetan marratxoaren erabilerrari dagozkionak, maileguetako *-u* eta *-o* bukaeretan sortzen diren zalantzak, eta antzekoak. Adibidez:

— Erabilera urriko hitzetan H letraren inguruko zalantzak:		— Hitz elkartuen idazkera	
<i>Ondo</i>	<i>Txarto</i>	<i>Ondo</i>	<i>Txarto</i>
mihura(landare bizkarroia)	miura	aurrez aurre	aurrez-aurre
meatze(meategia)	mehatze	ozta-ozta	ozta ozta
ahur (eskuaren barnealdea)	aur	zuzen-zuzenean	zuzen zuzenean
haltz(zuhaitza)	altz	irakasmila	irakas-maila
orbel(hosto ihartua)	horbel	legegizon	lege-gizon
auhen(atsekabea)	ahuen	lan hitzarmena	lan-hitzarmena
hegi(mendiaren hegala)	egi	esku-zabal	eskuzabal
— <b>-u/-o bukaera maileguetan</b>			
<i>Ondo</i>	<i>Txarto</i>		
dokumentu	dokumento	ortografi arauak	ortografi-arauak
kreditu	kredito	ortografia(-)arauak	
zentro	zentru	hizkuntz gaitasuna	hizkuntz-gaitasuna
dialekto	dialektu	hizkuntza(-)gaitasuna	
		hezkuntza(-)sistema	hezkuntz-sistema

## V.2.5. Bestelakoak

Zuzentasun, koherentzia eta abarretan ezaugarri berdintsuak dituzten idazlanen artean badira bestelako aldeak. Atal honetan baloratuko dira:

### *Baliabide espresibo orokorrak*

- Hizkuntz sistema malgutasunez eta erraztasunez erabiltzeko gaitasuna erakusten duen konplexutasun sintaktikoa.
- Lexikoaren jatorria (lexiko zaindua), aberastasuna eta zehaztasuna.
- Idazlearen ausardia, testuaren elaborazio-maila, orijinaltasuna.

### *Egokitasuna*

Gaiaren testuingururako adierazpen kolokialegiak agertzen dira batzuetan. Besteetan, berriz errejistro formalegia erabili ohi da.

Adib.: eskola bateko ikasleen gurasoei idatzitako komunikazioen batean «*kaka burutik behera egiten die zuen semeak zaindariei*» (nahi duena egiten duela adierazteko), adierazpen kolokialegia litzateke; eta «*Gure ikasle estimatuen guraso zareten jaun-andre agurgarrioi begirunez zuzentzen natzaizue...*» bezalako adierazpenak, aldiz, formalegiak.

## V.3. AHOZKO PROBA

### V.3.1. Sarrera

Hizkuntz Eskakizunak egiaztatzeko ebaluazio-irizpideetan honako hau dator, besteak beste, mintzamenari dagokionez:

HE1	HE2
<p><i>Aldez aurretik zehaztu gabeko elkar- rrizketa informaletan parte hartu ahal izatea eta eskola-inguruaz edo irakas- lanari buruzko gaien inguruko aurrez prestaturiko eztabaidetan esku hartu ahal izatea.</i></p> <p><i>Irizpide honen bidez ikasketariak bere ideiak argiro antolatzeko eta adierazteko duen gaitasuna neurtu nahi da. Era be- rean, hartzaileak ulertzen duen eta egoerari eta helburuari egokia zaien dis- kurtsoa produzitzeko duen gaitasuna. Ikasketariaren ahozko adierazpena zu- zentasunaren aldetik ere neurtuko da.</i></p>	<p><i>Eskolaz kanpoko nahiz barneko gaiez era desberdinetako elkar-truke komunikatibo- tan parte hartzeko gai izatea, gaiaren ingu- ruko informazio egokia emanaz, bere ikus- puntu eta iritziak azalduz, arrazoituz eta defendatuz eta komunikazio-egoeraren al- daera desberdinei egokituz.</i></p> <p><i>Irizpide honen bidez bere ahozko ekoizpe- naren zuzentasuna, zehaztasuna, jariota- suna eta ebakera neurtu nahi da. Orobat, gaiarekiko egokitasuna lexikoaren aldetik, bere ideiak era logiko eta egituratuan azal- tzeko gaitasuna eta bere hizkera komuni- kazio-egoera desberdinei egokitzekoa.</i></p>

Azterketarien ahozko ekoizpena baloratzeko ondoko bost alderdi hauei erreparatuko die aztertzaileak:

Azterketa-maila	Aztertzen den testuaren alderdia
1. <i>Osagai morfo-fonetikoa</i> →	Ebakera, azentua eta doinuera.
2. <i>Zuzentasuna</i> →	Arau morfosintaktikoen erabilera zuzena.
3. <i>Lexikoa</i> →	Lexikoaren aberastasuna eta zehaztasuna.
4. <i>Jariakortasuna</i> →	Abiadura, etenak eta mezuaren berrantolaketak.
5. <i>Bestelakoak</i> →	Informazioa edo edukia. Baliabide espresiboak.

Ondorengo orrialdeetan ahozko proba baloratzeko irizpide xeheak eskaintzen dira atalez atal:

### V.3.2. Osagai morfo-fonetikoa

Atal honetarako erreferentziatzen euskara batuan diharduen jatorrizko hitzunaren ahoskera hartuko dugu, eta eredu zehatzagoa ematearren, irrati-telebistako profesionalena<sup>1</sup>. Hortaz, zenbat eta gehiago hurreratu hauen ahoskerara, orduan eta kalifikazio hobea emango zaio azterketariari.

<sup>1</sup> Ahoskera bezalako gai korapilatsu eta gutxi aztertu honetan, nahiz eta neurri batean eztabaidagarria izan, eredu hau aukeratu da, batetik, erreferentzia bat, edozein dela ere, ezinbestekoa baita eta, bestetik, berau eginkizun honetarako egokia eta aproposa baita eta edozein aztertzailek ezagutzen baitu.



Ahozko proban, osagai morfo-fonetikoari dagokionez, ondoko azpiatal hauek dira bereziki zaindu eta baloratu behar direnak:

- Ebakera:
- Prosodia: azentua / intonazioa
- Hiatu problematikoak

Hona hemen azterketariaren ahoskera ebaluatzeko zenbait irizpide xehe:

### *Ebakera (fonemen burutzapena / hotsen elkarketa)*

#### — Fonemen burutzapena

Azpiatal honetan euskal fonemen burutzapen egokia behatu behar da, ondoko hauek aintzat hartuz:

- < **z** > eta < **s** > ez bereiztea ez da zigortuko.
- < **tz** > eta < **ts** > ez bereiztea ez da zigortuko.
- < **j** > kontsonantearen ebakera ezberdinak onartzekoak dira: [**x**] [**y**] [**z**] [xan, yan, zan]
- < **g** > grafia daramaten erdal maileguetan [**x**] eta [**g**] ebakerak, biak, onestekoak dira.  
Adb.: *biologia* > [bioloxia] eta [biologia]; *genesi* [xenesi] eta [genesi].
- < **il** > ren ordainez [**y**] ahoskatzea («yeismoa»), euskal fonetika zuzenaren kontra joan arren, ez da zigortuko.  
Adb.: *neskatila* > [neskatila] —burutzapen zuzena— eta [neskatiya], akastzat hartuko ez dena.

«Bestelakoak» atalean sarituko da, ordea, <**z**> eta <**s**>, <**tz**> eta <**ts**> bereizten dituen azterketariaren ahoskera eta <**il**> ren burutzapen zuzena.

Ondoko hauek ebakerako **akats larritzat** hartuko dira:

- < **tz** > erdarazko < **ch** > ri dagokion hotsaz ahoskatzea.  
Adb.: *aldatzen* > *aldachen*
- < **z** > < **x** > balitz bezala sistematikoki ahoskatzea.  
Adb.: *zuen* > *xuen*; *zulatu* > *xulatu*; *zarata* > *xarata*...
- < **ge**, **gi** > daramaten euskal jatorriko hitzetan [**x**] ahoskatzea.  
Adb.: *ogi*, *gezi* > *oji*, *jezi*...
- Erdarazko «*cerro*» edo «*zona*» moduko hitzetako hasierako [ʧ] soinua zenbait hitzetan ahoskatzea.  
Adb.: *asimilacio*, *palatalizatu*, *zigarro*...
- Hitz bukaerako leherkari gorren burutzapen «arraroak»:  
Adb.: *Nik* > *niz*, *nig*, *nit*, *ni-Ø*...  
*dut* > *duz*, *duk*, *dud*...

Baita hitz artekoak ere:

Adb.: *erritmo* > *errizmo*, *errikmo*...

Azken puntu honetakoak azterketariaren artikulazio-organoen arazo somatiko gaindiezinaren ondorio diren neurrian, azterketa batzordeburuari jakinaraziko zaio. (Nolanahi ere, berau ez da behin ere arrazoi bakarra izango azterketariaren bati «Gutxi» kalifikazioa emateko).

— Hotsen elkarketa

Edo hitzak elkartzean sortzen diren aldaketa fonetikoak.

EZ eta BAIT partikulek aditz laguntzaileari erasteen eragiten dituztenak:

EZ+ B → EZZ: ezpadator, ezpalitz D → EZT: eztago, eztira L → EL: eluke, elitzateke Z → ETZ: etzuen, etzaizkio N → EN: enator, enoa G → EZK: ezgara, ezkinen	BAIT + D → BAIT: baitaude, baitira Z → BAITZ: baitzara, baitzaio L → BAIL: bailuke, bailiteke N → BAIN: bainaiz, bainago G → BAIK: baikara, baikintezke
--	---

Arau fonetiko hauek ez errespetatzea ez da akastzat hartuko atal honetan; hala ere, «Bestelakoak» atalean sarituko da errespetatzen dituen azterketariaren ahoskera

*Prosodia (azentua eta intonazioa)*

Azpiatal honetan ezin da irizpide xeherik eman. Dena dela, aztertzailerak honako hauek begiratuko ditu besteak beste:

- Gorago ezarritako «hiztun-ereduaren» azentubidera eta intonazio modura hurreratzeko den ala ez azterketaria.
- Erdal doinueraren eragina norainokoa den; hau da, hitzak erdarazko «llanak» bezala ahoskatzen dituen etab. Adb.: *mintzaména, koadernóa, baserría*.
- Funtsezko tonu-aldaketak adierazi nahi duenarekin ongi lotzen dituen: galderak, harridurak eta esaldi sinpleak doinuera egokiz ematen dituen; ea tonua indartzen duen garrantzitsutzat jotzen dena nabarmentzeko (galdegaia, esaterako) edo interresguneak inguruko osagarrietatik bereizteko.

*Hiatu problematikoak*

Hitz bukaerako <-io> hiatuari -a artikulua erasteen sor daitezkeen ahoskera desgokiak:

Adb.: *enumerazioa > enumerazioia, enumerazioa...* edo diptongo gisa ahoskatzea

Era honetako ebakera sistematikoak akats larritzat joko dira.

### V.3.3. Zuzentasuna (morfosintaxia eta lexikoa)

Kontuan hartzekoak:

HE1	HE2
<i>Azterketariaren hutsegite morfosin-taktikoek komunikazio-etenak eta gaitzulertuak sorraraz ditzake, baina bere burua zuzentzeko adina ezagutzen du gramatika.</i>	<i>Zuzentasun handiz hitz egiten du. Noizik behin mezuaren ulermena eragozten ez duten hutsegite morfosintaktikoak izan ditzake.</i>

Errakuntza bakanak onargarriak badira ere, zuzentasun-akats larrien deskripzioan datozen zenbait puntutan sistematikoki huts egitea edo, sistematikoki izan gabe ere, puntu desberdinetan behin eta berriz huts egiten badu, GUTXI edo OSO GUTXI kalifikazioa emango zaio azterketariari. Gauza bera esan dezakegu autozuzenketez: noizbehinkakoak izanez gero onargarriak dira, baina mezuaren ulermena eragozten badute, NAHIKOA ez emateko arrazoia izan daitezke. Dena dela, akatsak eta autozuzenketak ezin ditugu zorrotasun berberaz epaitu lehenengo eta bigarren Hizkuntz Eskakizunetan.

Era berean, lexikoaren zuzentasunari dagokionez, zenbait akats larritzat joko dira, hala nola, euskal hitz arrunten ordeztasun erdal hitzak erabiltzea edo hitzen bat ez dagokion esangurarekin erabiltzea. (Ikus «V.5.atala: «AKATSAK», akats larrien deskripzioan «Hitza-ren esparrua»).

### V.3.4. Lexikoa (aberastasuna, zehaztasuna eta egokitasuna)

Kontuan hartzekoak:

HE1	HE2
<p><i>Eskola-gaiei buruzko lexiko aski garatua du, batzuetan asmatu ez arren; bestelako gaietan lexiko orokorraren jabe da, batzuetan hitz desegokiak, erdaratik hartutakoak edo parafraasiak erabili behar baditu ere.</i></p>	<p><i>Nabarmena da lexiko aberatsaren jabe dela. Bere arloko gaietan lexiko zabala eta zehatza erabiltzen du, baina nolabaiteko muga ere badu. Noiz behinkako gabezia-egoera horietan euskal itxurako ordainak erdaratik mailegatzeko, parafraseatzeko eta antzeko estrategiak garatuak ditu. Hala ere, inoiz asmatu ezina ere gerta liteke.</i></p>

Ondoko puntuotan zentratuko da aztertzailearen arreta:

#### *Aberastasuna / zehaztasuna*

Azterketariak gaia garatzeko berba-sorta nahikoa darabilen ala ez begiratuko da. Lexiko mugatua salatzen duten zenbait gertaera:

- Errepikapenak. Adb.: *erabaki bat hartzea erabaki zuen.*
- Hutsarte lexikoak: behar duen berba ez aurkitzea.
- Berba makuluen eta esangura zehazgabeko berben abusua.  
Adb.: *zera, ba, baina, orduan, pixka bat, gauza, egin, tresna, kontu...*

#### *Egokitasuna*

- Adierazpen kolokialegiak edo formalegiak agertzen dira diharduen gai-testuingururako.

## V.3.5. Jariakortasuna (abiadura, etenak eta berrantolaketak)

Kontuan hartzekoak:

HE1	HE2
<i>Hizkeran gutxienezko jariotasuna izango du, inoiz osatu gabeko esaldiak eta etenak gertatu arren.</i>	<i>Hizkera jariakor eta uniforme, ez derrigor jatorrizko euskaldunak adinakoa, baina bai honek onargarrizat joko lukeena.</i>

Jariakortasunaren hiru alderdi hauek begiratuko dira:

### Abiadura

Hiztun guztiek ez dute hitz-jario eta etorri bera: batzuek beste batzuek baino motelxeago hitz egiten dute. Gainera, hiztun berberak bizkorrago edo mantsoago hitz egin dezake, egoera zein den. Zaila da, beraz, neurri-patroi bat ezartzea<sup>2</sup>. Dena den, azterketariari jatorrizko euskaldunak onargarri joko lukeen gutxienezko abiadura eskatuko zaio. Aztertzailea bere senaz, gutxi gora-beherako estimazioez eta azterketariaren jardunak sortarazten dion inpresioaz (erosotasuna, nekea..) baliatuko da azpialtal hau baloratzeko.

### Etenaldiak

Kate mintzatuan barrena eten batzuk derrigorrezkoak dira (arnasa hartzeko, unitateak bereizteko, eta abar egiten direnak); beste batzuk, aldiz, aukerakoak (efektu erretorikoak sortzekoak, adibidez). Badira beste batzuk, hizkuntz sistemaren kontrol mugatuaren ondorio, komunikazioa astun bihurtzen dutenak eta mezuaren harrera galaraz dezaketenak. Eten hauek gaitzestekoak dira. Adibidez:

- Batera eman beharreko hitzen artean etenak egitea:
  - Aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean: *Lehengoan ikusi ... zintugun*
  - Sintagma banaezinetan: *bere ... etxean; zazpigarren ... pisua; beste ... orri ... bat*
- Galdegaiaren eta aditzaren artean egitea: *Etxera ez, automobila hartzera ... nindoan*
- Konparatiboetan etena lekuz aldatzea: *Peru Anton ... baino trebeagoa da*
- Hitzaren barruan etenak egitea: *zu...regana; ekarri zen...ituzten*

### «Oihartzunak» eta berrantolaketak

Hiztun trebeenek ere, tarteka bederen, huts egiten dute oharkabeen. Nekeak, urduritasunak, interes ezak eta abarrek eragindako jarduerazko errakuntza horiez ohartu bezain laster, zuzentzen saiatzen da hiztuna, atzera joaz esandakoa berrantolatzeko. Beste zenb

---

<sup>2</sup> HE2ko mailaren pareko hizkuntza arrotzen (ingelesa, kasu) ikasleei jatorrizko hiztunek darabilten abiadura motelena eskatzen zaie gutxienez. Euskarari dagokionez, jatorrizko euskalduna 95-140 hitz/ minutuko abiaduran mintzatzen omen da (HABE, Mintzamena lantzen. 1985). Gutxienezko abiadura hori eskatuko zaie, bada, HE2ko azterketariei. Azterketa honetan ez dira, hala ere, minutuak eta hitzak kontatuko. Datu hau erreferentzia gisa har daiteke aztertzaileen bateratze saioetan.

aitetan esaldia modu batean hasi eta erdian dagoela, bukatu gabeko esaldiari «norabide» berria ematen dio. Ahozko hizkuntzaren fenomeno hauek onargarriak dira, bakanka gertatzen direnean.

Autozuzenketa neurturik egiten denean onargarria bada, neurritz kanpo egiten denean, hizkuntz sistemaren kontrolik eza salatzen du eta komunikazioa galarazi egiten du.

### V.3.6. Bestelakoak

*Koherentzia (gaiarekiko atxikimendua, informazioaren kalitatea, testuaren egituraketa)*

Ataltxo honetan hauexek dira aztergai: batetik, azterketariak eskaintzen duen informazioaren pertinentzia eta kalitatea; bestetik, beronen ordena, zehaztasun eta xehetasun-maila, egituraketa... Testuaren aspektu hau baloratzeko, ikus gorago, idazlanaren ebaluazioari dagozkion irizpideetan, koherentziaz esandakoa, beti ere kontuan harturik ahozko hizkeraren ezaugarriak direla eta, ondorioz, askoz ere malguago aplikatu behar direla han zehaztutakoak.

*Baliabide espresibo orokorrak*

- Hizkuntz sistema malgutasunez eta erraztasunez erabiltzeko gaitasuna erakusten duen konplexutasun sintaktikoa eta elaborazio-maila.
- Solaskidearen arreta erakartzeko eta interesa pizteko, eraginkorragoa izateko, azalpen osatuago eta zehatzagoak burutzeko eta abarretarako baliabide erretorikoak, orijinaltasuna eta ausardia.

*Hizkuntzaren sistema fonologikoaren kontrola*

Euskal fonema «zailen» burutzapen zuzena sarituko da atal honetan.

## V.4. PROBAK BALORATZEKO IRIZPIDEEN LABURPENA

### IDAZLANA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

#### 1. KOHERENTZIA (informazioaren aukeraketa eta egituraketa)

- **Informazioa.** Mezua ulertu ahal izateko behar diren datuak ematen ditu? Informazio larregi edo gutxiegi ematen du? Kontraesanik badago enuntziatuen artean?
- **Egitura.** Informazioaren ordenamendua logikoa da? Ba al dago errepikapenik, informazio hutsarterik edo etenik?
- **Parrafoak.** Parrafo bakoitzak ideia desberdin bat garatzen du?

#### 2. KOHESIOA (testuaren artikulazioa)

- **Loturak.** Testu-zatien arteko erlazio logikoak (kausa-ondorioa, ordena, emendioa, aurkaritza...) adierazten dituzten lokailuak eta testu-antolatzaileak ondo erabilia daude?
- **Ordezkapenerako mekanismoak (izenordainak, erakusleak, zenbait adberbio...).** Ba al dago errakuntzarik izenordainen eta erakusleen erabileran? Elementu bat berriz aipatzeko baliabide desberdinak erabiltzen ditu ala beti berbera?

#### 3. ZUZENTASUNA

Zenbat akats morfosintaktiko, lexiko eta ortografiko larri dago?

- **Morfosintaxia / lexikoa.** Testua ulertzea galarazten duten akatsak asko dira? Hizkuntzaren arau morfosintaktiko nagusiren batean sistematikoki huts egiten du? Hitz guztiak berezko esanahiaz erabiltzen ditu beti?
- **Puntuazioa / ortografia.** Puntuazio akats larririk (punturik eza, justifikaziorik gabeko komak sujetuaren ondoren, komarik gabeko aposizioak... ) dago? Galdera eta harridura-zeinuak ondo erabiltzen ditu? Hitz arruntetan akats ortografiko larrikeria ageri da?
- **Hitzen ordena.** Esaldia osatzen duten hitzak ordena logiko eta ulergarrian ezarrita daude?

#### 4. BESTELAKOAK

- **Baliabide espresibo orokorrak.** Konplexutasun sintaktikoa; aberastasun eta zehaztasun lexikoa; idazlearen ausardia; elaborazio-maila; orijinaltasuna...
- **Errejistroa.** Ba al dago gaiarentzat baldres edo arruntegi, teknikoegi edo konplexuegi gertatzen den adierazpenik? Idazlearen tonua familiarregia, zuzenregia edo distanteregia da jasotzailea zein den kontuan harturik?
- **Idazlanaren presentazioa.** Marjinak eta lerroak zuzenak dira? Kaligrafia ulergarria da? Tilulua, atalak, parrafoak... ondo bereizirik daude?

## AHOZKO PROBA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

### 1. OSAGAI MORFO-FONETIKOA

- **Ebakera.** Fonemak ongi burutzen ditu? Erdal maileguetarako lege fonetikoak errespetatzen ditu? Ahoskera itxiegia erakusten du?
- **Azentua / Doinuera.** Nabarmena al da ama-hizkuntzaren eragina hitzen azentuan eta esaldien intonazioan? Esanahia eta doinuera bat datoz?
- **Hiato problematikoak.** -io bukaerari artikulua erasteen zuzen ahoskatzen du?

### 2. ZUZENTASUNA

- **Morfosintaxia.** Arau morfosintaktiko nagusiak (ergatiboa, aditzaren komunztadura, laguntzaile-mota, juntagailu eta menderagailu nagusiak...) ondo menderatzen ditu?
- **Lexikoa.** Hitzak dagokien esanahiaz erabiltzen ditu?

### 3. LEXIKOA

- **Aberastasuna / Zehaztasuna.** Hitz desberdin ugari erabiltzen ditu ala hitz multzo txiki batera mugatzen da? Esanahi zabalegiko berba zehazgabeak eta berba makuluak asko dira? Hitzak asmatu ezina gertatu zaio?
- **Egokitasuna.** Gaiarentzat kolokialegi edo formalegi gertatzen diren adierazpenak erabiltzen ditu?

### 4. JARIAKORTASUNA

- **Abiadura.** Astiro mintzatzen den jatorrizko hitzun baten pareko abiaduraz hitz egiten du? Diharduen abiaduragatik nekoso egiten da haria segitzea?
- **Etenaldiak.** Zalantza eta erraztasun eza salatzen duten etenak egiten ditu? Isluneak betetzeko «eee...», «mmm...» bezalako betegarriak aspergarri gertatzen dira?
- **Berrantolaketak.** Neurritz kanpoko berrantolaketak egiten ditu?

### 5. BESTELAKOAK

- **Koherentzia.** Behar diren datuak era ordenatuan eskaini ditu, informazio larregi edo gutxiegi eman gabe? Ba al dago errepikapenik edo kontraesanik esandakoen artean?
- **Baliabide espresibo orokorrak.** Konplexutasun sintaktikoa, baliabide erretorikoak, orijinaltasuna...
- **Bestelakoak.** Fonema «zailen» burutzapen zuzena.

## V.5. AKATSAK

### *Akatsen balioespena*

Azterketariek idazlanetan nahiz ahozko probetan egiten dituzten akatsak era askotakoak izaten dira: batzuk munta handikoak edo «larriak» eta beste batzuk ez hain larriak edo garrantzi gutxiagokoak. Ez dira, beraz, denak berdin baloratuko. Akats baten garrantzia hiru irizpide nagusi hauen arabera baloratuko da:

- 1. Noraino oztopatzen duen mezuaren ulergarritasuna.** Larriagoak dira gaitzuler-tuak sortzen eta mezuaren harrera galarazten dutenak ulergarritasunean ondorio-rik eragiten ez dutenak baino. Azken hauek garrantzi gutxiagokoak dira, irizpide soil honi dagokionez.
- 2. Zein den akatsak ukitzen duen hizkuntz sistemaren egitura.** Irizpide honen arabera, larriak dira oinarritzko arau morfosintaktiko edo ortografikoetan eta maiztasun handiko hitzetan egiten direnak. Maiztasun urriko hitzetan edo egitura sintaktiko konplexuago edo bitxiagoetan egiten direnak ez dira hain garrantzitsuak.
- 3. Noraino den sistematikoa.** Akats batzuk «*hutsak*» dira —iharduerazko akatsak alegia—, urduritasunak, estuasunak edo arreta faltak eragindakoak; beste batzuk, berriz, «*errakuntzak*» edo egitura morfosintaktikoren baten kontrolik ezak eragindakoak. Lehenengoak ez dira sistematikoak izaten eta, askotan, azterketariak berak zuzentzen ditu idazlana berrirakurtzean (edo esandakoaren berrantolaketak eginez, hizketan ari denean). Hauek ez dute, beraz, aparteko garrantzirik, neurritz gertatzen badira. Bigarrenak, ordea, sistematikoak izaten dira eta garrantzitsua- goak, arau morfosintaktiko, ortografiko edo lexiko-item jakin batzuen kontrol osa- gabea erakusten baitute.

### *Akatsak hizkuntz trebetasunen eta Hizkuntz Eskakizunen arabera.*

Oro har, akatsen garrantziari nahiz kopuruari dagokienez, eta Hizkuntz Eskakizun be- raren barnean, idazlanetan zorrotzago jokatuko da eta ahozko azalpenetan malguago.

Era berean, Hizkuntz Eskakizunei dagokienez, HE2an HE1ean baino zorrotzago joka- tuko da.

Ondoko tauletan idazmenean behinik behin larritzat jotzen diren hainbat akats ematen dira, adibide gisa:



## IDAZLANETAKO AKATS LARRIAK

### Hitzaren esparrua

Akatsak	Adibideak
—Kategoria gramatikalen aldaketa.	— <i>Barrez / negarrez egin (barre/negar egin)</i> <i>Bi oihuka entzun ziren</i> <i>Arrantzale nekatuta bat (arrantzale nekatu bat)</i> <i>Hobeto da horrela (hobe)</i> <i>Zu baino nekatutako nago (nekatuago)</i>
—Erdaratiko maileguen erabilera eskasa: <ul style="list-style-type: none"> <li>• a artikulua ahaztea</li> <li>• s pluralgilea erastea</li> <li>• femeninoaren -a ez ezabatzea.</li> </ul>	— <i>Pegamento bota behar dut ondo itsasteko</i> <i>Azken zentso egin dutenean...</i> <i>Botos lortzeko kanpaina</i> <i>Etiketas erabiliz</i> <i>Gimnasia moderna</i> <i>Erreakzio kimika</i>
—Hitzari ez dagokion esangura atxikitzea.	— <i>Doktoreen zenbakia (kopurua)</i> <i>Nire aitak (gurasoak)</i> <i>Zazpi seme dauzka (seme-alaba)</i>
—Euskal hitz arrunten ordeaz erdal hitzak erabiltzea.	— <i>Non daude tijerak?</i> <i>Utzi mesa gainean</i>

### Aditza

Akatsak	Adibideak
—Aditzaren komunztadura ez errespetatzea.	— <i>Gizonak ikusi dut</i> <i>Lilburu batzuk erosi zuen</i>
—Laguntzaile-mota gaizki hautatzea.	— <i>Kalean ikusi dit</i> <i>Zer ipintzen da liburuan?</i> <i>Kezkatzen zait</i> <i>Hau gaizki funtzionatzen da</i>
—Aditzaren aspektua, tempusa (hipotetikoa barne) edota modua gaizki erabiltzea.	— <i>Atzo gelan egoten ginen (egon ginen)</i> <i>Garaiz heldu nahi nuen, baina ezin dut (ezin izan dut)</i> <i>Lehen esan nuen bezala (esan dudan)</i> <i>Orain pozik egingo nuen (egingo nuke)</i> <i>Esango banioke (esango banio)</i> <i>Sartu zarete barrura! (zaitezte)</i> <i>Goaz etxera!</i>
—Ordena gaizki.	— <i>Ez nahi du etorri</i> <i>Joango behar du</i>
—Nominalizazioak gaizki egitea.	— <i>Ez daki patata tortila egitea</i> <i>Programatzera ikasi du</i> <i>Jotzera hasi da</i> <i>Mendira joan gustatzen zaio</i> <i>Etxera joatea agindu zion</i>
—Partizipioari lotzen zaion -ta atzizkiari pluralaren marka erastea.	— <i>Nekatutak gaude</i>

Deklinabidea, sintaxia...

Akatsak	Adibideak
—Determinatzailearen inguruko akatsak.	— <i>Mutila hori</i> <i>Mutilak hauek</i>
—Zenbait kasuren erabilera okerra. -(r)ik, -(r)entzat, ...	— <i>Ez daude gailetarik</i> <i>Hori gurentzat da</i>
—Izen propioak.	— <i>Nekanearekin etorri da</i>
—Bizidun / bizigabeak.	— <i>Txakurrera hurbildu</i>
—Mugagabea.	— <i>Istripurik gerta ez daitezen</i>
—-a itsatsia.	<i>Zenbait liburuak</i>
—«ere» partikularen erabilera okerrak.	<i>Edozein mutilari</i>
—-ela partikula erlatiboaren ordeaz ematea.	— <i>Tontakeri bat</i>
—zehar-galderak gaizki egitea.	<i>lau pertson</i>
—Galdera zuzenak zehar galderaren	— <i>Ere bai esan zuen</i>
-n atzizkiarekin ematea.	<i>Ekarri zuen ere... (eta antzekoak)</i>
—Hitzen ordena desegokia.	<i>Bilbon egon naiz eta Donostian ere</i>
—Subordinazio-atzizkiak gaizki eranstea.	<i>Ez dut ezer ere ez egin</i>
—Posposizioen inguruko erabilera okerrak.	— <i>Ezagutzen dut gizon bat Parisen bizi dela</i>
—Nola / nolako; Bezala / bezalako	— <i>Ez dakit zer ordu da</i>
—Beste	<i>Noiz itzuliko naizela galdetu dit</i>
—Elkar	— <i>Nola esaten den hau?</i>
—Ber- morfemaren inguruko akatsak	<i>Aizu, zer den hau?</i>
—Kopuruak / fetxak	— <i>Daukat etxe bat mendian</i>
	<i>Lokalizatzeko baserria da gehiegi</i>
	<i>Beste herriko gizon bat (herriko beste</i>
	<i>gizon bat)</i>
	<i>Ekonomiko arazoak</i>
	— <i>Dezakela / dezakeela</i>
	<i>Nuenela / nuela</i>
	— <i>Biok artean</i>
	<i>Ikasturtearen zehar</i>
	<i>Epearen kanpo aurkeztu du lana</i>
	— <i>Nola da zure etxea?</i>
	<i>Hori nirea bezala da</i>
	<i>Jon zu bezala da</i>
	— <i>Goazen beste lekura (leku batera)</i>
	— <i>Elkar egon ziren</i>
	— <i>Patxi berak kontatu du</i>
	<i>Hauteslea berari jausi zaio boto-papera</i>
	<i>Etxe bertatik irten zen</i>
	— <i>Urtarrilak 13an</i>
	<i>1900: mila bederatziehun</i>
	<i>(eta bederatziehun)</i>
	<i>erdi litro</i>

## V.6. IDAZLANETARAKO ETA AHOZKO PROBARAKO BAREMOAK

Aurreko orrialdeetan zehatz-mehatz ematen diren neurpideak ondoren datozen lau taulen bidez aplikatu behar dira; horretarako:

### *Idazlanak*

Testu idatziak ebaluatzerakoan arlo desberdinak hartuko dira kontuan: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, zuzentasuna, gaiarekiko atxikimendua, bestelakoak. Arlo desberdin horiek era integratu baten bidez ematen dira aplikatu behar den baremoan. Baremo horretan proposatzen diren mailaz mailako deskribapenak benetako ekoizpenen hurbilpentzat hartu behar dira.

Nota globala kalkulatzeko honela jokatuko da: baremoan datozen deskribapenetatik hurbilena aurkitu beharko da eta kalifikazioa horren arabera eman. Deskribatutako mailak hauexek dira: **Oso gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi**. Horrez gain, deialdi itxietan, idazlanen bat erabat apartekoa bada, **Bikain** kalifikazioa ere eman ahal izango zaio.

### *Ahozko proba*

Proba hau kalifikatzerakoan arlo desberdinak hartuko dira kontuan: osagai morfo-fo-netikoa, zuzentasuna, lexikoa, hitz jarioa, gaiarekiko atxikimendua, bestelakoak. Arlo desberdin horiek era integratu baten bidez ematen dira aplikatu behar den baremoan. Baremo horretan proposatzen diren deskribapenak benetako ekoizpenen hurbilpentzat hartu behar dira.

Nota globala kalkulatzeko honela jokatuko da: Baremoan datozen deskribapenetatik hurbilena aurkitu beharko da eta kalifikazioa horren arabera eman. Deskribatutako mailak hauexek dira: **Oso gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi**. Horrez gain, deialdi itxietan, ahozko ekoizpenen bat erabat apartekoa bada, **Bikain** kalifikazioa ere eman ahal izango zaio.

Dena dela, ezinbestekoa dugu kontuan hartzea «Nahikoa» dela baremo hauen abiapuntua. Ekoizpen bati «—idatziari zein ahozkoari— Gutxi» kalifikazioa emateko ez ditu zertan bete «Gutxi» sailean agertzen diren ezaugarri guztiak; aski izan daiteke atal batean edo bestean huts egitea.

Deialdi irekian **Gai/Ez Gai** moduan kalifikatuko da Ahozko proba.

## IDAZLANAK HE1

Deskribapena	Nota
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Testu oso ona. Simple samarra agian, baina kalitatekoa.</li> <li>— Informazio, gertaera eta argudio errelebanteak aurkezten ditu era erakargarrian; ideia nagusi nabarmenak eta ongi garatuak. Mezuaren haria erraz segitzen uzten duen testu-egituraketa logikoa.</li> <li>— Aditz-forma eta gramatika-egitura konplexuagoetan ere oso akats gutxi antzematen dira. Baliabideetan oraindik mugaturik badago ere, hizkuntz sistema zuzentasunez erabiltzeko trebetasuna erakusten du. Ortografi akats gutxi.</li> <li>— Lexiko orokorra eta eskolaren esparrukoa menderatzen ditu. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</li> </ul>	OSO ONGI
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Testu ona. Bere sinpletasunean, ongi eta erraz ulertzen da.</li> <li>— Informazio, gertaera eta argudio ongi aurkeztuak; ideia nagusi aski argiak, gehienetan ongi garatuak. Mezuaren haria esfortzu larregirik gabe segitzen uzten duen testu egituraketa egokia.</li> <li>— Aditz forma eta gramatika egitura nagusiak ongi erabiltzeaz gain testua borobiltzeko forma aberasgarriak erabiltzen ditu. Gramatika eta ortografi akatsen bat izan dezakeen arren, horiek ez dira oztopo testua ulertzeko.</li> <li>— Lexiko orokorra eta eskola-giroko berarizkoa ongi ezagutzen ditu, noizean behin mugak eta hitz desegokiak antzeman badaitezke ere. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</li> </ul>	ONGI
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Testu ona. Apartekoa eta oso-osoa izan gabe, oro har ongi ulertzen da, irakurleari eragozpen handirik sortu gabe.</li> <li>— Informazio nahikoa, ongi garatua, esanguratsua eta era egokian egituratua aurkezten du. Hala ere, ideiarene baten garrantzia edo borobiltasuna dudazkoa gerta daiteke edo datuen bat ondo lotua ez egotea.</li> <li>— Arau morfosintaktiko eta ortografiko nagusiak ondo erabiltzen ditu. Forma konplexuagoetan eta erabilera urriagoko hitzetan akatsak ager daitezke, baina ez dute gehienetan testuaren ulergarritasuna baldintzatzen.</li> <li>— Lexiko orokorra eta eskola-giroko berarizkoa ezagutzen ditu, batzuetan mugak eta hitz desegokiak antzeman badaitezke ere.</li> </ul>	NAHIKOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Irakurleak hainbat arazo du idatzitakoa ulertzeko edota sinpleegia iritzi diezaioke.</li> <li>— Informazioa, gertaerak eta argudioak aurkezten dituen arren, beraien garapena edo ideien arteko lotura desegokia izan daiteke, argitasuna edota errelebantzia falta daieke edo testuaren egituraketa eskasa izan daiteke.</li> <li>— Arau morfosintaktiko eta ortografiko nagusi gehienak kontrolatzen dituen arren, horietan ere behin baino gehiagotan huts egiten du. Hizkuntz baliabideen eskasiak nahiz gramatika eta ortografi akatsen maiztasunak gaitzulertuak edota egonezina sortaraz dezakete irakurlearengan.</li> <li>— Lexiko mugatua eta zehazgabea. Gaizki hautatutako berbak edo erdarakada nabarmenak ager daitezke.</li> </ul>	GUTXI
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Irakurleak arazo asko ditu idatzitakoa ulertzeko edota guztiz sinplea iritzi diezaioke.</li> <li>— Informazio-elementu batzuk eta zenbait gertaera eta argudio aurkeztu arren, ez da gai ideia osabeteak eta argiak adierazteko edo testuaren egituraketa eskasarengatik ezin da mezuaren haria segitu.</li> <li>— Gramatika-egitura nagusi gutxiren kontrola erakusten du. Adierazpen ohikoenetan ere akats morfosintaktiko edota ortografikoak ager daitezke.</li> <li>— Lexiko mugatua eta zehazgabea. Berba okerrak edota erdarakada nabarmenak ager daitezke. Muga nabarmena antzematen da gaia gutxieneko zehaztasunez garatzeko.</li> </ul>	OSO GUTXI

## AHOZKO PROBA HE1

Deskribapena		Nota
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Gai da ahozko zeregin arrunt gehienak erraztasunez burutzeko; solaskideak gutxitan somatzen ditu zailtasunak azterketariak bere ideiak adierazten dituenen.</li> <li>— Aditz-forma eta gramatika-egitura konplexuagoetan ere oso akats gutxi antzematen dira. Baliabideetan oraindik mugaturik badago ere, hizkuntz sistema zuzentasunez erabiltzeko trebetasuna erakusten du.</li> <li>— Lexiko orokorra eta eskolaren esparrukoa menderatzen du. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</li> <li>— Jatorrizko hitzunen abiadurara heldu ez arren, hizkera jaria kor eta uniforme a erakusten du.</li> </ul>	Doinueran ama-hizkuntzaren kutsua izan dezakeen arren, ahoskera onargarria du.	OSO ONGI
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Gai da ohiko komunikazio-egoeretan ahozko zereginak, oro har, erraztasunez eta erosotasunez burutzeko, nahiz eta solaskideak batzuetan zailtasunak somatu.</li> <li>— Aditz-forma eta gramatika-egitura nagusiak ongi erabiltzeaz gain bere ideiak borobiltzeko forma aberasgarriak erabiltzen ditu.</li> <li>— Lexiko orokorra eta eskola-giroko berarizkoa ongi ezagutzen ditu, noizean behin mugak eta hitz desegokiak antzeman badaitezke ere. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.</li> <li>— Hizkera oraindik motela, baina nahiko erregularra, solaskidearengan oso gutxitan egonezina sortzen duena.</li> </ul>		ONGI
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Gai da elkarrizketan parte hartzeko, gertaerak eta esperientzia pertsonalak komunikatzeko eta bere iritziak adierazteko, nahiz eta batzuetan solaskideak zailtasun handiak somatu. Hala ere, gehienetan, komunikazioa aurrera ateratzen du.</li> <li>— Arau morfosintaktiko nagusiak, oro har, zuzentasunez erabiltzen ditu, eta batzuetan forma aberasgarriak ere bai. Inoiz akats larriak eta txikiak antzeman badaitezke ere, akatsok ez dute mezuaren ulermena eragozten.</li> <li>— Gai orokorre i eta eskola-girokoe i buruzko lexiko aski garatua, batzuetan mugak eta hitz desegokiak (txarto hautatutakoak, erdarakadak etab.) antzeman arren.</li> <li>— Hizkera askotan motela eta ez uniforme a erakuts dezake, baina ez solaskidea aspertarazterainokoa.</li> </ul>	Gehienetan ondo ahozkatzen du. Baliteke zenbait fonema gaizki burutzea eta azentuan eta intonazioan ama-hizkuntzaren eragin handia izatea.	NAHIKOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Zailtasun handiak elkarrizketan parte hartzeko. Nahiz eta gertaerak, esperientzia pertsonalak eta iritziak nola edo hala adierazteko gauza izan, darabiltzan hizkuntz baliabideen eskasiak askotan zapuzten du komunikazioa eta ez dio biderik ematen azalpen edo arrazonamendu luzexkak egiteko.</li> <li>— Egitura nagusi batzuk ondo menderatzen baditu ere, beste asko ez ditu ondo kontrolatzen edo akats larri etengabeek gaitzulertuak eragiten dituzte maiz solaskidearengan.</li> <li>— Lexiko mugatua eta zehazgabea. Gaizki hautatutako berbak edo erdarakada nabarmenak ager daitezke.</li> <li>— Hizkera oso motela eta irregularra; etenaldi eta berrantolaketa ugari.</li> </ul>	Baliteke mezuaren ulermenerako arazo diren zenbait fonemaren burutzapen «bitxiak» agertzea edo gaztelaniaren mendeko doinuera erakustea.	GUTXI
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Zailtasun ia gaindiezina elkarrizketan aritzeko eta bere iritziak edota jarrera pertsonala adierazteko, nahiz eta esaldi solte batzuk ongi burutu. Baliteke gertaeraren bat edo bere esperientzia pertsonalarekin zerikusia duten zenbait kontu jakinetan nolabaiteko trebetasuna erakustea.</li> <li>— Oso hizkuntza sinplea erabiltzen du edo akatsak oso ugari eta sistematikoak dira.</li> <li>— Oinarri-oinarrizko lexikora mugatzen da. Berba okerrak, mailegu bitxiak edota erdarakadak maiz erabil ditzake. Muga ia gaindiezina erakusten du esan nahi duena gutxieneko zehaztasunez adierazteko.</li> <li>— Hizkera oso motela, zatikatua eta oso irregularra, komunikazioa erabat zailtzen duena.</li> </ul>		OSO GUTXI

## IDAZLANAK HE2.

Deskribapena	Nota
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Testu borobila, ia inolako zailtasunik gabe irakurtzen dena.</li> <li>— Informazio, gertaera eta argudio errelebanteak aurkezten ditu era erakargarrian; ideia nagusi nabarmenak eta ongi garatuak. Mezuaren haria erraz segitzen uzten duen testu egituraketa logikoa.</li> <li>— Ez dago lexiko, ortografia, puntuazio eta gramatika-akats larririk; idazlanak hizkuntz sistema ia erabateko zuzentasunez erabiltzeko gaitasuna erakusten du.</li> </ul>	OSO ONGI
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Testu oso ona eta landua, irakurlearengan oso gutxitan zailtasunak eragiten dituen.</li> <li>— Informazio, gertaera eta argudio ongi aurkeztuak; ideia nagusi aski argiak, gehienetan ongi garatuak. Mezuaren haria esfortzurik gabe segitzen uzten duen testu egituraketa egokia.</li> <li>— Irakurleak akats txikiak eta —oso noizbehinka— larriren bat soma ditzake; nolabaiteko limitazioak soma daitezke hizkuntz sistema zuzentasunez erabiltzeko.</li> </ul>	ONGI
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Testu ona eta landua, zenbaitetan irakurlearengan zailtasunen bat sor dezakeena.</li> <li>— Informazioa, gertaerak eta argudioak egokiro aurkeztu eta garatzen ditu, nahiz eta irakurleari zenbaitetan kosta dakioken ideia nagusiak berorien euskarri direnetatik bereiztea; zenbaitetan gerta liteke ideiak arrazoiturik ez egotea. Testu-egituraketa nahikoa mezuaren haria segitzeko.</li> <li>— Irakurleak lexiko, ortografia eta gramatikaren aldetik akatsak eta hizkuntz sistemaren erabilera nolabait mugatua somatu arren, honek guztiak ez du gehienetan testuaren ulergarritasuna oztopatzen.</li> </ul>	NAHIKOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Irakurleari eragozpenak sortarazten dizkion testua; elaborazio-maila bat erakusten badu ere, irakurleak batzuetan arazoak ditu idatzitakoa ulertzeko.</li> <li>— Informazioa, gertaerak eta argudioak aurkezten ditu, baina askotan argitasun eta euskarri eskasarekin; ideien arteko lotura desegokia eta iluna izan daiteke edota testu egituraketa eskasa; zailtasunak mezuaren haria segitzeko.</li> <li>— Lexikoaren, ortografiaren eta gramatikaren erabilera desegokia, irakurlearengan zenbaitetan interferentziak eta gaitzulertuak sortarazten dituena.</li> </ul>	GUTXI
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Irakurleari eragozpen handiak sortarazten dizkion testua; nahiz eta testua oso sinplea ez izan, irakurleak askotan arazoak ditu idatzitakoa ulertzeko.</li> <li>— Informazio-elementu batzuk eta zenbait gertaera eta argudio aurkeztu arren, ez da gai ideia osabeteak eta argiak adierazteko. Gerta liteke testu-egituraketa argirik ez egotea eta mezua segitu ezin izatea.</li> <li>— Irakurleak berehalaxe antzematen du lexiko, ortografia eta gramatika-akats larri ugari, eragozpen handiak sortarazten dizkiotenak.</li> </ul>	OSO GUTXI

## AHOZKO PROBA HE2

Deskribapena	Nota
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Ez du inolako eragozpenik azalpen konplexuak egiteko edo bere ideiak xehetasunez adierazteko.</li> <li>— Euskara batuan diharduen jatorrizko hitzunarekin pareka daitekeen ahoskera.</li> <li>— Oso akats gutxi eta gehienak iharduerazkoak eta ez-sistematikoak.</li> <li>— Lexiko zabala eta zehatza, bai bere lanbideari dagozkion gaietan bai gai orokorrei dagozkienetan.</li> <li>— Mintzagai orokorretan nahiz bere lanbideari dagozkienetan, jatorrizko hitzunarenera asko hurbiltzen den hizkera jariakor eta uniforme.</li> </ul>	OSO ONGI
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Bere lanbideari dagozkion ahozko zeregin guztiak erraztasunez egiten ditu.</li> <li>— Euskara batuan diharduen jatorrizko hitzunarenera asko hurreratzen den ahoskera.</li> <li>— Noizean behingo akatsak; egitura bakan batzuen kontrol osagabea, baina ez gaitzulertu larriak eragiteko bestekoak.</li> <li>— Bere lanbideko nahiz ohiko gizarte-harremanetako gaietan lexiko zabala eta zehatza darabil aparteko arazorik gabe, nahiz eta noizbait zailtasunak somatu eta egiten duen aukera egokiena ez izan.</li> <li>— Hizkera jariakor eta uniforme, nahiz eta nabaria izan jatorrizko hitzuna ez dela; inoiz edo behin zalantzati ager daiteke; hitzak bilatu beharrak eta esanaren birformulazioak etenak eta desorekak sor ditzakete.</li> </ul>	ONGI
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Irakaslanak oro har eskatzen dituen ahozko zereginak burutzeko gai da, baita ideia konplexu samarrak adierazteko ere.</li> <li>— Ahoskera gehienetan onargarria jatorrizko hitzunarentzat; fonemak ondo burutzen ditu; azentuan eta intonazioan ama-hizkuntzaren eragina izan dezake.</li> <li>— Zulentasunez hitz egiten du, noizik behin mezuaren ulermena oro har eragozten ez duen akats morfosintaktiko larriren bat izan dezakeen arren.</li> <li>— Lexiko orokor aberatsa; bere lanbideari dagozkion gaietan lexiko zabala eta zehatza erakusten du, nolabaiteko muga soma badaiteke ere; noizbehinka asmatu ezina gerta liteke edo dagokion euskal hitzaren orde z erdaratik mailegatutakoaz baliatu beharra.</li> <li>— Hizkera jariakor eta uniforme, ez jatorrizko hitzunarena adinakoa, baina honek onargarritzat joko lukeena.</li> </ul>	NAHIKOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Ideia konplexuak adierazteko zailtasun nabariak ditu.</li> <li>— Zenbaitetan ahoskera ez onargarria, nahiz eta entzuleak esaten zaiona gehienetan erraz ulertu ahal izan; gerta liteke zenbait fonema gaizki burutzea; azentuan eta intonazioan ama-hizkuntzaren eragin nabaria erakuts dezake.</li> <li>— Arau morfosintaktiko nagusi gehienak kontrolatzen baditu ere, akats txiki eta larriek eragozpenak eta gaitzulertuak sortarazten dituzte solaskidearengan.</li> <li>— Lexiko mugatua; zailtasunak hitzak aukeratzeko; gaia aurrera ateratzeko besteko hitz errepertorioa erakusten badu ere, muga nabariak somatzen dira bereziki alde aurretik prestatu gabeko topikoez aritzen denean.</li> <li>— Hizkera askotan motela eta irregularra entzulearengan egonezina sortaraz dezakeena; zalantzati agertzen da eta noiz behinka komunikazioa eten ere egin daiteke.</li> </ul>	GUTXI
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Ahozko azalpen traketsa edo nekagarria solaskidearentzat.</li> <li>— Baliteke mezuaren ulermenerako arazo diren zenbait ahoskatze «bitxi» agertzea edo gaztelaniaren mendeko azentua eta intonazioa erakustea.</li> <li>— Oinarriko aditz-forma eta gramatika-egituretan ere akatsak antzematen dira. Arau morfosintaktiko askoren kontrol osagabea. Komunikazioa maiz galarazten dezaketen akats txikiak eta larriak.</li> <li>— Lexiko murrizta: oinarriko hiztegi mugatzen da; alor honetan erakusten duen gabeziak ez dio biderik ematen bere lanbideari dagozkion gaietan gutxieneko zehaztasun, sakontasun eta zabaltasunez euskaraz aritzeko.</li> <li>— Hizkera irregularra eta motelegia, esaldi laburretan izan ezik; oso zalantzati.</li> </ul>	OSO GUTXI





## **VI. ERANTZUNAK**



## VI.1. DEIALDI IREKIKO ERANTZUNAK

Bigarren deialdi itxiko erantzunak ere hauexek izan ziren, deialdi irekikoak berberak alegia. Deialdi itxian, halere, ez zen Aukera anitzeko Galdekizunik izan.

HE1: AAG

1	<b>B</b>	11	<b>C</b>	21	<b>C</b>	31	<b>C</b>	41	<b>B</b>	51	<b>B</b>	61	<b>B</b>
2	<b>C</b>	12	<b>B</b>	22	<b>C</b>	32	<b>A</b>	42	<b>A</b>	52	<b>C</b>	62	<b>D</b>
3	<b>B</b>	13	<b>B</b>	23	<b>D</b>	33	<b>C</b>	43	<b>D</b>	53	<b>B</b>	63	<b>C</b>
4	<b>B</b>	14	<b>C</b>	24	<b>A</b>	34	<b>B</b>	44	<b>D</b>	54	<b>C</b>	64	<b>D</b>
5	<b>D</b>	15	<b>D</b>	25	<b>B</b>	35	<b>C</b>	45	<b>D</b>	55	<b>D</b>	65	<b>D</b>
6	<b>C</b>	16	<b>A</b>	26	<b>A</b>	36	<b>B</b>	46	<b>B</b>	56	<b>B</b>	66	<b>A</b>
7	<b>B</b>	17	<b>B</b>	27	<b>B</b>	37	<b>C</b>	47	<b>D</b>	57	<b>C</b>	67	<b>D</b>
8	<b>D</b>	18	<b>D</b>	28	<b>A</b>	38	<b>D</b>	48	<b>B</b>	58	<b>A</b>	68	<b>C</b>
9	<b>C</b>	19	<b>C</b>	29	<b>D</b>	39	<b>C</b>	49	<b>A</b>	59	<b>C</b>	69	<b>B</b>
10	<b>B</b>	20	<b>B</b>	30	<b>A</b>	40	<b>A</b>	50	<b>C</b>	60	<b>B</b>	70	<b>D</b>

HE1: Ahozkoaren ulermena

I. zatia (Albiste bitxiak)

### A eredua

	egia	gezurra
1	X	
2		X
3		X
4		X
5	X	

II. zatia (Dalai Lama)

1	B
2	C
3	D
4	C
5	A

HE1: Irakurmena (Susana Villanueva)

**A eredua**

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
<b>G</b>	<b>A</b>	<b>C</b>	<b>D</b>	<b>F</b>	<b>B</b>	<b>J</b>	<b>E</b>	<b>I</b>	<b>H</b>

HE2: AAG

1	<b>D</b>	11	<b>B</b>	21	<b>B</b>	31	<b>B</b>	41	<b>D</b>	51	<b>D</b>	61	<b>C</b>
2	<b>D</b>	12	<b>A</b>	22	<b>C</b>	32	<b>C</b>	42	<b>B</b>	52	<b>C</b>	62	<b>D</b>
3	<b>B</b>	13	<b>B</b>	23	<b>D</b>	33	<b>B</b>	43	<b>D</b>	53	<b>A</b>	63	<b>D</b>
4	<b>C</b>	14	<b>C</b>	24	<b>A</b>	34	<b>D</b>	44	<b>A</b>	54	<b>D</b>	64	<b>C</b>
5	<b>A</b>	15	<b>D</b>	25	<b>A</b>	35	<b>A</b>	45	<b>C</b>	55	<b>B</b>	65	<b>B</b>
6	<b>D</b>	16	<b>D</b>	26	<b>C</b>	36	<b>D</b>	46	<b>B</b>	56	<b>C</b>	66	<b>C</b>
7	<b>C</b>	17	<b>D</b>	27	<b>D</b>	37	<b>C</b>	47	<b>C</b>	57	<b>B</b>	67	<b>B</b>
8	<b>B</b>	18	<b>B</b>	28	<b>A</b>	38	<b>B</b>	48	<b>B</b>	58	<b>C</b>	68	<b>C</b>
9	<b>D</b>	19	<b>A</b>	29	<b>C</b>	39	<b>A</b>	49	<b>C</b>	59	<b>C</b>	69	<b>A</b>
10	<b>D</b>	20	<b>C</b>	30	<b>D</b>	40	<b>B</b>	50	<b>B</b>	60	<b>A</b>	70	<b>C</b>

HE2: Irakurmena (Setien)

**A eredua**

1	2	3	4	5
<b>B</b>	<b>C</b>	<b>D</b>	<b>A</b>	<b>D</b>

6	7	8	9	10
<b>D</b>	<b>C</b>	<b>D</b>	<b>D</b>	<b>A</b>

## VI.2. DEIALDI ITXIKO ERANTZUNAK

Hemen lehen deialdi itxiko erantzunak biltzen dira. Bigarren deialdi itxiko erantzunak deialdi irekikoak berberak izan ziren, AAGkoak kenduta.

HE1: Ahozkoaren ulermena (Intsumisoa )

	BAI	EZ
1		X
2	X	
3		X
4	X	
5	X	

	BAI	EZ
6		X
7		X
8		X
9	X	
10		X

HE1: Irakurmena (Galtxagorri)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
<b>B</b>	<b>H</b>	<b>A</b>	<b>I</b>	<b>D</b>	<b>G</b>	<b>C</b>	<b>J</b>	<b>E</b>	<b>F</b>

HE2: Irakurmena (Zorionaren zutoinak)

1. *Horregatik ezin dugu katea hori osatu: egoera gardena, ondorio guztiak aldez aurretik jakinak.*
2. *Hainbeste informazio eskatzen duen informazioa ez da, inola ere, ekonomikoa.*
3. *Helburua bera da beti: zapalduta dagoen identitate nazional, etniko edo kulturala berreskuratzea.*

4. *«Giza jardueraren eraginez ari al da handitzen atmosferako karbono-oxidoaren proportzioa? ».*
5. *Kulturak alderatzean, kultura bakoitza homogeen bezala hartzeko joera dago gaur egun.*
6. *Gure ustez bagenituen formula magikoak, toki eta egoera guztietarako berberak.*
7. *Zenbait gizaki ez da honetaz konturatzen: ez datozela bat berea eta logika nagusia, eta horrek kalte egiten diola heziketan eta lanean.*
8. *Askatasuna nahi du, autosufizientzia, arbitrarietatea, subjektibotasuna eta menpekotasuna.*
9. *Korronte garrantzitsuenek distantzia luzeetan zehar oso ur kopuru handiak eramaten dituzte.*
10. *Eztabaida sutsu baten ondoren, zazpi puntuko Karta bat ari dira egiten, balio ofiziala izango duena.*

## **VII. ERASKINAK**





## VII.1. ESTADÍSTIKA-LABURPENA

### DEIALDI IREKIA

	HE1	HE2
Aurkeztuak	2.389	2.633
Atariko gainditu	1.810	1.452
Idatzia gainditu	1.487	948
Ahozkoa gainditu	1.298	755
Gainditze-tasa	54,0	28,7

#### 1. DEIALDI ITXIA

	HE1	HE2
Aurkeztuak	323	319
Gaindituak	229	187
Gainditze-tasa	70,9	58,6

#### 2. DEIALDI ITXIA

	HE1	HE2
Aurkeztuak	311	411
Gaindituak	211	233
Gainditze-tasa	67,8	56,7



## VII.2. ARAUZKO XEDAPENAK

### VII.2.1. Lehen zehaztapena

**47/1993 DEKRETUA, martxoaren 9koa, irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derri-gortasun-egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena. (apirilaren 2ko EHAA)**

(.....)

#### II. ATALBURUA. HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

2. *atala*.— Lanpostua lortzeko eta bertako lana betetzeko beharrezko diren euskararen ezagutza mailek finkatutakoa da irakaspostuetako hizkuntza eskakizuna.

Hizkuntza eskakizuna finkatzeko, izaera orokorreko hizkuntza trebetasunak sartuko dira (ahozko eta idatzizkoaren ulermena edo adierazpena), baita 4. eta 5. ataletan adierazitako helburuak beteko direla bermatzeko izan eta zuzenean irakaskuntzarekin lotuta daudenak ere.

3. *atala*.— Irakaspostuei ezarriko zaizkien hizkuntza eskakizunak bi dira: 1. hizkuntza eskakizuna eta 2. hizkuntza eskakizuna.

1. hizkuntza eskakizuna ez euskarazko ez euskaraz irakaskuntzak ematen ez dituzten irakasleek betetako irakaspostuei ezarriko zaie, baina euskara zerbitzu hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntza gaitasuna bermatuko da. 2. hizkuntza eskakizuna euskarazko edo euskaraz irakaskuntzak ematen dituzten irakasleek betetako lanpostuei ezarriko zaie, eta euskara zerbitzu hizkuntza eta irakaskuntza hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntza gaitasuna bermatuko da.

4. *atala*.— 1.HE-ko eskakizunarekin, besteak beste, dena delako irakaslea honako honetarako izango da gai:

- ikasleekin bakarka edo taldean irakaskuntza iharduerarekin zerikusia duten gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: besteak beste, jokabide, motibazio, ikasketetan lortutako emaitza, beste ikasle batzuekin eta irakasleekin izandako arazo eta ikasketak egiteko familiako giroaz aritzeko;
- ikasleekin bakarka edo taldean beren adineko arazoekin eta interes bereziekin zerikusia duten gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: familiako arazo, adiskidetasuna, nortasuna, zein bere heldutasunerako bidean izan dezaketen beste edozein arazoz aritzeko;
- gurasoekin, irakasleekin eta hezkuntza administrazioko langileekin, hizkuntza maila egokian nahiz eta tekniko ez izan, honako gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: eskolaren funtzionamendu, helburu, pedagogiako jokabide, ikasturteko egitarau, ikastaroari eta zehazki ikasleari buruzko iritzi, eskolako orduko eta orduz kanpoko iharduera, ebaluaketarako irizpide, lortutako emaitza eta, orokorrean, pedagogia lanari eta ikastetxearen funtzionamenduari buruzko gaietaz aritzeko.

5. *atala*.— 2. HE-ko eskakizunarekin, besteak beste, dena delako irakaslea honako honetarako izango da gai:

- 1. HE-rako zehaztutakoa euskaraz egiteko;
- bere ikasgaiko edo alorreko irakaskuntzak ikasleei, bai bakarka, zein taldeka, euskaraz emateko, dela azalpen majistrala eginez, zein gelan eztabaida sortuaz eta jasotako galderei erantzunez;
- eskolak prestatzeko edo ikasleek irakurtzeko probetxugarriak izan daitezkeen euskarazko argitalpenak, programa ofizialak, testu liburuak, kontsulta liburuak, artikuluak eta abar ulertzeko;
- irakasgaiarekin zerikusia izanik eskolak prestatzeko probetxugarria izan daitekeen ahozko materiala euskaraz ulertzeko (besteak beste, pelikulak, bideoak, zintak, irrati programak);
- programa orokorrak eta bakoitzaren alorreko programazioa euskaraz idazteko;

- eskolak emateko fitxak, apunteak, materialak, ariketak, ebaluazioko ariketak eta abar euskaraz idazteko;
- ariketen zuzenketa, txostenen idazketa eta ikasleen lana baliostatzeko beste edozein iharduera euskaraz egiteko.  
(.....)

## VII.2.2. Ebaluazio-irizpideak

**AGINDUA, 1994ko urtarrilaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Irakaslegoaren Euskalduntze Alfabetatzerako IRALE Programaren ebaluazio-bidea arautu eta irakasleen hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko probak edukinez eta formaz zehazten dituen. (urtarrilaren 26ko EHAA)**

(.....)

### I ERASKINA

#### 1. HE1 EGIAZTATZEKO EBALUZIO-IRIZPIDEAK

Hizkuntz eskakizunak zedarritzeko irizpideak finkatzen dituen 47/1993 Dekretuak ezartzen dituen hizkuntz gaitasunen arabera HE1 egiaztatu ahal izateko honako ebaluazio-irizpide hauek erabiliko dira:

A) Gaitasuna frogatu behar deneko hizkuntz egoerei dagokienez.

Irakasle-ikasketariak HE1 egiaztatuko badu, eskola-inguruan, hau da, eskolan ohizko diren egoeretan hizkuntz gaitasuna baduela erakutsi beharko du, konkretuki ikasleekiko elkarrizketan (banaka nahiz taldean), gurasoekin, gainerako irakasleekin eta Hezkuntza Administrazioako pertsonalarekin dituen harremanetan.

B) Komunikazio-gaiei dagokienez

B.1. Ikasleekiko elkarrizketan

— Irakaslanarekin zerikusirik duten gaietan: ikasleen jokaera, motibazioa, eskola-lorpena, beste ikasle eta irakasleekin izan ditzaketen bestelako arazoak eta etxean duten ikas-giroa, besteak beste.

— Ikasleek, zein bere adinean, dituzten arazo eta interesekin loturik dauden gaietan: familiako, lagunekiko nahiz nortasun-arazoetan; era berean heldute-prozesuan izan dezaketen beste edozein alderdi esanguratsu.

B.2. Beste irakasleekin, ikasleen gurasoekin eta Hezkuntza Administrazioako pertsonalarekin dituen harremanetan.

— Eskolarekin loturik dauden gaietan: pedagogiazko helburu eta orientabideak, ikasturtearen programazioa, ikasturteari buruzko iritzia orohar eta ikasle bakoitzari buruzkoa, eskola barneko nahiz eskolaz kanpoko ekintzak, neurketa-irizpideak, lortutako emaitzak eta, orohar, pedagogia-lanarekin eta ikastegiaren funtzionamenduarekin loturik dauden gaietan.

C) Hizkuntz trebetasunei dagokienez.

1. Kanal anitzetik igorritako ahozko testuetako informazio nagusia jasotzea.

Irizpide honen bidez ahozko mezuetan dauden oinarritzko ideiak ulertu diren ala ez egiaztatu nahi da. Komeni da, horretarako, eskola-inguruan ohizkoak diren hizkuntz egoeretan erabili diren testuak erabiltzea.

2. Eskola-inguruan ohizkoak izanik eta orohar irakaslanarekin loturik dauden gaiei buruzko testu idatzietako informazio nagusia beste inoren laguntzarik gabe antzematea.

Irizpide honekin ikasketariak zailtasun-maila eta luzera desberdinetako testu idatzietatik informazioa jasotzeko duen gaitasuna neurtu nahi da, beti ere luze-zabalean erabilgarri diren testuetan: aktak, zirkularrak, jakinarazpenak, eskutitzak, buletinak, ikasmaterialak...

3. Testu idatzi nahiz ahozkotan daudekeen hizkuntz elementu ezezagunen eta informazio inplizituen esanahia deduzitzea.

Irizpide hau aurreko beste biek loturik dago. Ikasketariak testu idatzi eta ahozkoak zenbateraino ulertzeko gai den neurtu nahi da. Arreta berezia hartuko da ikasketaria testuan ezagutzen ez dituen hiz-

kuntz elementuen esanahia bereganatu eta egiaztatzeko gai den ala ez neurtzerakoan, horretarako testuingurua, bere kultur jakituria, prozedura analitiko eta etimologikoak edo bestelako baliabideak erabiliz, adibidez benetan ulertu den egiaztatzeko testuan atzera egitea edo kontsulta-materiala erabiltzea. Era berean testuinguruagatik elementu inplizituak ateratzeko edo testuaren hitzez hitzezko esanahiaz haratago ulertzeko duen gaitasuna (igorleak izan dezakeen zeharbidezko intentzioa, ironia...).

4. Aldez aurretik zehaztu gabeko elkarrizketa informaletan parte hartu ahal izatea eta eskola-inguruaz edo irakaslanari buruzko gaien inguruko aurrez prestatutako eztabaidetan esku hartu ahal izatea.

Irizpide honen bidez ikasketariak dituen ideiak argiro antolatu eta adierazteko eta hartzaileak ulertzen duen eta egoera eta helburuari egokia zaion diskurtsoa produzitzeko duen gaitasuna neurtu nahi da. Era berean, ikasketarien ahozko adierazpena zuzentasunaren aldetik neurtuko da, eta mintzajardunean etenik gerta ez dadin lagunduko zaio: galderak eginez, argudioak emanez, txandaka mintzatuz...

5. Era askotako hartzaileei (lankide, guraso, ikasleak) egokitutako testu sinpleak idazteko gai izatea, komunikazio-intentzio desberdinak dituztelarik, zalantzak argitzeko kontsulta-materialak erabiliz.

Irizpide honekin bilatzen da ikasketariak bere irakaslanean dituen hizkuntza egoera arruntei egokitzen zaizkien testu sinpleak idazteko gauza den ala ez egiaztatzea. Erregistro egokia aukeratu behar du, horretarako, zuzentasunez, ortografia-arauak errespetatuz eta testuari barne-lotura eta koherentzia emanez. Ikasketariak, halaber, laguntzarako materialak erabiltzen jakin behar du lexiko eta ortografiako zalantzak argitu ahal izateko.

6. Eskuratutako hizkuntz ezagupenak erabiltzeko gai izatea, ikasprozesuan autonomia indartzeko autozuzenketa-prozedura zenbaitez baliatuz.

Irizpide honen bitartez neurtu nahi dena zera da: ikasketariak berak edo bere lankideek egin ditzaketen akatsak, ahoz nahiz idatziz, identifikatzeko, eta, zenbaitetan, zuzentzeko gai den ala ez.

## 2. HE2 EGIAZTATZEKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Hizkuntz eskakizunak zedarrizteko irizpideak finkatzen dituen 47/1993 Dekretuak ezartzen dituen hizkuntz gaitasunen arabera HE2 egiaztatu ahal izateko honako ebaluazio-irizpide hauek erabiliko dira:

A) Gaitasuna frogatu behar deneko hizkuntz egoerei dagokienez.

Irakasle-ikasketariak HE2 egiaztatzeko badu, eskola-inguruan, hau da, eskolan ohizko diren egoeretan hizkuntz gaitasuna baduela erakutsi behar du, konkretuki ikasleekiko elkarrizketan (banaka nahiz taldean) eta gurasoekin, gainerako irakasleekin eta Hezkuntz Administrazioako pertsonalarekin dituen harremanetan. Orobat, eta oroz gain, bere gaia edo arloa euskaraz irakasteko gai dela erakutsi behar du.

B) Komunikazio-gaiei dagokienez.

Irakaslanarekin ikasleek dituzten arazo eta interesekin eta eskolako jardunarekin loturik dauden gaiez gainera —Eraskin honetako HE1-i buruzko atalean ezarri den bezalaxe— ikasketariak HE2 egiaztatuko badu bere jakintzagai edo arloa azaltzeko trebetasuna erakutsi behar du.

C) Hizkuntz trebetasunei dagokienez.

1. Ahozko edozein testutako ideia nagusiak eta berriazko informazioa jaso eta horren edukia ahoz nahiz idatziz adieraztea.

Irizpide honen bidez zera neurtu nahi da: erabilpen-esparru desberdinetan (giza-harremanak, komunikabideak, Administrazioarekiko harremanak, ikasgelan erabiltzen den hizkuntza...) benetan erabiltzen diren testuen nondik norakoaz eta bigarren mailako informazioaz jabetu diren ala ez; testuak

beti ere aktualitatea, kultura, irakaslan orohar hartuta edo irakaslearen jakintza gaiarekin zerikusia duten gai bereziagoak izango dute ardatz; irakaslea, honenbestez, informazio hori kritikoki analisatu, berrantolatu eta bere ekoizpenetan erabiltzeko gai izango da, ahoz nahiz idatziz.

2. Ikasleak darabilen hizkera estandarretik asko urruntzen ez den euskalki batean ekoiztutako ahozko testuetako nagusiki zein gai azaltzen diren ulertzea.

Ikaslearen ikastetxea kokaturik dagoen eskualdeko euskalkian ahoz ekoiztutako testuak orohar ulertzen dituen ala ez neurtu nahi da. Hizkera estandarretik oso urrun ez dauden benetako edo egokitutako testuetan adierazitako ideia nagusiak eskuratu dituen egiaztatu nahi da. Testu horiek eskola-ingururik atereak izango dira.

3. Era askotako testu idatzietako informazio nagusiaz eta xehetasunez jabetzea, informazio inplizitua eratorriz. Kalitate eskaseko testuak direnean, akatsak, koherentzia-ezak, e.a. antzematea, bai edukiari bai alderdi formalagoei (ortografia, zuzentasuna...) dagokienez, testu horiei buruzko bere iritzia azalduz.

Irizpide honen bidez ikasketariak bere irakas-jardunarekin loturik dauden testu idatziak ulertzeko bereganatu duen trebezia neurtuko da, testuan ezezagun gerta dakizkikeen elementu esplizituak testuinguruagatik zuzen interpretatzeko eta hitzez hitzeko esanahiaz haratago ulertzeko duen gaitasuna kontuan hartuz. Era berean, bere ikasleek kalitate eskasaz ekoiztutako testuak kritikoki irakurtzeko eta behar izanez gero testuok hobetzeko orientabideak (akatsen zuzenketa, testuaren egokitzapena, e.a.) emateko gaitasuna zenbateraino bereganatu duen begiratuko da.

4. Bere jakintza-gaiarekin loturik dagoen gai bati buruzko azalpena egitea. Argi eta era ordenatuan mintzatuz, aurrez prestatutako eskema edo gidoia garatuz, informazioa eta argudioak era logikoan aurkeztuz, egiten zaizkien galderei erantzunez, irakasmaila bakoitzak (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza...) eta irakaskuntza-arlo bakoitzak dituzten ezaugarri eta berezko formak kontuan hartuz.

Irizpide honekin ikasketariak aurrez erabakitako eskema edo gidoia erabiliz bere jakintzagaiari buruzko gai baten inguruan dituen ideiak antolatu eta era logikoan azaltzeko eskuratutako gaitasuna zenbaterainokoa den neurtu nahi da, horretarako hizkera jariakor eta zuzena erabiliko duelarik. Orain esandakoaz gain bere hizkeraren zehaztasuna, ebakera eta egiten zaizkion galderei ihardestean emandako erantzunak egokiak diren ala ez ebaluatuko da, bere irakasmailak eta beren arloan dituzten berezko ezaugarriei atxekiz.

5. Elkar-eraginezko elkarrizketetan parte hartzea, eskola barneko munduaz nahiz eskolaz kanpoko diharduten gaien inguruko informazio egokia emanez, bere ikuspuntu eta iritzia azalduz, arrazoi-tuz eta defendatuz eta komunikazio-egoeraren aldaera desberdinei egokituz.

Irizpide honen bidez eskola-giroko informazioa (adibidez errendimendua, ikaslearen jarrera, ikastetxearen funtzionamendua, programen egokitzapena...), eskolaz kanpokoa (eguneroko bizimodua, aktualitatea) eta komunikazio-egoera desberdinei buruzkoa (elkarrizketa arrunta, klaustro edo bestelako bilerak) azaltzeko gai den ala ez neurtu nahi da. Bere ahozko ekoizpenaren zuzentasuna, zehaztasuna, jariotasuna eta ebakera; gaiarekiko atxekimendua hiztegiaren aldetik; era logiko eta egituratuaz dituen iritzia azaldu eta bere hizkera komunikazio-egoera desberdinei egokitzeko gaitasuna neurtuko da (solaskide-kopurua, komunikazio-intentzioa eta testuinguruko beste elementu batzuk).

6. Zuzentasunez eta hartzaileri ulergarri gertatzen zaion eran testu-mota desberdinak (argibideak, oharra, aktak, txostenak, eskutitzak...) eta bere arlo edo jakintza-gaiarekin loturik dauden ikasmaterialak (fitxak, apunteak, eskemak, neurketa-probak...) erredaktatzea, iturri anitzeko informazioa integratuz eta testuari barne-lotura ematen dioten baliakideak (lokailuak, aditz tempusak, e.a.) erabiliz.

Iturri idatzi nahiz ahozkoetatik informazioa jaso, sintetizatu eta era egokian idatziz aurkezteko gauza den neurtu nahi da. Ikasketariak, hortaz, bere jakintza-gaiarekin loturik dauden euskarazko materiala ezagutu eta erabili beharko du. Ekoizten dituen testuetan hizkera idatziaren egokitasuna, koherentzia eta barne-loturazko baliabideen erabilera egokia eta zuzentasuna, hiztegi-aberastasuna eta zehaztasuna eta ortografia-arauak errespetatzen dituen ala ez ebaluatuko da.

7. Ikasketariak eskuratutako ezagupen linguistiko, soziolinguistiko, estrategiko eta diskurtsiboak erabiltzea, antozuzenketazko prozedurak zorrotz erabiliz.

Elementu linguistiko eta diskurtsiboak (menpeko perpausak, nominalizazioak, bere arloari dagokion lexiko berezia, lokailuak) ezagutu eta erabiltzean eskuratutako heldutasun-maila neurtu nahi da. Kalitate oneko hizkuntz ekoizpena burutu eta behar izanez gero hobetu, eta berak edo bere lankideren batek, ahoz nahiz idatziz, egin ditzakeen akatsak identifikatu eta zorrotzasunez eta kritikoki zuzentzeko gai izango da.

(.....)



## VII.2.3. Deialdi itxien kalifikazio-sistema

AGINDUA, 1995eko apirilaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, IRALE programan liberatuta dauden irakasleen hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko azterketen kalifikazio-sistema arautzen duena. (maiatzaren 11ko EHAA)

(.....)

1. atala.— HE1eko azterketaren zati eta ariketa desberdinak era honetan puntuatuko dira:

1. Idatzizko zatia:

- Ahozkoaren ulermena: 0tik 5 puntura
- Irakurriaren ulermena: 0tik 5 puntura
- Idazlan laburra: *Oso Gutxi*-ri puntu 1 dagokio  
*Gutxi*-ri 2 puntu dagozkio  
*Nahikoa*-ri 4 puntu dagozkio  
*Ongi*-ri 6 puntu dagozkio  
*Oso Ongi*-ri 8 puntu dagozkio  
*Bikain*-i 10 puntu dagozkio
  
- Idazlan luzea: *Oso Gutxi*-ri puntu 5 dagozkio  
*Gutxi*-ri 10 puntu dagozkio  
*Nahikoa*-ri 15 puntu dagozkio  
*Ongi*-ri 20 puntu dagozkio  
*Oso Ongi*-ri 25 puntu dagozkio  
*Bikain*-i 30 puntu dagozkio

Idatzizko zatiaren kalifikazio orokorra kalkulatzeko ariketen puntuazioak batuko dira eta ondoko taula aplikatuko da:

0tik 10era: *Oso Gutxi*  
11tik 23ra: *Gutxi*  
24tik 32ra: *Nahikoa*  
33tik 40ra: *Ongi*  
41etik 45era: *Oso Ongi*  
46tik 50era: *Bikain*

2. Ahozko zatia:

*Oso Gutxi*  
*Gutxi*  
*Nahikoa*  
*Ongi*  
*Oso Ongi*  
*Bikain*

2. atala.— HE2ko azterketaren zati eta ariketa desberdinak era honetan puntuatuko dira:

1. Idatzizko zatia:

- Irakurriaren Ulermena: 0tik 10 puntura
- Idazlan Laburra: *Oso Gutxi*-ri puntu 1 dagokio  
*Gutxi*-ri 2 puntu dagozkio  
*Nahikoa*-ri 4 puntu dagozkio  
*Ongi*-ri 6 puntu dagozkio  
*Oso Ongi*-ri 8 puntu dagozkio  
*Bikain*-i 10 puntu dagozkio

— Idazlan Luzea:	<i>Oso Gutxi</i> -ri puntu 5 dagozkio
	<i>Gutxi</i> -ri 10 puntu dagozkio
	<i>Nahikoa</i> -ri 15 puntu dagozkio
	<i>Ongi</i> -ri 20 puntu dagozkio
	<i>Oso Ongi</i> -ri 25 puntu dagozkio
	<i>Bikain</i> -i 30 puntu dagozkio

Idatzizko zatiaren kalifikazio orokorra kalkulatzeko ariketen puntuazioak batuko dira eta ondoko taula aplikatuko da:

0tik 10era: *Oso Gutxi*  
 11tik 23ra: *Gutxi*  
 24tik 32ra: *Nahikoa*  
 33tik 40ra: *Ongi*  
 41etik 45era: *Oso Ongi*  
 46tik 50era: *Bikain*

2. Ahozko zatia:

*Oso Gutxi*  
*Gutxi*  
*Nahikoa*  
*Ongi*  
*Oso Ongi*  
*Bikain*

3. *atala*.— Bai HE1 eta bai HE2ko azterketa gainditzeko bi zatiak gainditu beharko dira, Idatzizkoa eta Ahozkoa. Azterketaren nota orokorra ondoko mailen arabera ipiniko da:

*Oso Gutxi*  
*Gutxi*  
*Nahikoa*  
*Ongi*  
*Oso Ongi*  
*Bikain*

Bai zati idatzian, bai ahozkoan oinarrituta ipini behar den nota orokor hori erabakitzerakoan zailantzarik balego, ahozko zatia gehiago balioetsiko da.

4. *atala*.— Azterketa-batzordeak IRALE programan liberatuta dauden ikasketarien txanda-amaierako balioespenak izango ditu eskueran. Balioespen horiek kasu hauetan aldatu ahal izango dute azterketaren nota orokorra:

a) Idatzian 22 edo 23 puntu lortu dituzten azterketariak, beti ere bi Idazlanetariko bat bederen eta Ahozko zatia gaindituta badituzte.

b) Ahozko azterketan «gutxi» kalifikazioa izanik ere, gaindituaren muga-mugan dagoen kasu bereziren bat, beti ere Idatzizko zatia gaindituta badu.

Kasu hauetan txanda-amaierako balioespena hartuko da kontuan, hain zuzen ere, HE1eko azterketan 3. moduluko balioespena eta HE2ko azterketan 5. moduluko.

5. *atala*.— Laugarren atalean zehazten diren azterketari horien kasuan honela jokatuko da: azterketariak suspenditu duen azterketa-zatiari dagokion balioespena begiratuko da. Azterketariak Idatzizko zatia suspenditu badu, idazmenari dagokion balioespenari begiratuko zaio. Ahozko zatia suspenditu badu, aldiz, mintzamenari dagokion balioespena hartuko da kontuan. Arlo horretako txanda-amaierako balioespena positiboa denean, azken hau nagusituko da azken balioespen globala ematerakoan. Berraztertze-lan hau azterketa-batzordeak edo, batzordeburuak hala nahi izanez gero, haren barnean horretarako moldatzen duen batzorde txikiago batek, burutuko du.

6. *atala*.— Azterketarien azken ebaluazioa azterketa-batzordeak emango du «gai» edo «ez gai» moduan eta Agindu honetan esandakoaren arabera.

7. *atala*.— Hala nahi duen azterketariari ahozko zatia grabatuko zaio. Horrek, besteak beste, erreklamazio-kasuetan kalifikazioa zuzen jarri dela ziurtatu ahal izatea ahalbideratuko du

8. *atala*.— Azterketaren maila arauz finkaturik dagoenera egokitzen dela ziurtatzeko, notak jakinarazi aurretik azterketen ehuneko bat bigarren aldiz kalifikatuko da. Ahalmena ematen zaio Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari atal honetan ezarritakoa garatzeko neurriak har ditzan.

9. *atala*.— Kalifikazio-sistema hau aplikatzeko behar diren balorazio-irizpideak lantzea Epaimahai Bateragileari dagokio.

(.....)

## VII.2.4. Deialdi irekiaren kalifikazio-sistema

**ERABAKIA, 1997ko martxoaren 18koa, Hezkuntza sailburuordearena, 1997. urtean irakasleen hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko azterketa irekietarako deia egiten duena.(apirilaren 14ko EHAA)**

(.....)

*7. atala.*— 1994ko urtarrilaren 10eko Aginduaren 11. atalak ezartzen duenaren arabera, hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko azterketek bi zati (bata idatzizkoa eta bestea ahozkoa) eta hiru proba izango dituzte, hirurak aparteak eta kanporatzeko izaerarekin.

*10. atala.*— Lehen hizkuntz eskakizuneko (HE1) zati eta probak eta beren puntuazioa honela ezarrita daude:

a) Idatzizko zatia

*1. proba:* aukera anitzeko proba bat izango da. Honen bitartez irakurriaren ulermenarekin eta hizkuntzaren erabilera egoki eta zuzenarekin zerikusia duten alderdiak baloratuko dira. Probak 70 galdera izango ditu eta gainditzeko gutxienez 45 asmatu beharko dira. Proba honen gehienezko iraupena ordubetekoa izango da.

*2. proba:* ahozkoaren ulermen, irakurriaren ulermen eta idazmen-ariketak izango ditu. Proba honen ariketak honela kalifikatuko dira:

— Ahozkoaren ulermena:	Otik 5 puntura
— Irakurriaren ulermena:	Otik 5 puntura
— Idazlan laburra:	<i>Oso Gutxi</i> -ri puntu 1 dagokio <i>Gutxi</i> -ri 2 puntu dagozkio <i>Nahikoa</i> -ri 4 puntu dagozkio <i>Ongi</i> -ri 6 puntu dagozkio <i>Oso Ongi</i> -ri 8 puntu dagozkio
— Idazlan luzea:	<i>Oso Gutxi</i> -ri puntu 5 dagozkio <i>Gutxi</i> -ri 10 puntu dagozkio <i>Nahikoa</i> -ri 15 puntu dagozkio <i>Ongi</i> -ri 20 puntu dagozkio <i>Oso Ongi</i> -ri 25 puntu dagozkio

Proba «gai» edo «ez gai» moduan kalifikatuko da. «Gai» kalifikazioa eskuratzeko gutxienez 24 puntu lortu behar dira. Azterketa honen gehienezko iraupena 3 ordukoa izango da.

b) Ahozko zatia (3. proba): Ahozko trebetasunak azterketa-batzordeko gutxienez bi kideren aurrean erakutsiko dira. «Gai» edo «ez gai» moduan kalifikatuko da

*11. atala.*— Bigarren hizkuntz eskakizuneko (HE2) zati eta probak eta beren puntuazioa honela ezarrita daude:

a) Idatzizko zatia

*1. proba:* aukera anitzeko proba bat izango da. Honen bitartez irakurriaren ulermenarekin eta hizkuntzaren erabilera egoki eta zuzenarekin zerikusia duten alderdiak baloratuko dira. Probak 70 galdera izango ditu eta gainditzeko gutxienez 45 asmatu beharko dira. Proba honen gehienezko iraupena ordubetekoa izango da.

2. *proba*: irakurriaren ulermen eta idazmen-ariketak izango ditu. Proba honen ariketak honela kalifikatuko dira:

- Irakurriaren ulermena: Otik 10 puntura
- Idazlan laburra: *Oso Gutxi*-ri puntu 1 dagozkie  
*Gutxi*-ri 2 puntu dagozkie  
*Nahikoa*-ri 4 puntu dagozkie  
*Ongi*-ri 6 puntu dagozkie  
*Oso Ongi*-ri 8 puntu dagozkie
  
- Idazlan luzea: *Oso Gutxi*-ri puntu 5 dagozkie  
*Gutxi*-ri 10 puntu dagozkie  
*Nahikoa*-ri 15 puntu dagozkie  
*Ongi*-ri 20 puntu dagozkie  
*Oso Ongi*-ri 25 puntu dagozkie

Proba «gai» edo «ez gai» moduan kalifikatuko da. «Gai» kalifikazioa eskuratzeko gutxienez 24 puntu lortu behar dira. Azterketa honen gehienezko iraupena 3 ordukoa izango da.

b) Ahozko zatia (3. proba): Ahozko trebetasunak azterketa-batzordeko gutxienez bi kideren aurrean erakutsiko dira. «Gai» edo «ez gai» moduan kalifikatuko da

(.....)

15. *atala*.— Bi hizkuntz eskakizunak egiaztatu nahi dituzten azterketariek eskakizun biei dagozkien probak egin beharko dituzte.

16. *atala*.— Probaren bat gainditu bai baina denak gainditzen ez badira, egindakoa ez da kontuan hartuko aurrerago egin daitezkeen hizkuntz eskakizunen egiaztapen-prozesuetan.

(.....)



# EUSKARA ZERBITZUKO ARGITALPENAK

## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

### 1. GLOTODIDAKTIKA-LANAK

#### a) Hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko gaiak

- *Hizkuntzen irakaskuntza: topikoak eta metodologiak*. N. Gardner (1).
- *Hizkuntzen irakaskuntza: gramatika ariketak*. J.A. Mujika (2).
- *Hizkuntzen irakaskuntza: mailaketa gramatikala*. I. Olaziregi (3).
- *Hizkuntzen irakaskuntza: zenbait artikulua* (5).
- *Hizkuntz jolasak*. M. Sainz - I. Olaziregi (15).
- *Bakarka 1. Euskera a distancia*. J.A. Letamendia (18).
- *Bakarka 2. Euskera a distancia*. J.A. Letamendia (22).
- *Bakarka 3. Euskera a distancia*. J.A. Letamendia (29).
- *Trebatzen. OHOkoko goiko ziklorako hizkuntz ariketak*. M. Sainz (23).
- *Euskalkiz euskalki*. R.M. Pagola (19).
- *Euskararen oinarritzko hiztegia. Maiztasun eta prestasun azterketa*. J.M. Etxebarria - J.A. Mujika (31).
- *Oinarritzko hitzak. Euskarazko hitz erabilgarrienak*. I. Olaziregi (34).
- *Euskara DBHn. Metodologiazko orientabideak*. J.J. Agirrezabala etab. (48)

#### b) Bideo-gidoiak/Txotxongiloak/Musika

- *Haurrak euskalduntzen giñolaren bidez I*. I.M. de Lezea - Kukubiltxo (6)
- *Haurrak euskalduntzen giñolaren bidez II*. I.M. de Lezea (9).
- *Eskolarako ipuinak eta txotxongiloak*. I.M. de Lezea (14)
- *Ipuin zahar eta berriak*. L. Iriondo (10).
- *Kontu kontari*. L. Iriondo (20).
- *Amonaren ipuinak*. E. Genua (12).
- *Ipuin gehiago*. A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada (13).
- *Jolasean*. I. Urbieta (11).
- *Musika hezkuntza eskolaurrean*. I. Urbieta (21).

#### c) Gaitasun-agiriak

- *Euskaltzaindiak batasunerako eskaini dituen erabakiak* (8).
- *Euskararen gaitasun agiria. Programa*. (7).
- *Irakasleen Euskalduntzea. HE1erako curriculuma* (45).
- *EGA. 1995-96ko azterketak* (46).
- *Irakasleen Euskalduntzea. HE2rako curriculuma* (49).
- *Irakasleen hizkuntz eskakizunak. 1997ko azterketak* (50).

#### d) Ebaluazioak eta hizkuntz testak

- *EIFE 1. Euskararen irakaskuntza: faktoreen eragina*. (lau hizkuntzatan). J. Gabiña - R. Gorostidi - R. Iruretagoiena - I. Olaziregi - J. Sierra (HUIS - HPIN).
- *EIFE 2. Euskararen irakaskuntza: faktoreen eragina*. (lau hizkuntzatan). J. Sierra - I. Olaziregi (33).
- *EIFE 3. Euskararen irakaskuntza: faktoreen eragina*. (euskaraz, gaztelaniazeta ingelesez). J. Sierra - I. Olaziregi (36).
- *HINE. Hizkuntza idatziaren neurketa eskolan*. (euskaraz eta gaztelaniaz). J. Sierra - I. Olaziregi (38).
- *GALBAHE E1 hizkuntz testa (B eta D ereduak OHOkoko 2. mailarako)*. I Olaziregi - J. Sierra (26).
- *GALBAHE E2 hizkuntz testa (B eta D ereduak OHOkoko 5. mailarako)*. I Olaziregi - J. Sierra (25).

- *GALBAHE C1 y C2. tests de lengua (Gaztelaniazko testak OHOk 2. eta 5. mailetarako)*. J. Sierra - I. Olaziregi (27).
- *Zortzi-A hizkuntz testa (A ereduko OHOk 8. mailarako)*. I. Olaziregi - J. Sierra (28).
- *PIR-5 hizkuntz testa (B eta D ereduetako eskolaurre-amaierarako)*. I. Olaziregi - J. Sierra (30).
- *Euskara probak. Irakurmena eta idazmena (OHOk 8. mailarako)*. I. Olaziregi - J. Sierra (37).
- *Pruebas de lengua. Comprensión lectora y expresión escrita (8.º de EGB)*. J. Sierra - I. Olaziregi (39).

## 2. HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA

- *Bizkaieraren idaztarauak. deklinabidea eta aditza*. A. Arejita - J.M. Irazola - J. Uriarte (1).
- *Euskal aditza: bizkaiera eta batua*. J.M. Irazola (2).
- *Bizkaierazko joskera*. A. Arejita - J.M. Etxebarria - J.M. Irazola - J. Uriarte (4).
- *Hezkuntza-administrazioko hiztegia*. I. Olaziregi - J.M. Berasategi - M. Zalbide (5).

## 3. ZABALKUNDE-LANAK

### a) Euskal Ikasmaterialgintza (EIMA programa)

- *Hezkuntza softwarearen bilduma 1995*. P. Mendizabal - I. Olabarria - M. Zalbide (41).
- *Ikasmaterial idatzien bilduma 1994*. J. Aizpurua - B. Basterretxea - I. Olabarria - M. Zalbide (38).
- *Ikus-entzunezko ikasmaterialen bilduma 1994*. P. Mendizabal - I. Olabarria - M. Zalbide (39).
- *Ikus-entzunezko ikasmaterialen bilduma 1996-97*. P. Mendizabal - I. Olabarria - M. Zalbide (43).

### b) Irakaslegoaren Alfabetatze-Euskalduntzea (IRALE programa)

- *IRALE. 1997-98ko Aurkezpen-txostena*

### c) Normalizazio Legearen Garapena (NOLEGA programa)

- *Eskola-antzerkia*. Askoren artean (18).
- *Eskola antzerkia 2*. Askoren artean (30).
- *Eskola antzerkia 3*. Askoren artean (31).
- *Eskola antzerkia 4*. Askoren artean (40).
- *Eskola antzerkia 5*. Askoren artean (42).
- *Eskola hiztun bila*. B. Basterretxea etab. (28).
- *Sagastiberri. Urruzuno literatur lehiaketa 1997*
- *Euskal girotze egonaldietarako eskuliburua*. Askoren artean (16).
- *Euskal girotze barnetegiak*. Askoren artean (34).
- *Ikastetxeen errotulazioa*. C. Lobo - I. Artola - J.M. Berasategi (37)
- *Nolega. Aurkezpen-txostena 1997-98*.

### d) Bestelakoak

- *Euskal irakaskuntza: 10 urte* M. Zalbide etab. (24).

---

*Oharra:* Parentesi artean jasotzen da liburu bakoitzak kasuan kasuko sortan duen zenbakia.











Irakasleen hizkuntz eskakizunak <sup>EK</sup>15020237